

Luis Rezola Arana

"Tximela"


**BAKARDADEKO  
AMETSAK  
I**

---

Erri-literatura  
Auspoa Liburutegia

---

Bertsoak



**ETOR**

00-2178-

30236

# BAKARDADEKO AMETSAK I



Auspoa Liburutegia  
204



Luis Rezola Arana, *Tximela*, gerra denboran, espetxean zegoala, lagun batek egindako marrazkian.

Luis Rezola Arana  
"Tximela"



# BAKARDADEKO AMETSAK

I

(Bertsoak)

Zuzendari - Antonio Zavala



EDITORIAL

**ETOR**

ARGITALETXEA

© EUSKO KULTUR ERAGINTZA ETOR S.A.  
Euskal Herria, 2-2º 20003 DONOSTIA

I.S.B.N: 85527-59-3

D.L.:NA. 1576-1989

Irar-lanak: GRAFICAS LIZARRA, S.L. - Lizarra

## ITZAURREA

Gaurko bi bertso-liburu auen egillea, Luis Rezo-la Arana, Tolosan jaio zan, 1914 urteko abuztuaren 24'ean.

*Tximela* esanda ezagunagoa izan da beti. Bañan izengoiti ori ez da berari erantsia, famili eta kasta guziari baizik. Izaskungo aiton tximel-tximel bat izan omen zan lenengo *Tximela*, eta aren ondorengoak *Tximela* edo *Tximelatarrak* dira gaur egunean ere.

Sei senide izan ziran, bera bosgarrena izanik: Maria Dolores; Maria Anjeles, il berria; Jose Manuel, gerran zauritu, berrogei urtean Frantzian bizi eta orain lau bat urte illa; Gregorio, gerran illa; Luis eta Maria Isabel. Gaur bizi diranak, iru, beraz.

Aita, Tolosako lur emale edo enterradorea zan. Lenengo, Arrameleko kanposantu zarrean; eta, ondoren, San Blasko kanposantu berrian. Berri au egin zanean, Luisek urtebete zuan, eta kanposantuaren ondoan lur emalearentzat egin zuten etxera aldatu zan famili osoa. Garai artan, "Tximelaren baratza" esan oi zioten tolosarrak kanposantuari.

Aita gazterik il zan, Luisek amabi urte zituala; eta urrengo urtean, berriro Tolosara jexi zan familia bizi izatera.

Bere ikasketak Tolosako eskolapioetan egin zituan Luisek. Bañan amairu urterekin lanean asi zan, Tolosan bertan, Arrameleko *Tornillería Goñi* izeneko fabriketan.

Amabost urterekin, *Tornillería Zuaznabar* izenekora aldatu zan. Tolosakoa lantoki au ere.

Lanetik atera eta gau-eskolara joaten zan egunero, bear zanean ikasi etzituanak ikastera.

Naiz eta bere familia eta lantokia Tolosako kalean izan, San Blasko auzora jotzen zuan beti lagunartara; mutil koxkorretan egindako lagunetara, alegia. Bere bertsoetan bein baño geiagotan aitatzen ditu: Iparragirre baserriko Martin eta Miel Mari, Aritzetako Anttonio eta Patxi, Aritzioko Blas eta abar.

Emeretzi urterekin *Talleres Aduna* fabrikara aldatu zan. Lantoki au, beraren izenak dionez, Adunako partean dago, zubia igaro ta eskubira artuta.

Soldadu urteak zituan, astean bein, gauean, Donostiko Loiolara joaten zan, instruzioa ikastera.

Ondoren, ogei urte zituala, kuartelera joan bear. Lenengo Palentziara, *batallón ciclista* izenekoan serbitzera; eta ondoren Alcalá de Henaresera. Bietan, *soldado primera instructor* izan zan. Sei illabete egin zituan soldaduskan. Andik etorri eta ostera ere *Talleres Aduna* dalako ortara.

Gerra asi eta eusko gudaroztean sartu zan. Lenengo, Loiola batalloian. Ondoren, Jagi-jagi'koak bi batalloi osatu zituzten, *Zergaitik ez eta Lenago il*



izenekoak, eta bera bigarrenko ontara aldatu. Baita, illabete baten buruan-edo, kapitan izendatu, berak bertso batean esaten duanez, "izardunetan gazteenetakoa" izanik. Ogei ta bi urte baizituan.

Gipuzkoa galdu ondoren, Gorbea, Oitz, Gernika eta Bilboko inguruetan ibili zan geienbat.

1937 urteko abuztuan, prisionero erori italianoen mendean. Lenengo, amabost egun-edo, Laredon euki zuten. Andik Santoñara, Duesoko espetxera, eramanez eta antxe juzkatu, *juicio sumarísimo militar* egiñez. Baita betiko itzala eman ere: "*condenado a la pena de Reclusión Perpetua, por motivo de adhesión a la Rebelión*".

Dueson urtebete egin ondoren, Andaluzira eramanez zuten, Puerto de Santa María'ra, eta emen beste bi urte pasa.

Gerra bukatutakoan, espetxeak jendez gañezka baizeuden, *revisión de causa* egiten asi eta pixkanaka preso guztiak libratu. Gure Luis, berriz, 1940 urtean kaleratu zuten, agorrek 12 zituala, gudan urtebete eta espetxean iru urte pasa ondoren.

Tolosara etorri eta berriro ere lengo lantokira, *Talleres Aduna*'ra alegia.

Bañan lengo lepotik burua eta 1946 urtean, paper batzuk zabaldu zituala-ta, Ondarretako espetxera eramaten dute. Eta 1948'an, beste bi lagunekin, Uzturre mendiko puntan ikurriña jartzen du.

Urte berean ezkondu, Adunako Garagartza base-rriko alaba dan Ramona Zabala'rekin. Eta Billabonan jarri bizi izaten. Gaur egun ere bertan jarraitzen dute.

Ezkontza ontatik bi seme jaiio: Modesto, 1949'an; eta Ramon, 1952'an.

Irurogei ta sei urterekin erretiroa artu zuan *Tal-leres Aduna* dalako ortan, eta orain Jaunak eman dezaiola pakea ta osasuna, gure artean luzaroan izan dezagun.

\* \* \*

Argibide oiek bearrezkoak ziran, liburu ontako bertsoak ondo ulertuko badira. Bizitza bide batekin konparatu ezkerok, Luisek bere bide orren ertzetan sortutako loreak dira bertso aukerak.

Zaletasun ori oso gazterik erne zitzaion. "Zortzi urte ezkerok bertsoak abesten" esaten digu berak bertso batean. Eta amabost-bat urterekin jarritako bertso pare bat ere badu emen.

Gerra aurretik mordoska bat bazuan papereratua, irakurleak ikusiko duanez. Baña kartzela izan zuan, esate baterako, bere bertso-eskola. Beste zer egiñik ez eta bertso jartzeari ekin, ango mixeriak kantatuz. Mordo aundia jarri zuan itzalpeko urte aietan.

Andik atera eta jarraitu zion, naiz eta urte txarrak izan. Nun argitaraturik ez baizegoan. Zentsura alde batetik, euskal aldizkaririk ez bestetik; eta bertso-paperak ere, gerra arte ain ugariak ziranak, gero ta urriago.

Ala ere, moldiztegitik atera ziran azkenetako bertso-paper batzuk berak atera arazi zituan. Adibidez, Izaskungo Ama Birjiñaren bertsoak (1949), So-roak txapela irabazi zuanean (1954), "Iturriotzen

egun pasa" izeneko sorta (1964), "Basarri jaunari, Tximela kantari" deritzaiona (1965) eta abar.

*Zeruko Argia, Goiz-Argi eta Príncipe de Viana* aldizkariak asi ziranean, aietan arkitu zuan, beste bertso jartzalle askok bezela, bere bertsoak argitara emateko bide zabal ta eroso. Erreztasun orrek eraginda, sail asko paratu zituan orduan.

Gau batzuetan, goizeko ordubietan edo iruretan oietik jeiki egiten omen zan, orduan bururatutako punturen bat idaztera, aztu baño len. Baita amabi-edo urteko semea iñoiz esnatu ere, onela esanez:

– I, boligrafoen bat bai al dek? Puntu bat gogoratu zaidak eta apuntatu nai nitek.

Orrenbesterañokoa bere zaletasuna. Andik aurre-ra, ordea, lotara baño len, onela esaten zion semeak:

– Emen uzten det boligrafoa, eta ez ni gabeen esnatu.

Nik neronek ere, bertso biltzen asi berritan, orain ogei ta amabost bat urte beraz, berarengana jo nuan. Etxetik edo nunbaitetik ikasia nuan *Tximela* esaten zioten bertsolari bat bazala gure jaioterrian. Baita berak bertso mordo aundi bat nere eskuetara ekarri ere. Kopiatu eta bueltatu nizkion.

Gaur arte zergatik argitaratu ez ditugun? Ez ditu irakurleak bertso asko begien aurretik pasa bear izango, erantzuna berak somatzeko. Kartzelakoak, izan ere, Francoren denboran ezin kalera atera. Ura joan zan ezkeroztik, ala ere, urte batzuk pasa dira.

Noizbait bear ta txanda iritxi zaie, ordea. Lenengo lana, nik nituan bertsoak moldiztegirako prestatzea. Ondoren, aren etxera deitzea. Biaramonean bi

semeak etorri zitzaizkidan, Modesto eta Ramon, bertso mordoa aundia berekin zutela. Berak ere, aitarien bertsoak biltzen asiak baiziran.

Berak bazituzten nik ez nituanak, eta nik ere bai aiek palta zituztenak. Bi mordoeekin bat egin eta orixe da gaur irakurleari eskeintzen dioguna. Bilduma ugaria benetan. *Auspoa*'ren zenbaki batean ezin sartu eta bitan banatu bear izan degu.

Bertsoak ordenatzeko, jarri ziran urtea artu degu kontuan, zarrenetik asi alegia, sail bakoitzaren bukaeran noizkoa dan adieraziz. Bertso asko, orain arte iñoiz argitaratu gabeak dira. Olakoak nundik ditugun orain esatearekin naikoa izango da: egillearen esku-idatzietatik artuak dira. Besteak, berriz, orain baño len argitaratuak alegia, argia nun ikusi zuten aldi bakoitzean esaten degu.

Tolosako erriak bertso jartzalle ta olerkari opa-roak eman ditu. Besteak beste, auek izendatu genitzaizke: Ramon Artola, Ramos Azkarate, Emeterio Arrese, Lizardi –au Zarautzen jaioa izan arren, Tolosan bere lanak idatzia– eta gaurko Luis Rezola Arana, *Tximela* alegia. Eta itz-lauzko lanak atera ziztuztenak aitatzen asita, izen zerrenda ederki luzatuko genduke.

Badira oietan, oraindik ere bere bertsorik edo lanik geienak illunpean dauzkatena. Jaunak eman dezaigula grazia, gaur *Tximela*'rekin egin deguna, beste oiekin ere egin al izan dezagun.

A. Z.

## SEMEAK AITARI

*Bilduma hontan goratzen nauzu  
nere lo-arnasa aipatuz,(1)  
ta itzalpeko zure ametsak  
bete zirela aitortuz.  
Geroztik ni ezituz,  
ezin bertsolarituz,  
bainan zerbaiten kutsua  
erantsi dezu, ta hona hemen  
nere esker berotsua.*

Modesto Rezola Zabala  
(1989, urriak 23)

\* \* \*

*Hitzaurrean bertsoak  
idazten hastiak,  
semearentzat ditu  
lan ondo kostiak.  
Nahiz ta ezin bildu  
aitaren guztiak,  
itsusi emango luke  
daudenak uztiak;  
batzuk dira alaiak,  
besteak tristiak.*

*Tolosan jaio zinan  
deiturik "Tximela",  
gaztetan ibilia  
gudari bezela,  
une larrik pasatuz  
kapitan zinela.  
Euskaldun izanikan  
ondoren kartzela,  
etorri zinan handik  
goseaz ergela.*

*Maitasunarengatik  
Adunara joan,  
nola ezagutu zun  
daduka gogoan.  
Billabonara pasa  
ezkontzerakoan,  
bi seme edukita  
gustora zegoan,  
bertsoak jarririkan  
maitasun osoan.*

*Ilusio galanta  
emanik aitari,  
jakin zazute danok  
dala bertsolari.  
Esker beroak berriz  
anai ta amari,  
haita gogoratu dan  
jaiot-herriari,  
hainbat jende gehiori  
eta Auspoari.*

Ramon Rezola Zabala  
(1989, Urriak 22)

(1) Ikus 195'garren orri-aldean.

## **PRANTXISKAREN ATZETIK**

Tolosan bizi arren, jaio nintzaneko San Blas ezin aztu.

1/ Ixilka eta mixilka  
etorria naiz Muxikâ  
goitikan bera amilka.  
Aitonak sega pikatu eta  
amonak luzea bixta,  
nik engañatzeko pixka,  
txoko batetikan txixta:  
"Etxean al da Prantxiska?".

2/ Amonak arpegi alaiz  
erantzun baizidan garaiz:  
"Orain ere emen al aiz?".  
"Bai, amona, bai, ikusi gabe  
Prantxiska, ezin etsi naiz;  
ta, beok nai badute, maiz  
morrontzâ etorriko naiz,  
soldatik ere gabe naiz".

(1929)

## **EUSKO BIZITZA TA OITURAK**

Lanari gogor ekin arren, beti pestarako prest.

1/ Nai deten eran asi libre det  
eusko bizitza sartuaz,  
zeru gañeko argi ederrak  
orain nijoia artuaz,  
Donostiako txapelket ori  
astindutzeko asmuaz,  
olerkietan apal da txukun  
bost puntuan eratuaz,  
ez naiz bakarrik, asko gerade,  
danok sari billa guaz.

2/ Lur maite ontan jaio giñanak  
txikitan giñaden azi,  
Jaungoikoari bildurra artzen  
danok genduan ikasi;  
astegun da jai jolas ta jolas,  
elizara joan lenbizi,  
gero mutildurikan lanera,  
etxerako irabazi,  
bakoitzak bere sendia zainduz  
ez al gera jator bizi?



- 3/ Eguna joan da eguna etorri,  
au da gure izaera,  
"jana nai badek lana egin zak"  
ez da gaurko esaera;  
batzuek ogi billa ospelera  
ta besteak euterera,  
etxea bete anai gaude ta  
danontzat nun da aukera?  
Txiro-aberats danok gogotik  
saiatuta bizi gera.
- 4/ Garizumako egunak dira  
urte guziko tristenak,  
mixiolariak agindutako  
lana egiten degu denak;  
Aste Santutik gerora datozen  
egunikan alaiena,  
erromeri ta beste gauz asko  
antziñatik datozenak,  
oraindik ere zutikan daude  
lengo oitura geienak.
- 5/ Segar ta idi-apustu eta  
gañera arraunlariak,  
bertsolari ta dantzari onak,  
kantore ta aizkolariak;  
korrikalari on da bolari,  
baitare pelotariak,  
arri-jasotzalle ta eiztari,  
soñu ta txistulariak,  
amaika orlako artista eder  
badauka Euskalerrriak.

- 6/ Oitura zarrez gu joaten gera,  
entzunez egon begira,  
San Juan txikitan Erniora ta  
San Tomasez Donostira;  
txorixo pixkat jan gabe ezin  
iñolaz andikan jira,  
baserritarrak kapoi ta guzi  
zerbait zor duten tokira,  
urte guziko pakea eginda  
pozikan etortzen dira.
- 7/ Arantzazuko Amatzok ditu  
bere semeak jatortzen,  
iñoiz gaxorik joaten bada bat  
sendatuta du bialtzen;  
muñ egitera urtero guaz  
da penaz gera etortzen,  
bera ere itun gelditutzen da,  
otoitzak dute alaitzen,  
babespe ori gabe ez genduke  
gaur asmatuko bizitzen.
- 8/ Zaletasunak onak dauzkagu  
Eliz Amarentzat bero,  
jatorriz dakarkigu nai gabe  
ori sortu zan ezkeru;  
aurreko zarrak onela ziran,  
gu berdin etorri gero,  
baratz gozo au bizi dan arte  
galtzerik ez det espero,  
orretarako gaituk geranok,  
jorratu zagun urtero.

9/ Itxasoz beste aldera emendik  
asko joan ziran labrantzâ,  
urre lur ona zala gañera  
laister emanikan antza;  
an ongi biziko dira bañan  
beti onekin ametsa,  
alperrikan da, emen jaihoek  
emen daukagu ardatza,  
ez degu urrez jantzia baño  
oso polita baratza.

10/ Baratz oneri nola eguzkia  
ala etortzen zaio intza,  
goitik laguntza ona ta beian  
alkar maitatuz gabiltza.  
Iñorentzako gorrotorik ez,  
ai, au da lurreko ditxa!  
Amerikanok Asiakoakin  
erdi burrukan dabilta,  
askozaz ere paketsugoa  
ez al da gure bizitza?

(1930)

## **URRETARI GORAINZIAK**

Nere gisa, itz eta erantzunetan.

- 1/ Tolosara egunero,  
bakar-bakarrikan,  
esnezale bat dator  
San Blas aldetikan.  
Onen bidez bialtzen  
ditut emendikan  
goraintzik Urretari  
nere partetikan.
  
- 2/ Auzoko neska batek  
ekarri zizkiak,  
pastel goxuen ordez,  
eskumiñ iriak.  
Aztuak ez bazaizkik  
emengo biriak,  
lagun, ator jatera  
gaztaña erriak.

3/ Eskerrak zeuzkat, Antton,  
iri emateko,  
eta gañera gauz bat  
orain esateko:  
gogoia euki arren  
gaztañak jateko,  
etzeukat denborikan  
Aitzetâ joateko.

(1932)

## GAZTE KONTUAK

Donostin armonin.

Egun bikaña igaro degu  
lagun artean armonin,  
Donostian txit bazkaldu eta  
apaldu berriz Ernanin.  
Onenetako ardo zarra ta  
kapearekin *peppermint*,  
neskatxa bana falta genduen,  
orretzek ematen dit min.

Etixeratuak noiz izan geran  
egizkuak ezin uka,  
amak zionez asia zegon  
ollarra kukurrukuka.  
Oietik uju bota dit: "Ik gaur  
egin dek naiko zurruta,  
sei ordu oitan aditzen natxok  
ire anaian zurrunka".

(1932)

\* \* \*

Martinari:

Tatxarikan ez daukan,  
gorputzen den bixtan,  
azkar burua jira  
aurreneko txistan.  
Iñork ikusi gabe  
ate ori ixtan,  
ea egiten degun  
alkarrekin briskan.

(1933)

\* \* \*

Otordua jartzeko gure zai.

Uliko zelaiatik  
Mugara begira,  
goitik uso-bandara  
sartu zaigu erdira.  
Anttoniok eta nik  
bina tiro tira,  
len baño azkarrago ta  
sanogo joan dira.  
guregatik goseak  
ilko da Elbira.

(1934)

\* \* \*

- Zer abil, Tximela?
- Ementxe, motel, erdi nazkatuta.
- Lasa egon adi. Alkarrekin joango gaituk Ibarra aldera, eta meriendatuko dek an, nere etxean, bertso boteaz. Sagardo puska bat ere edango diagu.

- Ez diat erantzungo  
itz txarretan emen,  
etzeukat joaterikan  
gogoia euki arren.  
Lenbizi ara joan,  
merienda bigarren,  
piparra besterikan  
etzegok Ibarren.

(1935)

\* \* \*

Lagun arteko aparirik gabe ezin bizi.

Gogoak ematen dit  
kantari astia,  
ixilik egotia  
nêtzat kaltia.  
Ondo egin da gero  
karakol jatia,  
Joxe Martiñek jan du  
gaur bere partia.  
Austintxo pixtia,  
Patxiku bestia,  
Intxausti trastia  
ta Urreta gaztia,  
kosta bear zaizute  
Tximela austia.

(1935)





Luis Rezola, *Tximela*, eta bere arreba Maria Isabel.

## ARITZETAKO ANTTONIORI

Arratsaldeko ordu bietan irten nintzan lantokitik. Bazkaldu eta San Blasera igo nintzan, Aritzetara. Ango ama bakarrik zegoan, eta oso ondo artu nintzan, Anttonio "ikastegira" joan zala esanez; Etxeberriko soroa baniatzera, alegia.

Anttoniori itxogiten nion bitartean, jatenak etxeratzen lagundu nion bere amari. Lan au bukatu bezin azkar, gaixoak naiko jan eta edan eman zidan. Sutondoan biok, eta ikulluko ate aldetik zetorren zarata-ots bat entzun genduan. Joan nintzan zer ote, eta:

- Nor da?

- Ni.

An zegoan Anttonio, zegoan bezela. Onela jarri nituan bertso auk:

1/ Lotuta dedan itza  
orain nai det eten,  
Anttoniok badaki  
zer esan nai deten.  
Beñere ez du galtzen  
denbora egoten,  
bete-betea ator  
eundalako neken,  
nik etzekiat, motel,  
burua nun deken.

- 2/ Etxera etorri aiz  
zazpi ordu barru,  
ederki beroturik  
kanpo eta barru;  
ikulluko atean  
ixtillu ta marru,  
gero pixa-zulora  
erori zanbulu,  
sarturik gelditu aiz  
ankak eta buru.
- 3/ Jaso izan dizkiat  
ire kargakuak,  
bañan ez i bezela  
moteldutakuak.  
Goierrin egin dituk  
gustozko traguak,  
etxean uste gabe  
pixa-zulokuak,  
orrela joango zaizkik  
berrizko goguak.
- 4/ Iñolaz ezin altxa  
zuen bere anka,  
ik nun arrapatu dek  
orrelako kaka?  
Nolabait eraman nun  
erdi arrastaka,  
bere ama atzetik  
neri purrustaka,  
oiean utzi nuan  
gogor zurrunkaka.

(1934)

## **XIRRIKI-XORKA**

Tolosako Zumardi Aundia eta beste baztar batzuetako gazte denborako kontuak. Xirriki-xorka, xirriki-xorka, orra or nere bertso sorta:

1/ Lan asko ditut ipiñik  
iñori eman gabe miñik,  
gaur berdin-berdin nijoakizute  
agur bat egiñik;  
ez det izango lagunik  
algara egingo ez dunik,  
neska-mutillen kontu politak  
esango ditut nik.

2/ Olarrain eta Belate,  
Guadalupek badu parte,  
San Blas alde ta estazioa  
ez dezu aparte.  
Zezen-plaza're baztarte,  
or biltzen dira bastante,  
neska-mutil da gañontzekoak  
egon esan arte.

3/ Laguna bere tontuan  
asi zaizute kantuan,  
Xenpelar zanan eresiakin  
al dedan moduan.  
Gordetzen badet buruan,  
ezta jakingo munduan  
mutilzar batek neskatxarekin  
zertsu egin duan.

4/ Zumardi Aundi ondoan  
ikusi nuan lengoan  
mutilzar batek nola zedukan  
neska bat besoan;  
esku bat *xor-xor* lepoan.  
bestea *xir-xir* kolkoan,  
*xirriki-xorka* zer egin zuten  
ez daukat gogoan.

5/ Neska zegoan bromosa,  
mutillak ardo-abotsa,  
nola liteke beregantzea  
alako arrosa?  
Gaur egiñagatik goza  
gerorako ez da poza;  
zure txokoak garbi esatera  
nijoa, Tolosa.

- 6/ Berriketaren marmarrak  
begirarazi baztarrak,  
toki illunean nabaitu nitun  
neskaren algarak;  
goxotasun-deadarrak,  
nunbait zerbait in bearrak,  
orduko parrak ekarri ditu  
oraingo negarrak.
- 7/ Kontuz ibili, neskatxak,  
ez izan famez exkaxak,  
gogoan izan zer egin zuten  
Paxik eta Kontxak;  
izan arren diru-otsak,  
inork ez du artu ontzat;  
orra illuneko lanak ekarri  
argirako lotsak.
- 8/ Baldin badegu zerbait on,  
ibiltzen gerade *bon-bon*;  
esan zarrak au esaten digu:  
"Ez danean egon".  
Bukatzeko lodi-megon  
pentsatu eziñik negon;  
danok dakigu Zumardi-Aundin  
gabean zer dagon.

(1935)

\* \* \*

Bertso auek gogoratu, idatzi nituanetik ogei ta bost bat urtetara, lau bertso auek erantsiz osatzen det sorta:

9/ Lan egokiak neretzat,  
alaxe iruditzen zat,  
askozaz ere egokigoak  
mutilzarrarentzat.  
Ejenplo bat guzientzat,  
batez ere gazteentzat,  
etxean nai ez degun gauzikan  
ez opa bestentzat.

10/ Lenago Zumardi Aundin,  
orain kalearen erdin,  
kapeteritan zer esanik ez,  
tabernetan berdin.  
Neskak ez du miñik gerrin,  
mutillak estutzen ler in,  
muxu ta muxu ortxen dabilta  
jaio ziran errin.

11/ Aizak, au dit bukatzeko:  
neska ez gaizki artzeko;  
iñauteriak gañean dituk,  
kontuz ibiltzeko.  
Bikaiña aiz billatzeko,  
gaupasak antolatzeko;  
ez dek xixtima txarra ezkontzak  
aurreratutzeko.

12/ Neskatzak, entzun gogozki:  
ez galdu zuen eguzki,  
bertsolariak zer esaten dun  
gogoan eduki.  
Gona motxean egoki,  
mutilla atzetik xaxarki,  
gaztetan zenbat galtzen zeraten  
Jaungoikoak daki.(1)

(1) *El Diario Vasco* egunkarian, 1981 urteko martxoaren 12'an, sail ontako sei bertso auek: 1, 4, 6, 7, 10 eta 11.





Luis Rezola, *Tximela*, Alcalá de Henaresko koartelean.

## LIBRE ALA SOLDADU?

Libre ala soldadu joan? Goizeko amarretan Donostiara joan giñan, gure suertea ezagutu naian. Tranbean bertso au kantatu nuan:

Donostira bagoaz  
suertearen billa,  
arroa banintz ere  
gaur nago umilla.  
Baraurik egon arren  
ez nago ixilla,  
Jainkoak nai duana  
izandu dedilla.

Lagun auek nituan: Aritzetako Antton, Aritzioko Blax, Iparragirreko Martin eta Eguzkitzako Joxe Iñaxio.

Ango berri jakin ondoren, Txomiñenera joan giñan. Ongi bazkaldu, naiko dantza egin eta berriro gure txokora. *Erbiya'*enean apaldu, eta kaxo, motel!

Ni San Blasera igo nintzan, Martiñen amari berri on bat eman naian. Atea *kox-kox* jo nuanarekin bat, igarri zion ni nintzala. Ez izan lenengo aldia!

– Zer zabilta, Luixito?

– Berri bat dakarkizut.

– Pasa, pasa! Eta... Martiñ norako tokatu da?

Bertsoz erantzun nion:

– Semea pozik etorria da,  
gu berriz pixkat estuta,  
ni beintzat laister soldadu nua  
legez ala tokatuta.

Iparragirrek suertea beti  
oraindño izan du ta,  
Maria, lasa lo egin zazu  
semea libre dezu ta.

Amaren poza! Aren zoramena! Ez dakit nola ez nindun jan!

– Ai, Luis maitea, au da berria  
gaur ekarri didazuna!  
"Otx!" esaten dan bezela joan zait  
barrengo estuasuna.  
Ama batentzat ederrena da  
etxeko edertasuna,  
ez dakizute oraindik ondo  
zer dan gurasotasuna.

(1935, urria)

## GORBEAN

Guda bete-betean, Gorbea mendian, nere guda-  
riei:

Gudari zintzo, emen  
nerea aditu:  
guda gogorak onuntz  
txit ekarri gaitu.  
Egingo baziñake  
il edo eritu,  
putreak egoakin  
eramango zaitu.

\* \* \*

Gabon gaua ere Gorbea mendian. Nere enlazeak  
mezu idatzi bat ekarri zidan. Mezu onek Jose Anto-  
nio Agirre lendakari jaunaren Gabon gaueko itzal-  
diaren berri zekarkigun. Irakurri ondoren, bertso au-  
xe sortu nuan:

Gudari zintzo, gora izkilluak  
eta gudatu biotza!  
Ikusten dezu aberriari  
datorkion eriotza.  
Arerioa alboan dabil,  
bialdu zazu aruntza.  
Ludi guziko euskaldunari  
eskatzen diot laguntza,  
ez dedin galdu mundua mundu  
dan arte gure izkuntza.

(1936)

## LAREDON

Preso erori... eta guda galdu! Oraingoz, Laredoko  
konzentrazio kanpoan. Biar edo etzi, iñork ez daki.

- 1/ Italtarra ondo  
ezautu da mundun,  
laisterka sartutzen da  
gudik bada iñun.  
Etziran etorriko  
tiroka *dinbi-dun*,  
Benito Mussolinik  
bialdu ez bazitun.
  
- 2/ Benito Mussolini  
munduan nausiko,  
martxa onetan beintzat  
iñork ez du autsiko.  
Txapeldun jartzen bada  
arro da asiko,  
izurratuko gera  
denbora guziko.

3/ Kanpo konzentrazio  
batean nago ni,  
mendin pasa ta gero  
amaika agoni.  
Ez dakina ixilik,  
dakina kantari,  
emendik ire errira  
joan ai, Mussolini!

(1937)

## KAIOL ITXIAN

Auek ere Laredon jarriak.

1/ Au da kaiol itxiko  
nere gertaera,  
ta oraindik oi ta iru  
urtez nago bera.  
Gauz asko ikusirik  
gaztea naizela,  
gudaldiak proatu,  
gañera kartzela,  
orain ementxen nago  
txoriak bezela.

2/ Gudaren aurretikan  
gudari nenguan  
Alcalá de Henaresen,  
Madridko onduan.  
Zortzi illabete pasa  
ta kunplitu nuan,  
bañan berriz kunplitu  
egiterakuan,  
etzait paltako ille  
zuria buruan.



3/ Andik Tolosara joan  
da burni-olean  
lanean asi nintzan,  
Sorondorenean.  
Ori dago Adunan,  
beko barreanean;  
Leonek artu nindun  
ondo esanean,  
gero nik alde guda  
etorri zanean.

4/ Asiera izan nun  
oso leku goitan,  
Naparroako mukan,  
arkaitz bizi oitan.  
Udaran legorrik ez,  
negun beti loitan,  
Gipuzkoako zelai,  
baso ta menditan,  
emen asko etzala  
gero Bizkaikotan,

5/ Bizkaieraz ikasiz  
amar illabete  
Gorbean da Oitzen  
egin nitun bete.  
Gudaldi aundietan  
arturikan parte,  
iñoiz jan da lotako  
ezin artu tarte,  
naiko tiro tira nun  
Santander jo arte.

6/ Santanderra iritxi  
ta egin aitaren,  
esanaz: "Gauz onikan  
etzeukagu emen".  
Elizako kanpanak  
êmanak nabarmen,  
aldarerikan berriz  
iñun ez barrenen,  
au nola leike sigloz  
txit ogeigarrenen?

7/ Belar ona bakan da  
txarra ugaria,  
kristandadean berdin  
da gaurko ludia.  
Alkarrentzako degu  
maitasun urria,  
pakean bizi nai ez,  
au da izugarria,  
ez da zerun sartuko  
gure gizaldia.

8/ Alkarrentzako dago  
gorroto bizia,  
odola ixuri gabe  
au ezin bizia!  
Nola gorri ala berdin  
jotzen det zuria,  
oiek dauden artean,  
ai, Euskalerra,  
berriz ere izango da  
zuretzat luizia.

9/ Ni jaio nintzan lurra,  
zu zera maitekor,  
laisterka galduko naiz  
ez banabil bizkor.  
Emen ez nuke nai il  
bañan bai pozik or,  
zuk egin ninduzun da  
bizia dizut zor,  
zure babesean nor  
ez da ilko jator?

10/ Orko sinismen ona  
emen ez dago gaur,  
elizetan palta da  
onetsitako ur.  
Kristautu gabe utzi  
jaiotzen danen aur,  
zakurrari bezela  
iltzean eman lur,  
nunbait ez daude beste  
mundurako bildur.

11/ Au da azken urrengo  
bertso edo olerki,  
nortsu diran ezautu  
ain ditut ederki.  
Gorria xaxarko ta  
zuria xaxarki,  
zuek erre erriak  
ta guri aitzeki,  
orlako gizonakin  
ez det nai ezerki.

12/ Erioztar biurturik  
millaka zerate,  
inozenteak iltzen  
arro zabilzate.  
Beti bide txarretik  
pake ta gerrate,  
mesede gutxi egin  
ta ugari kalte,  
agur, etsai gaiztoak,  
ta beste bat arte.

(1937)



Luis Rezola, *Tximela*, gudari jantziarekin.

## **BAKARDADEKO OROIPENETAN**

1/ Gudan gudari ibilli nintzan  
amabi illabete buru,  
mendi batzutan arrixku aunditan,  
bestetan ere ez seguru.  
Ezertarako gogorik gabe,  
gorputzetik erdi lelu,  
malkarran bera atzera korri,  
aurrera egiten ez degu,  
eta azkenean atxiloturik  
ikusi bear geren buru.

2/ Gure gizaldi gizatxar ontan  
gertatu zait ezautzia  
anaia batek bestean aurka  
eskun izkilluk artzia.  
Etxe batean au da erabat  
pamilia ondatzia,  
alde batetik seme bat galdu,  
bestetik iru Prantziâ,  
ez da ederra izango oien  
guraso gaxon trantzia.

3/ Bi aldetatik gertatu dira  
oso gauza itxusiak,  
gaurko gizonak zer geran ondo  
asko gaude ikusiak.  
Alkar inñolaz ikusi ezin,  
beti arpegi luziak,  
izar da galoi irabazteko  
batzuek dira biziak,  
gerraz nor ase, izan bagiña  
orrela beste guziak.

4/ Gerra, gerraurre ta ondorena  
askozaz ez da obia,  
atera nai det euki detena  
orain artean gordia:  
aberats askok lur jo dutela,  
errukigarri pobria,  
madarikatzen lana egin da  
beltza ta gutxi ogia,  
oinbeste alper biziko bada  
guk egin bear ordia.

5/ Lurtarrak, entzun: gure izateak  
ez du batere balio,  
kale gorrian ez dago lurrik,  
ez ikullu ta ez mandio;  
irin da aragi, potaje ta arrautz,  
gañera palta olio,  
ardi-illerik ez da billatzen,  
koltxoi askotan goldio;  
ori da gerra, ta gerrak beste  
askori on egin dio.

- 6/ Zenbait amari galdu zaizkio  
iru seme ta senarra,  
baserrin ere au gertatu da,  
ez da kalean bakarra.  
Erri osoak beltzez jantzita,  
nunai agurra zakarra,  
gañera gerrak berekin dakar  
gosea eta negarra,  
ori jakin da okerrena da  
billa ibilli bearra.
- 7/ Orlako gauzak oroiturikan  
sarri joaten zaizkit gogok,  
bañan nerekin zer egin duten  
oraintxen esan bear dot.  
Erromatarren mende erorita  
kartzelara ekarri morok,  
eta gañera errukitu naiz  
ikusirik gizon aulok;  
Beljikan ere Jenobebakin  
orixe egin zun Golok.
- 8/ Ai, Jenobeba, zu len, ni orain  
arkitutzen naiz zuluan,  
iñondik ere anparo gabe  
zu egon ziñan moduan.  
Gutxik bezela egin zenduan  
on eder asko munduan,  
orregatik gaur ageri zera  
eliz askoren barruan,  
nik ere askoz naiago nuke  
banego zure onduan.



- 9/ Zure berri txit liburutatik  
ikasi nuan ederki,  
gure aurreko zarrak ipiñi  
zuten amaika olerki.  
Danak egiak dirala ditut,  
bai, sinistatutzen noski,  
otoitz beroko santa bat zera  
-au nola ixilik euki?-,  
ta emendikan zure bitartez  
atera nai nuke aurki.
- 10/ Ezin etsi det iñolaz emen,  
joan nai det zure ondora,  
lendik zurekin dagon anima  
emen ez bezin ondo da.  
Lurrean bada naiko burruka,  
ez da izango or ola;  
au da negarra aspaldi ontan  
ixuritzen dan odola,  
egoak banitu joango nintzake  
oraintxen bertan or gora.
- 11/ Mundua dago len bezelatsu  
bañan gizonak ez berdin,  
batzuk ederki aberastu ta  
besteak oso desberdin.  
Bata bestea ezin ikusi,  
ola gabiltza aspaldin;  
gu baño leno bizitu ziñan  
negarrezko mundualdin,  
atoz berriro gaiztok ontzera  
pakea etorri dedin.

- 12/ Jaunaren bidez etorri zaitez  
berriz, Santa Jenobeba,  
gu geranakin zu ikusita  
gogotik poztuko gera.  
Neronek ongi esango dizut  
gaur emengo gorabera,  
ederki asko ezagutzen da  
nola bizi dan norbera,  
au da gizona egoaizeakin  
biurtutzea orbela.
- 13/ Egoaize asko zala badakit  
Golo jaio zan urtean,  
ark iltzat utzi zuan andrea  
jaiotzeko zan artean.  
Jaio ziñan da bai ere ezkondu,  
ta senarra gerratean,  
Golok orduan esan zizuan:  
"Ea konpondu gaitean".  
Ori entzunda zu jarri ziñan  
makil batekin atean.
- 14/ Zure jarrera ikusirikan  
Golo joan zan etxera,  
bañan aguro asko andikan  
etor zitzaizun atzera,  
berak il zuan gizon bat zeuri  
kulpa dana ematera,  
ta agindu zuan eramateko  
zu kalabozo batera;  
andik apalki egin ziñuzen  
otoitz ederrak atera.

- 15/ Goiz batean zu iltzeko arek  
bialdu zitun bi gizon,  
zeñek zekian aietatikan  
batek zuala biotz on?  
"Emakume au salbatu zagun"  
lagunari esan zion,  
txakur bat il da aren begiak  
gero eraman zizkion,  
orain auskalo Golok orduko  
lanarengatik zer dion.
- 16/ Noizbait mundutik ezjakin joan zan  
aseturik egin txarrez,  
geroztik dago Jaunari oska  
estu ta larri negarrez.  
Zeruarentzat oroitzen etzan,  
azten izan oso errez,  
emen bezela ark an ezin du  
bartzarrak bete gezurrez,  
alakotarrak ohea dute  
kontuak atera aurrez.
- 17/ Gezur da abar da gaiztakerian  
bizi dan gizonarentzat,  
Jauna urruti egongo dala  
ala iruditutzen zat.  
Zerutik ez du opatasunik  
beñere izango beintzat,  
ango atea itxita daude  
gaizto bizi danarentzat,  
bañan arkitzen dira zabalik  
emen sufritzen dunentzat.

- 18/ Begiak goibel, biotza itun  
daduzkat, bi gauz txarrenak,  
ala ere nik Jaungoikoz bete  
beteak dauzkat barrenak.  
Federik ezin inñolaz aztu  
naiz ikusi senperrenak,  
gañera dakit nagola oraindik  
pasatzeko okerrenak,  
bañan zer diot? Gero zeruan  
neretzat toki ederrenak.
- 19/ Aitaren askok egiten dute  
nork ikusiko ote ditun,  
bañan zergatik egiten duten  
esan bear det segitun:  
onak dirala adierazi nai  
jarrera jarririk itun,  
kalean erdin penak kontatzen  
ta lapurretan izkutun,  
zenbatâñoko gizonak diran  
aspaldi ezautu nitun.
- 20/ Arriturikan nago ni zenbait  
ola nola leiken izan,  
ixilka eriotz egintzaleak,  
alare sartu elizan.  
Ni ez nintzake emen egongo  
gaiztoa izan banintzan,  
bañan naio det len bezelaxe  
jarraitu zintzoan gisan,  
Jaun Zerukoak artu nazala  
betiko ta bere ditxan.

21/ Malkodun mundu, giltzape zeken,  
ez nago toki alaitan,  
mezikan ere ez dute ematen  
nai duanarentzat jaitan.  
Ta gero geok generala esan  
gorriak, alajañetan,  
auxe berbera gertatutzen zan  
Jenobeban garaietan,  
ta nik zer esango det sartzean  
Josefatko zelaietan?

22/ Au esango det: "Mundua dago  
beti bezela oraindik,  
zelai onetâ ez naiz etorri  
nik nai ordurako andik.  
Lurtarrak dabiltz alkarri amore  
iñolaz ezin emanik,  
gaitz ori oso berria ez da,  
iturri ori da lendik,  
agortuko da betiko alkar  
jotzen dutenean mendik.

23/ Ordun bukatu egingo dira  
ango arrokeri danak,  
ai!, bitartean izango dira  
an bizitzen naiko lanak.  
Eriotz asko egiten da ta  
gañera gutxitu janak,  
apaiza asko-asko da illa  
ta ixilik daude kanpanak,  
batere ez baitu bildurrik sartzen  
Jesukristoren esanak".

24/ Beste munduan izan da oster  
etorria izan banintz,  
zenbait gizonen aurrean pozik  
egingo nituzke bi itz.  
Bañan naiz Jesukristo bera gaur  
berriz etorriko balitz,  
len josi zuten gurutze artan  
josiko luteke berriz,  
obeago du guregatikan  
zerun egon milla aldiz.

25/ Gogoan artu giltzapetikan,  
kristauak, ze esango dedan:  
guregatikan Jesus il zala  
naiz gaur eskerrik ez eman.  
Ez degu ezer aurreratuko  
segitzen badegu teman,  
komeni bada bakarrik artu  
onen izena aupean,  
gauz onek eztu batere indarrik  
beste mundura joatean.

26/ Bear bezela etzituztenez  
bete Jaunaren ordenak,  
mundua sortu zanetik gatoz  
Kainen gaitzarekin denak.  
Asierako pekatariak  
izandu ziran aulenak,  
aiek ziraden izena ez beste  
madarikatu alenak,  
gaur ere alako berdiñak dira  
gerra ekarri dutenak.

27/ Lengo gerrate zarrak utzi zun  
gorrotoa eta griña,  
gure aitonak proatu zuten  
bein aspertutzeko diña.  
Talde bakoitzak errege bana,  
bi puska zegon egiña,  
emendik beltzak, andik zuriak,  
egin zuten alegiña,  
ez gendun ola ibilli bear  
gizonak izan bagiña.

28/ Tolosan jaio nintzala dira  
ogei eta bi urteak,  
sasoi ontara ondo iritxi,  
aurrera egun tristeak.  
Oinbeste urten ez nau alperrik  
zaindu amatxo maiteak,  
pozik ikusiko nukenean  
itxita dauzkat atea,  
gerra bukatu egin da baño  
ez dira egin pakeak.

(1937)

## **DUESOKO ESPETXEAN**

Ez dakit nolaz, bañan gaur arkitzen naiz espetxeraturik. Ez det ezertxo ere ikusten. Egunez eguzkia, gabaz izarrak eta illargia. Oiek ez daudenean, dana illun. Bertso auek datozkit burura. Banoakizue jartzera:

Emen sartu gaituzte  
bultzazo batean,  
ura ere ukatzen  
diguten lurrean.  
Gizona galdutzeko  
leku txarrean,  
gaiztoak kanpoan da  
onak barrenean,  
orrelako pagua  
degu azkenean.



Lenago ala,  
orain orla,  
ta gero nork daki nola?  
Ez beintzat gora.  
Mundu ontan ez geiegi zora.  
Beti esnatu gau erdian.  
Pozik ontan gaudenian.

Gaur anai asko ditut  
daudela ikusten  
ordua etorri zai  
noiz ilko dituzten.  
Luzaroko bizirik  
apenas daukaten,  
neri ere auskalo  
zer egingo nauten.

Berriro sartu zaigu  
espetxean guda,  
gutarrari burla,  
Tximelak abesten du  
arrazoia dula.  
Aitzeki ta maitzeki  
millaka zulora,  
erriak purrukatu,  
ez dio ardura...  
Ortarako etorri  
al giñan mundura?

Au dana ikusita  
ezin artu arnas,  
bai auxe esanaz:  
Jesukristo il zan da  
bizi da Satanas.  
Alemana berekin,  
Italia mugaz,  
moroak Francorekin  
txit danak batuaz,  
ta Tximela kantari  
Kristonak artuaz.

(1937, irailla)

## GOIZERO BILDURREZ

(Doñua: "Ai gure antziñako...")

Ez lan, ez jan, eta ez lo. Burua bete bertso! Guda bukatu eta sari ederra etorri zaigu! Iñor il ez, lapurtu ez, zintzo eta jator jokatu, guda bear zan bezela egin, eta... ez alperrik!

1/ Duesora ekarriak  
nerekin tartean  
zeudenak pakean,  
orain sartu dituzte  
*kapilla* tristean;  
asaltoko guardia  
jarri da atean,  
gero amalau bota  
deskarga batean.  
Nundikan alde egin  
saiatu gaitean.

2/ Egun-txintan iltzera  
eraman dituzte,  
gañera ainbeste;  
au gertatuko zanik  
ez genduan uste.  
Berri gogorra dala  
danak esan dute,  
etzaigu, ez, aztuko  
bizi geran arte  
oiek nola il diran,  
naiz pasa eun urte.

3/ Au gertatu ezkerro  
ez gerala gaude  
geure burun jabe;  
ajolik etzaie gu  
goseak ilda're.  
Informe txarrak sartzen  
zaleak dirade,  
il dituzte juzgatu  
batere egin gabe,  
besterikan ez balitz  
ez da ezer alare.

(1937, iraila)

## **GERNIKA EDER ORI!**

Amaika bider oroitzen naizen Gernika! Zu sutan zeundela, Oitz menditik goizeko ordubietan jetxi nintzan. Ango kristau aragi erre usaia! Ainbat aur "Ama! Ama!" deika. Alperrik. Erreta zeuden.

Oitzko gañetik, arratsalde artan, neronek kontatu nituan eun da lau egazkin. Su zuten bonbak bota ta bota... Jendeak iges... Al zutenak noski. Egazkin txikiak, gabiroiak bezela, goitik bera. Aien gozamina, iges zijoaztenak iltzen! Eta guk, fusillak bakarrik!

Nai zuten guztia egin zutenean, guri aitzeki bota nai. Bañan ez! Egia beti egi, lurrean bezela zeruan ere. Euskotar jatorrak, gu gera egitarak!

Alemanak erre zuten. Arbola zutik utzi... Bai noski, guri aitzeki botatzeko...

Ni zutzaz oroitzean,  
Gernika eder ori,  
biotza tanpetaka  
asitzen zait neri.  
Zure txaire ta baratz  
odolez estali,  
orreatikan dago  
negarrez Euskadi.(1)

Orain oraingo lanak egin da  
aztutzat utzi geroak,  
orrela lana egiten digu  
emen munduko eroak.  
Gernika ere nork erre zuan  
Erroman daude testigoak,  
esan bearrik ere ez nuke,  
ondo badaki kleroak.

Ogei ta amazpigarrenen,  
udaberria aldera,  
peri eguna zala gogoan  
oraindik daukat gañera,  
aleman goitarrak Gernikara  
nola egin zuten sarrera,  
bi milla illen aldamenean  
erre zan gure bandera.

(1937, iraila)

(1) *Príncipe de Viana* astekariak, 1983, II-IV zenbakian,  
bertso au soil-soillik, prosazko adierazpenik gabe.

**MARKIEGI TA AZKUEREN  
AZKENEKO ITZAK**

Duesoko espetxea. Goizero-goizero, dakigun oitura: lagun mordo bat, fusillen aurrean iltzera. Biar ni ote? Ez dakit. Gaurkoz, tartean nere bi lagun: Markiegi ta Azkue.

1/ Eguntxinta orduko  
giltzaren soñua,  
zarrallaren mingañak  
tristea doñua;  
gelako atetik bota  
Azkuek ojua:  
"Agur, euskeran alde  
iltzera nijua!".

2/ "Jaunak emazteari  
esan dezaiola  
Markiegi eriotzaren  
aurrean dagola;  
nola daramakidan  
pena bat or gora:  
emen utzi bearra  
Tubalen odola".

3/ Piketean aurrean  
diranean geldi,  
balak berealaxe,  
badirudi ebi;  
lurrera erori ta  
biak il da nagi,  
bizia kendu neri  
au ez bada egi.

(1937)



## DUESO

Dueso,  
nola ez bainazun ondo jaso,  
nere orde z besteren batek  
maiteko zaitu akaso.  
Onuntz datorrenak txar pauso,  
anka sar zuloan da gora beso.  
Esi ta lazo,  
zu illun baso.  
Daduzkazu eundaka gaxo,  
zutzat nago asarre oso.

Izan da zera ta izango zera  
iñork nai ez dun etxia.  
Ai, Dueso gaizto,  
oraingoz asko  
zure izena jetxi'a.  
Biok alkar artzia  
ezetz nago etsia.  
Maitasunikan bildu ez;  
ementxen nago noiz lepotikan  
elduko nazun bildurrez.

Gau,  
iñork nai ez au.  
Ateak ixilik,  
danok ixilik,  
egon arren esna.  
Nere barrena oso lasa ezta.  
Betiko bada kezka.  
Au demontrezko pesta!

Ara bat-batera  
norbait atera.  
Errezelua.  
Gaur ere pikotâ joan da nere lua.  
– Aizak, Andoni: bi dituk.  
– Bai. Or zeudek geldituk,  
ta gu illetâño bildurtuk.  
– Ixo, ixo, giltzaren soñu.  
Au dek lana! Alkarri kiñu.

(1937)

## **DUESON, ESPETXEKO NERE GELAN**

Ez iturrîk, ez zimaurrekurik,  
katre zar zikin bat bakarrik.  
Iru metrotxo luzean  
da bi zabalean,  
gosea galanki nere sabelean.  
Atea, zabalik baño, itxita geiotan,  
burni ziriak leiotan.  
Bost lagun gaude gela ontan,  
alkarri bultzaka lotan,  
pozik gaudenean ontan.

Zorriak barra-barra  
kolkoan gau guzin,  
gorputz guzia daukat  
egosi-egosin.  
Iñork ez ditu artzen  
oiek emen grazin,  
eltxoa ta elbia,  
gañera arkakosin,  
tximutxa kilimaka  
ta lo egin ezin.

Elurte aundiz gañiarretan(1)  
negarrez dauden piztiak,  
pena ematen du orrelaxe  
txoritxoak ikustiak.  
Noiz lurmenduko zai jarrita ere  
zer piu-aldi tristiak!  
Era berean arkitzen gera  
itxita gauden guztiak.

Zaindu euskera ta sinismena  
aurtxo bat balitz bezela,  
erri eder au ondatuko da  
berealaxe bestela.  
Antziñatikan dakarkiguna  
oraintxe bezin ergela  
ez da egon, da ekarri zagun  
Jaunaren lege berbera.

Lenago zegon fede aundia,  
orain poliki jetxi'a,  
ta len bezela ez dala altxako  
nago erabat etsia.  
Euskeraz egin, oroitu zer dan  
Arantzazuko etxia,  
negar samiña ez al da izango  
bietatik bat galtzia?

(1937, irailla)

(1) *Gañiarrak* edo *gain-igarrak*, zugaitzetako adar-punta igarrak, elurrak nekezago zuritzen dituanak; eta, orregatik, txoriak elurteetan maite oi dituztenak.

## **LOTA-LEKUA, NOLABAITEKUA**

1/ Zenbat metroko lekuk  
dauden barrenean,  
bildurtu naiz neurriak  
ar dituztenean;  
iru eskax luzean  
da bi zabalean,  
betik gora bi t'erdi  
daduzka danean,  
ta lotâko sei lagun  
gaude geiencan.

2/ Egurrezko atea  
txapez forratuta,  
azkzalakin dago  
dana urratuta.  
Erdi-erdin txulo bat  
dauka zulatuta,  
kanpora beiratzeko  
idea sortuta,  
barrengoak naikoa  
gaude izurratuta.

3/ Koltxoirikan ez daukat,  
manta bat bakarrik,  
arri gañean lotan  
ikuste'itut gorrik.  
Altzairuaren gisa  
dauzkat bizkar-gerrik,  
ta gau erdi baño len  
ezin artu lorik,  
goizaldera egunero  
esnatzen nau zorrik.

4/ Orra gela batean  
sei lagun Dueson,  
iru donostiar da  
iru tolosar on;  
atzo bi joan ziran,  
premia bazegon,  
alaz guztiz beste lau  
lasa ezin egon,  
nik beste iñork ez daki  
emen nola nagon.

(1937)

## **OLERKITXO BATZUK**

- 1/ Ai au bizitza illuna  
gerrak ekarri diguna!  
Negar da negar dago  
nere biotz biguna.
  
- 2/ Ondo alare egia  
zarren esanak dia:  
orain ez baño gerora  
txartuko dala jendia.
  
- 3/ Asmatu zuten erdiz-erdi,  
nik ez nekian au lendi;  
gaurko egunean zenbaitekin  
poliki geldi.
  
- 4/ Itz erditxo bat esan orduko  
norbaitek dizu azkar elduko,  
eta bizia uts orrengatik  
dizu kenduko.

- 5/ Ortâño dago jarria  
gizon alkar asarria,  
zenbaitek berez dakarrelako  
orlako barren erria.
- 6/ Gaitz peakorrek badira baño  
zeñek esan oinbesteraño?  
Len etzegoan, baña iritxi  
au ere zaigu oneraño.
- 7/ Eguntxintan ezautu det au:  
tiroz illak dira amalau.  
Berri onek dar-dar utzi nau.  
Bildurak noiz etorriko gau.  
Lo egiteko gibela biau.
- 8/ Dinbidi-danba ate soñua,  
bere giltzakin guardian ñaña,  
bildurra sartzen joaz kañua.  
Onek jartzen dit dantzan barrua,  
esan e badet: "Au da mundua!".  
Neretzat dago beti lañua;  
onetxek digu danoi egiten  
kaltea edo dañua.
- 9/ Itz egiteko bildurrez jarri,  
geranok gaude naiko larri.  
Danok gabiltza buru-belarri,  
nere biotza dago elbarri,  
beste munduarekin nago mugarri.





- 10/ Gaur ere otordu bakar,  
jan-gauza bai bakan,  
iñork ez daki goseak  
nolaz naukan.  
Ogia lapur alkar,  
goseak au dakar,  
ezautu det azkar.
- 11/ –Kaxo, motel, zertan aiz?  
– Bizi goseak; naiz-  
-ta berri txarra maiz,  
alare ontan bizi naiz.
- 12/ – Zer diote errin?  
– Danak pistola gerrin,  
jende atzetik ler îñ,  
da guk ezin ezer egin.
- 13/ – Gaur goizekoa  
egoa al da, aizak?  
– Nik esan bezela,  
zer nolako gaitzak  
izan diran  
esango dik apaizak.
- 14/ – Aidanean  
Markiegi ta Azkue?  
– Bai,  
ez natxiok aztue,  
oroitzen nauk asko;  
oiek il diralako,  
norbaitek botako dik  
gaur naiko malko.

15/ – Guretzako zer dator?  
– Laister ikusiko dek or,  
baldin baaiz or;  
naiz ez erori pekatun gogor,  
jaio giñanak iltzea zor.

(1937)

## GORBEA NORK GUREGANATU?

*Padura* batalloikoak gora igo baño len, Tximela an zegoan bere gudariekin. Españaiko bandera kendu eta ikurriña jarri zuana, gudari zintzo bat izan zan: Joxe Goenaga, *Lenago-il* batalloiko tenientea. Eztabaida ori argituz, bi bertso auek:

1/ Aldizka odol txar egiten da  
nere buruan, nai ez ta,  
gaur da betiko kenduko diet  
batzuek daukaten kezka.  
Gorbea nolaz artu genduan  
etorri zaizkit galdezka.  
Bi talde giñan sartu giñanak  
atzetik eta saieska,  
*Padura*'koa bakarrik zala  
gezur bat besterik ezta!

2/ Gezurtik dira, naiz anai izan;  
emen nere erantzuna:  
*Lenago-il'*ko gudarik giñan  
gurutze artu genduna.  
Euskadik jakin dezala ongi,  
au da erabakizuna:  
Joxe Goenaga izandu zala  
ikurriña jarri zuna!

(1937, urria)

## JUEZA TA NI

Santoñan, Duesoko espetxean, nere izen-abizenak, "recluso núm. 1204". Au da juezak bota zidan erregalia:

*"En la Plaza de Santoña, a veintinueve de septiembre de mil novecientos treinta y siete, II año triunfal. Reunido el Consejo Permanente de Guerra núm. 2 para ver y fallar la causa núm. 63 instruída por el procedimiento sumarísimo de urgencia contra... y ventitrés más, todos mayores de edad, y por el supuesto delito de rebelión militar. Dada cuenta de los autos y oída la Acusación y la Defensa y presentes los procesados, RESULTANDO que el procesado... Que LUIS REZOLA ARANA, que al movilizar su quinta ingresó en un batallón rojo, siendo nombrado capitán el dieciséis de julio último, habiendo sido detenido por parlamentar con las Fuerzas Nacionales. Hechos probados... FALLAMOS: Que debemos condenar y condenamos a los procesados... LUIS REZOLA ARANA... a la PENA DE RECLUSION PERPETUA y accesorias correspon-*

*dientes de interdicción civil e inhabilitación absoluta perpetua... Así por esta nuestra sentencia nos pronunciamos y firmamos..."*.

- 1/ Juezarengana deitu  
egin naute neri:  
Francokin pozik nagon;  
erantzuna sarri.  
Esan edo ez esan  
egon naiz juezari  
Txinan obea dala  
ibilli gudari.
  
- 2/ An pasako nituzke  
sei urte gutxinaz,  
alare ez nintzake  
aspertuko Txinaz;  
emen iñolaz ezin  
bizitza egiñaz  
nabil, da komeni zait  
aldatzea klimaz.
  
- 3/ Txinako gudariak  
au balekitekete,  
neri pozik musika  
joko lidateke;  
iru izarrekin emen  
kapitan rekete  
izan baño, naigo det  
Txinan mikelete.

4/ Juezaren aurrez aurre  
alkin naiz exeri,  
galdera txar batekin  
biotza dit eri:  
ea zeñek erre zun  
Gernikako erri.  
Atzo berak zekina  
gaur galdezka neri.

5/ – Jauna, nik ez det orren  
griña txarrik izan,  
Oitzen negoala  
Gernika erre zan;  
ori etzan erreko  
–orra garbi esan–  
Alemani onuntza  
etorri ez bazan.

6/ Au da beste galdera:  
– Iñor il al dezu?  
– Nik ez det iñor il da  
ez ere eman su.  
Erioztar bezela  
artutzen al nazu?  
Au erabakitzeke  
iñor etzera zu.

7/ Atzaparrakin eldu  
dit juezak lepotik,  
ala ere ni ez naiz  
atera lengotik;  
bi orduan egin dit  
galdera gogotik,  
ez dakit nola ez dedan  
saltatu leiotik.

8/ – Alemana goitikan,  
Italia lurrez,  
ta moroak tartean  
gorroto gogorrez;  
zuregana ni ez naiz  
etorri gezurrez,  
oiek egik dirala  
sinista zazu, juez.

9/ Juizioko egunean  
maican fiskala,  
ez dakit zergatikan  
zegoen zitala;  
jakin berria zuan  
kapitan nintzala,  
berealala bota zidan  
betiko itzala.(1)

(1937, urria)

(1) *Príncipe de Viana* aldizkarian, 1983, III-IV zenbakian, *Gernika'ren erreketak* izenburuarekin, zazpi bertso agertu ziran. Oietako sei, sail ontako 1, 3, 2, 4, 5 eta 8'garrena, orden ortan eta zenbait aldaketarekin.



## **TXOTAREN ORDEZ TXALDUNA**

Nere espetxeko lagunak zerbaiten usaia artu dute: bertso jartzen ari naizela alegia. Bilboko apaiz jaun batek auxe eskatu dit: guda zergatik galdu genduan bertso baten bidez erantzuteko.

Sail ontako zortzigarrenarekin erantzun nion. Txota mausera zala, eta txalduna abiazioa, etzegoan argitu bearrik.

1/ Pazientzi pixkat artu bear det  
bertso berriak jartzeko,  
apika lan au izan liteke  
nere burua galtzeko.  
Onela ere gertatu arren  
pronto jarri naiz iltzeko,  
alde batera badet gogoa  
zerutarrakin biltzeko.

- 2/ Beste gauzikan ezingo degu  
gaur oiengandik espero,  
konformatutzen diranak dira  
gutako bat il ezkeru.  
Gezur da abar gauzak egin da  
naiz konfesatu astero,  
alperrikan da Jaunan aurrean  
belaunikatzea gero.
- 3/ Odol askoren bitartez dira  
gure izatez jabetu,  
Jaunaren kontra zer egin degun  
egin bear det galdetu.  
Guk ez daukagu oiek bezela  
etxea bete pekatu,  
eskuak zabal garbi-garbiak,  
zikintzen ezin nekatu.
- 4/ Anai arteko guda gogor au  
sortutzea nork du kulpa?  
Pakean geunden gu, bañan berak  
altxa ziran; ezin uka.  
Etorri ziran moro ta guzi  
euskaltarretâ muturka,  
aiek zer egin zuten oraindik  
biotzean daukat pupa.

5/ Gañera berriz aurka giñuzen  
aleman da italiano,  
naparrak ziran txit jo zutenak  
Gipuzkoara lenengo.  
Españarrakin batera danak  
Bizkaia aldera gero,  
lurrez ezin da goitik apurtu  
Gernika eta Durango.

6/ Aleman oiek egazkiñakin  
Gernika erre ziguten,  
errezaleak geok gerala  
munduan dabiltz esaten.  
Gure errian gauza berriak  
nolaz dabiltzan ikasten,  
Batikanoko Aita Jaun arek  
zergatik ez du galazten?

7/ Nere ustetan ez gendun egin  
guk jokabide txarrikan,  
arma berririk ez genduen da  
ezin iritxi zarrrikan.  
Besteak eun milla paseak,  
gu ez giñaden erdîkan,  
arma berdiñez gure errian  
ez da sartuko elbîkan.

8/ Musean ondo jokatu gendun  
kiñu arturik laguna,  
beida zegonak garbi jakin zun  
itxua ez dala euskalduna.  
Egokiera gure gain zegon  
galdu bear ez genduna,  
baldin eskutan izan bagendun  
txotaren ordeztalduna.

(1937, azaroa)

## AMARI

(Al dan eresi tristeenean abesteko)

1/ Emen ez da entzuten  
osto baten txintik,  
etorkizun illuna  
datorkit itxitik;  
ama, nik dakit nola  
nagon zuregatik,  
gaur edo biar zaitut  
ikusi nai zutik.

2/ Arkitzen da bakarrik,  
nunai dula miña,  
lau pareten artean  
zure seme fiña  
Iltzerik nai ez, baña  
au bizi eziña!  
Preso egon bearra  
ez da atsegiña.

3/ Atzo egun txarra zan,  
neguko sarrera,  
nere laguna tiroz  
il zuten gañera.  
"Zergatik iltzen naute?"  
egin zun galdera.  
Orain il arren gero  
ikusiko gera.

(1937, abenduak 22)

## **"TXERRI GOSEAK EZKUR AMETS"**

Goiza:

aitaren egiteko badet oitza.

Zortzik:

ez det zikindu ortzik.

Amarrak:

nere triparen marmarrak.

Amaikak:

pikotâ joan ziran lengo maukak.

Amabiak:

platerean bi begiak.

Bazkalondo:

ez didazu eman da ez nago ondo.

Ordubi t'erdik:

siesta ezin egin nik.

Arratsalde:

aspaldian meriendik gabe.

Illunabarra:

plater bat bakarra.

Gauga:

gose-logalez zabalik auba.

Gauerdi:  
ezin egin lo-aldi.  
Goizaldera:  
orduak galdera.  
Argi-ezkillak:  
onela nola indartu mutillak?

(1937)



**GOSEAREN NEGARRAK  
EZ DIRA EDERRAK**

1/ Ipintzera nijoa  
gosean negarrak,  
joan baño lenago  
dauzkatan indarrak;  
alimentuak dabiltz  
gutxi eta txarrak,  
komeriak daduzka  
nere tripa zarrak.

2/ Gosea zer dan ondo  
egin det ikasi,  
aspaldi ontan ez det  
okelik ikusi;  
patata ta babarrun  
nigandik igasi,  
idia jango nuke  
adarra ta guzi.

3/ Gosaltzen txokolate  
ontzaren erdia,  
tripetatikan nabil  
aspaldin garbia;  
ogi zurien partez  
jaten det arbia,  
oiengatik biarko  
estutu gerria.

4/ Askotan gaztain-ura  
eskaxik kazua,  
eguardian sei ale  
geinez garbantzua;  
arratsean lenteja  
ez oso gozua,  
pozikan jango nuke  
zakur sarnosua.

5/ Zakurra aitatuta  
ez ba egin parrik,  
geiok jango luteke,  
ez naiz ni bakarrik;  
nêtzat ez luke utziko  
jaki au Matxarik,  
goseak dagonantzat  
ez da gauza txarrik.

6/ Matxari jauna dago  
nere aldamenian,  
alpargatak txiñalka  
dauzka geienian;  
galtza-ipurdik berriz  
gañera oso beian,  
baña azkar mugitzen da  
kornetaren deian.

7/ Ikusten degu oni  
igo zaizkiola  
bizkarreko ezurrak  
arra bete gora;  
ta ez tul zar soñean,  
gaizki dabil ola,  
dominixtikuka ta  
muki dariola.

8/ Besten kontuk utzita  
orain neronenak,  
naiko lan badaukagu  
itxita gaudenak;  
iru milletatikan  
gu gaude aulenak,  
Matxari ta ni gera  
mixerablienak.

9/ Amaika buruauste  
goizetik gaubeâ,  
baña gauz txarrik etzait  
etortzen aubeâ ;  
ni naiz pixuz jetxia  
zortzitik laubeâ,  
baña buruko miñik  
proatu gabea.

10/ Lenago bizi nintzan  
goxo ta gezago,  
orain bizitza miña  
ta gazia dago;  
elurtean txoria  
bezelaxe nago,  
len *tximela* banintzan  
orain tximelago.

11/ Debilidadez ezin  
mugitu det ankik,  
exeri nai ta ere  
ez dadukat alkik;  
enpatxu-bildurrez ez  
det proatzen jakîk,  
amasei egunean  
ez det egin kakik.

12/ Esango det, ezin det  
ixilik eduki:  
purga artu bearrean  
nagoala aurki;  
purgik onena nuke  
naiko arrautz ta jaki,  
len noiz jan ote nitun  
Jaungoikoak daki.

13/ Gosea izketan eta  
nere tripak dantzan,  
zerbait ote daukaten  
jarri naiz zalantzan;  
medikuari zerbait  
nai nioke esan,  
barruan zer daukaten  
ark ikusi dezan.

14/ Medikuak ez dauka  
onen kulparikan,  
ni gaxo nago baña  
janarengatikan;  
Galartza saiatu da  
gaur neregatikan,  
Goñi berriz zirika  
aldamenetikan.

15/ Goñi jaunak dotore  
rekonozitu nau,  
nerekin pasa ditu  
gutxinaz ordu lau;  
ta gero Galartzari  
txit esan dio au:  
"Plater bat lentejakin  
sendatuko diau".

16/ Oien apari otza  
neretzat goizeko,  
amarretan jaten det  
obeto oitzeko;  
ez da botika txarra  
gaxoa zaintzeko,  
bañan ederrak daude  
oraindik aitzeko.

17/ Emandakoa artzen  
beti naiz noblia,  
neretzat lenteja ta  
berentzat ogia;  
gañera egiten dute  
otordu obia,  
dana esatea etzait  
komeni ordia.

18/ Bixitatutzen ditut  
pozik egunero,  
ta beti izaten det  
zerbaitu espero;  
Goñik esaten dio  
Galartzari gero:  
"Au jarri bearko diau  
gure kozinero".

19/ Amets ori egin det  
emen amaika aldiz,  
baña dana gezurra  
gero egun argiz;  
koinero logratu  
ta jarriko banitz,  
sendatuko nintzake  
ori ala balitz.

20/ Oraindikan ez ditut  
aitortu guziak,  
ez dit gaitzik egiten  
jandako dultziak,  
ain gutxiago berriz  
arkume-klasiak;  
amets goxoak baña  
ni beti gosiak.

21/ Nere oraingo itza  
guziok sinista,  
esan bear det nola  
datorren tilixta;  
gutxinaz badakarki  
saskikaka lixta,  
au jateko bear da  
sekulako bista.

22/ Lentejak zituanik  
oinbeste senide,  
beste askoren gisa  
arritu naiz ni're;  
zomorro-klase asko,  
lokarri ta ille,  
ikatza, lur da trapu  
sekulako pille.

23/ Bear bezela ez dute  
gañera moldatzen,  
kozinerantzako  
nago amorratzen;  
garbia ipintzea  
ez dute logratzen,  
alare ezertxo're  
etzaigu sobratzen.



24/ Emengo janariak  
sustantzi pixka du,  
batzutan gordiña ta  
bestetan kixkaldu;  
txutik jarri orduko  
ankak irrixtatu,  
gauz au ikusi gabe  
nola sinistatu?

25/ Burua jasotzeko  
ez daukat kemenik,  
ez dakit zer ikusi-  
ko dedan emen nik;  
ez badidate ematen  
indartzeko janik,  
emendik ateratzen  
ez dadukat lanik.

26/ Muturra zimurtu ta  
gorputzez argaldu,  
lengo kiloan erdik  
egin ditut galdu;  
iru errealekin  
bakoitza mantendu,  
Aritzetan zakurrak  
obeto jaten du.

27/ Amabik jota beti  
gure otorduba,  
goseak dagonantzat  
naiko beranduba;  
ni bezela dagonak  
zer egingo du ba?  
Orrengatik ez al du  
ilko bê buruba!

28/ Goseak zituanik  
orrenbeste zaña,  
ondo ikasi ditut  
emen alajaña;  
guzia esatea  
ez da oso zalla,  
txorabioak dauzkat  
tripako min aña.

29/ Gosea zer zanikan  
ez nekin etxian,  
onantzat gôatzen da  
txarra etortzian;  
orduko arrautz eta  
txuletak zer zian,  
ondo gogoan dauzkat  
orain espetxian.

- 30/ Goizean goiz jeikita  
lenbiziko lana:  
aitaren egin eta  
"nun da nere jana?".  
Zeñek esan lenago  
gero guregana  
etorriko zanikan  
mixeri au dana?
- 31/ Emen ez da botatzen  
—ontan oitu gera—  
sobratzen dan janikan  
komunetik bera;  
mingañarekin degu  
garbitzen platera,  
nai gabe artu degu  
eroen tankera.
- 32/ Sei aste ontan ez det  
ezertxo're edan,  
gosea ta egarri  
neri galde zer dan;  
kastigu-klase guzik  
dizkidate eman,  
ta aurrera ez dakit zer  
ikusiko dedan.

33/ Noiz sartuko ote naiz ni  
sagardotegitan,  
txuleta bat jateko  
txit erre berritan?  
Ta ez, orain bezela,  
denbora erditan  
zorri ta tximutxakin  
ni beti erritan.

34/ Makarrikan ez degu  
eukitzen goizian,  
ez baigera lotâtzen  
loaren pozian.  
Pena ez al da emen  
sasoia pasian  
ola egon bearra  
inpernu bizian?

35/ Gaur Gabon eguna da  
ta biar Egoarri,  
ala danikan ez det  
maiean igarri;  
atzoko jan berdiña  
didate ekarri,  
gañera arrantxeroa  
berandu etorri.

36/ Gabon gabaz lenteja  
nere aparria,  
bazkaltzen ogia jan,  
au da komeria!  
Len bixigu ta guzi  
orain inbiria,  
errukigarria da  
nere ibillia.

37/ Burruntzalikatxo bat  
nere razioa,  
aitatzeak eman dit  
amorraioa;  
jan orduko egiten du  
tripan azioa,  
alaz guztiz badauka  
ixtimazioa.

38/ Millaka asko dago  
gaur ni bezelaxe,  
estetatik dutenak  
sentitzen oñaze;  
ez baigera egiten  
otordutan ase,  
tripako miñak gaude  
orreatikantxe.

39/ Urteak duan egun  
alaitsuna gaur da,  
Egoarri zoragarri  
mundu guzin au da;  
bañan alpixtik gabe  
au ere bai aula,  
etxe onek ederki  
erakutsi nau da.

40/ Len bezin jator ez det  
orain nik ospatzen,  
etxeko jan ederrak  
ez ditut probatzen;  
noizean bein osabak  
zerbait dit bialtzen,  
orreatikan iñor  
ez det gonbiatzen.

41/ Egoarri bigarrena  
ez dirudi danik,  
nai ezik atzo utzia  
jaten ez det lanik;  
egun oietan ez nun  
asko usteko nik,  
ezpañ koipetu gabe  
geldiko nintzanik.

42/ Tripa utsikan eta  
lan oiek artzea,  
iñork ez daki zer dan  
bertsoak jartzea;  
au da artaldetikan  
ardi bat galtzea,  
malkar gorritsunetan  
jan billa ibiltzea.

43/ Bartarratseko nere  
loaren graziak:  
pasteleri batean  
lau ordu pasiak;  
osorik sartzen nitun  
zetozen guziak,  
amets goxoak baña  
ni beti gosiak.

44/ Ametsetan dijoaz  
une ederrenak,  
ala dio emengo  
gizon azkarrenak;  
batuko ditut itzak  
nere ta arenak:  
ikusteko gaudela  
emen senperrenak.

45/ Soñeko alkandorak  
amar arabaki,  
oiek nola konpondu  
ezin erabaki;  
jostorratza artzeko  
gauza ez naiz aurki,  
ezurak indartzeko  
boniato jaki.

46/ Bukaeran joan zaizkit  
buruko zentzuak,  
ez indarra izan balu  
emengo pentsuak;  
oi ta amazazpigarren  
urte gosetsuak  
neri jarri azi dizkit  
orlako bertsuak.(1)

(1937, abendua)

(1) *Zeruko Argia* astekarian, 1967, Uztaillak 9, sail ontako amairu bertso argitaratu ziran: 1, 2, 4, 5, 37, 24, 27, 31, 10, 43, 44, 45 eta 46'garrena, orden ortan eta aldaketa batzuekin.



## **SAN BLASKO ANTTONIORI**

(Doñua: "Adi zak, mutil mañontzi")

San Blasko Aritzetako nere lagun Antonio Urre-  
tabizkaiari, Duesoko espetxetik ixilka bialduak.

1/ Astera niak kantari,  
pasadizoa kontari,  
mundu onetan gertatu zaidak  
amaika komeri.  
Bañan etzaidak komeni  
or esatea iñori;  
alkartu arte bertso oik gorde,  
aiskide Andoni.

- 2/ Iregandikan aparte  
nagola ia bi urte,  
oraintxe ere alkarren berri  
etzekiau bate.  
Nik emen eskutan kate,  
ondo lotuta anak e;  
i onezkero jarriko intzan  
Tolosan alkate.
- 3/ Laga badek baserria,  
orain lantoki berria,  
nolanai ta're jantziko uan  
txapela gorria.  
Negarrez zegok erria,  
gauza errukigarria;  
bazegok pixkat, poztuko bada,  
or gure premia.
- 4/ Inguruko baztar guzik  
anai-odolez igurtzik;  
gezurra dala esaten baitek  
bizkarren jo itzik.  
Ik ez artu oien gaitzik,  
lengo bideak jarraitzik,  
baldin txapela aldatu badek  
ez dadukak lotsik.

5/ Errira zeudek eskatuk,  
ala enteratu gaituk,  
paperen batzuk, ikus dezaten  
nola geran oituk.  
Zentzuk ez bauzkak nekatuk,  
ondo ipiñi pekatuk;  
ez aiz gizona, informe txarrak  
bialtzen badituk.

6/ Erorrek dakik ondona  
informeak egin nola;  
oroitu adi kulpa aundi gabe  
kartzelan nagola.  
Batere ez bazaik ajola,  
alperrik ari nauk ola;  
bañan au ez dek neri tokatzen  
zitzaidan kaiola.

7/ Emango diat aitzera  
prisionero naizela,  
iltzen banaute ondorengoak  
kanta dezatela.  
Erioztarren antzera  
sartu natxotek kartzelâ,  
garai batean Iparragirre  
Tolosan bezela.

8/ Natxok bizitza beltzean,  
Dondai zarraren antzean,(1)  
arri-burnizko kaiol ezpatak  
aurrean da atzean.  
Begiratu txar muitean,  
bizia zeukat utsean,  
au dek gizona katez lotzea  
mendi gurutzean.

9/ Orra egin gabe kalterik  
ezin iriki aterik,  
lau illabete ontan ez diat  
ikusirik atarîk.  
Inpernun natxok bizirik,  
dana oñazez beterik,  
ama ikusteko ilusioa  
etzeukat besterik.

10/ Ez bada uste, Andoni,  
emen nagola ondo ni:  
garbantzo erdi gordiña eta  
zatitxo bat ogi.  
Lenago kolorez gorri,  
orain zuriak etorri,  
aman itzala zer dan ondo nauk  
kontuan erori.

11/ Baldin badaukak aukera,  
bialdu, motel, okela;  
pentsatzen natxok laister goseak  
il bear nautela.  
Gorputzez nago motela.  
izketan erdi totela,  
mutil gaztea indartutzeko  
au dek, au, otela!

12/ Atza zeukat beatzetan,  
zorriak berriz galtzetan,  
au nêkin aña ez dek saiatzen  
zozoa matsetan.  
Gau erdian ametsetan,  
goizaldera tximutxetan,  
beste gauzarik ez dek arkitzen  
orlako etxetan.

13/ Itzak ez badu garrantzîk,  
orain eskatuko ditzit,  
alkandora ta bi musu-zapi,  
al badek, bialtzik.  
Etzeukat neronen galtzik,  
soñekoak bestek utzik,  
puzkar-butroia pare bat eta  
oiek ere autsik.

14/ Anketan zeuzkat gauz fiñak:  
egurrezko espartziñak,  
kristal puskakin eskuz neronek  
pazientzin egiñak;  
paperezko galtzetiñak,  
kolorez zuri-urdiñak,  
eskerrak nere ankik eztula  
ikusten ebiyak.

15/ Al dekena bial zak ik,  
ez beintzat jarri aitzekik,  
oñetatik zer sufritzen dedan  
iñork ere etzekik.  
Orduak dituk luzetik,  
egunak berriz gosetik,  
amaika negar gaur iregana  
baziak Duesotik.

16/ Amaseigarren bertsuan,  
nai badek esan auzuan  
lagun bat nola arkitutzen dan  
goseak Duesuan.  
Esan zak biotz osuan:  
"Au ark merezi etzuan";  
gaiztoangatik onak pagatzen  
dula geientsuan.

- 17/ Zeñi zer esan kontua  
euki zak ondo artua,  
itz batengatik etorri leikek  
komeri santua.  
Sendatzen ez da txartua,  
zetozen batzun txertua,  
alde batera ez natxok damu  
kartzelan sartua.
- 18/ Lur ori zapal nai nikek,  
zer gogo dedan baikikek;  
joango nauk berriz, ez banau iltzen  
balak edo gripek.  
Ire lagun aberkidek  
au ere desio likek:  
oraindik ere bizi naizela,  
galdetzen baditek.
- 19/ Jaunak lagundu gaitzala,  
pake on bat egin dezala,  
bestela beintzat bazetorkidak  
betiko itzala.  
Jenioz natxok zitala,  
soñean zorri kintala,  
burrukan berriz ibillia dek  
nerekin fiskala.

20/ Jueza ere ementxen nian  
fiskalan aldamenian;  
alare ez nauk asarre, ontan  
utzi nautenian.  
San Migel inñularrian,  
situazio txarrian,  
nik zekit zenbat gauz pasatu zan  
nere barrenian.

21/ Geroztik beti elurte,  
pizti bezela naukate,  
preso betiko ni eukitzeko  
asmoa daukate.  
Bizi guziko giltzape  
penagarria litzake,  
geiago San Blas ikusi gabe  
ilko banintzake.

22/ Nola aste ala jaietan,  
baserri maite oietan,  
urruti gabe or nintzan beti  
edo geienetan.  
Goxo pozik jolasketan  
ibiltzen nintzan gaztetan,  
amaika xalto aterea naiz  
goiko belazetan.



23/ Lenago aman onduan  
ezerren paltik ez nuan,  
bertsoak jartzen bururik ez nun  
nekatzen orduan.  
Orain mixeri osuan,  
salda beroa auzuan,  
gose negarra beste gauzarik  
ez dago Duesuan.

24/ Ixilka irakurtzeko,  
nolaz nagon igartzeko,  
orra ogei ta lau bertso jarri  
iri bialtzeko;  
pake denboran saltzeko,  
salda beroa artzeko,  
nai dun guziak bina erreal  
orri bakoitzeko.

(1937)

\* \* \*

*Zeruko Argia* astekarian, 1968 urtean, Garagarri-llak 16, sail ontako zortzi bertso argitaratu ziran: 10, 2, 3, 11, 7, 12, 21 eta 8'garrena, orden ortan eta zenbait aldaketarekin. Baita beste lau bertso auek ere:

Astera nua kantuan  
Santa Mariko Puertuan,  
onela ditut penak aztutzen  
etxe giltzatuan.  
Gordetzen badet buruan,  
ezta jakingo munduan  
ogei ta iru urte ederrekin  
gaur nola nagan.

Karta artu dek emendikan,  
oiek jaso ixilikan,  
lengo lagunik billatzen badek  
ez gorde itzikan;  
jana bialdu ortikan,  
poztuko nauk gogotikan,  
gure Jainkoak ezтик galazten  
laguntasunikan.

Biok pekatu berdiña,  
euskeran alde, jakiña;  
orregatikan erderantzako  
eztet artzen miña.  
Amak egin nindun piña,  
berrea dakarkit griña,  
naiago nuke euskaltzaleok  
sei milloi bagiña.

Orma da zabala neurritz,  
luzean lau metro berriz,  
tartean-tarte gau eta egun  
zaindariak dabiltz;  
ate aundiak amar giltz,  
ezkur amets alper gabiltz...  
Naiago nuke enara beltza  
biurtuko banintz!

(1) Dondai zarrari, garai bateko tolosarren bat izan omen zan.

## **URTEZAR, URTEBERRI, BETI BERDIN**

1/ Oi ta amazzapigarren urtea,  
izandu zera zakarra,  
amabi illabetetatik ona  
ez degu izan bat bakarra.  
Bide luzean ibilli dezu  
oso pausaje makala,  
erdibituta utzi gaituzu  
ez negar da ez algara,  
guk noiz da nola zelaitu arte  
utzi diguzun malkarra.

2/ Amar eunko ta bederatzireun  
oi ta emezortzigarrena,  
zu guregana etorri arte  
larri euki det barrena.  
Zu zera urteak duan egunik  
alaitsu ta ederrena,  
egunez mara-mara elurra,  
gabean izartsu dena,  
zu ere ona etzera izango,  
eman dizut igarmena.

3/ Oso egoaldi gordiñak dabiltz,  
ez da izango gauz onik,  
ez nuan uste zarrak utzia  
gazteak artuko zunik.  
Belauneraño elurrean da  
izotz galantak egiñik,  
gose ta otzak il bearrean,  
kaiol itxian ez det nik  
esango txorik iltzen dirala  
ez dutenean lurmenik.

4/ Eguna joan ta eguna etorri  
ta beti berdin gaude gu,  
nola joan uda, ala udazken,  
etorritzen zaigu negu.  
Emen gaudenak egin zaiogun  
Jaungoikoari erregu,  
esanaz: Aita, geon etxetâ  
lenbailen joan nai degu.

(1938, urteberri)

## **ESPETXEKO KONTUAK**

Gaur bakar-bakarrik  
nago gelan,  
ez jan da ez edan,  
ez dakit

zer ikusiko dedan.  
Ezpañean errekiña,  
palmeraren osto  
igarrez egiña.

Kea atera asko,  
eztarri bera miña,  
nere buruari "asto"  
esanaz.

Ontatik balitxok diña!

Illunpe ontan itun,  
baña beti tintun.

Zer etorriko zai  
ez nago lasai.

Lagunak auzira  
dar-dar joan dira,  
itxaropenez arlote.

Zerbait gerta ote?  
Auskalo!  
Gaur naiz izan Lazaro,(1)  
nork egin lasa lo?  
Etortzen ez badira aguro  
Andoni ta Praskulo,  
nik zer egin gero?  
Azkar da bero,  
ez banaiz ero,  
gelari zulo  
egin goizero,  
alde egiteko  
andikan gero.  
Ateak ez balituzteke  
itxiko,  
bakarrik ere nuke  
etsiko.  
Baña kaiol txar au  
ain dago itxirik  
eta dana ixilik...  
Bakar nago,  
oso bakarti,  
beti bildurti.  
Nun ago, Andoni?  
Nun aiz, Patxiko?  
Ez natxok ondo ni;  
zuentzako bada odoldi,  
neretzako malko-aldi...  
Elurte aundiz piztiak  
daduzkaten piu-aldi tristiak,  
nik zeuzkat oiek guztiak

zuengatik, lagun maitiak.  
Otoitz-egillea naiz,  
ondo ta maiz:  
"Jauna, onuntz betor garaiz  
kentzera gose gaitz.  
Estali lurra ogi ta arraiz,  
galdu emengo elur ekaitz.  
Biotz gaiztoa ondu,  
nerea kemendu,  
ta lenbailen lurmendu.  
Gutzaz erruki,  
senda gaitz-toki.  
Zer egin ongi  
Berorrek daki.  
Lagunak aurki  
berriro arki.  
Eskatzen diot orixe baiki,  
gizon-gizonki".  
—Arraioa! Alare, etorri  
zeratenean,  
ez dek ezer.  
Orain netxoan  
unerik aulenean.  
Nere izatea zer?  
Utsa geienean,  
batez ere bakardadean,  
otoitz egiñaz milla bider.  
Berriro irurok alkardadean  
—au da gauz eder!—,  
izketarik goxoenean,  
zuzen, ez oker,

pake-pakean.

– Aizak, Andoni:

zer dio juezak?

– Juezak?

Motel, motel erdi erotuan

egon nauk ni.

Sinistu azten ez dituk errezak.

Egia esan da gezurtizat.

– Aizak, Patxi:

ta iri zer iruditu zaik fiskala?

– Ark berriz itzero atxi,

ta jueza bezin zitala.

Egia esan da

begiak itxi.

Ogei urteko itzala,

lasa egon gaitezen etzanda.

– Ogei urteko egote?

Neri amar geioko itzalpe;

ala esan didate.

Egia balitz,

poztuko lirake.

Ai! Txoria banintz,

nun ote nintzake?

Indotxinan barrena

joango nintzaizuteke

aurren-aurrena.

Gero andik

ontzian egonaldik.

Orra esan egitan:

illargiaren inguruan

egongo nintzake alditan,



banintz bezela  
aingeru, an.  
Emen bestela  
beti inpernuan.  
Utsa gaitz asko egin banuan.  
Ezer ez detela,  
onela egon bear munduan,  
abere moduan.  
Anka ankari ezin eman;  
gorputza, berriz, datorkit merman.  
Buru-besoak asiak egan;  
ez dakit zer ikusi bear dedan.  
Lenengo izketa-aldian  
juezak zer esan zidan  
esango det segidan:  
– Nor aiz i?  
– Nor naizen ni?  
– Bai. Orain jakitea  
litzaidake komeni.  
– Bada, ni naiz  
angurri ugari  
jandako gudari.  
Tolosako erriko  
Plaza Berriko.  
Santa Marin kristaututako,  
San Blas goinean azitako  
seme olako.  
Naiz eman iru zartako,  
detalle geio zertâko?  
Berorrek orain billatu beza  
ortikan naizen nolako.

Aibeza: ta beok  
ez al dakite nor naizen?  
– Bai, bai. Bagiñekigun.  
Luis dezu izen,  
Rezola abizen,  
ta Tximela geiengan deitzen  
dizute,  
etzeralako gizen.  
– Zeñek bialdu ditun  
jakin gabe  
ez nago konforme  
oinbeste informe.  
Aibeza, aibeza: zer dira? Onak?  
– Bai, gizon, bai;  
erregaliko bonbonak.  
Zure alde daude sonak.  
– Nork bialdu ote?  
– Orain buruzagi dagonak.  
– Alare, alare...  
Ez da ezer ere.  
Oraindik badaude gizonak.  
– Aizu, gudari:  
esan bear dizkidazu  
zer egin dituzuan  
guda edo gerratean.  
Pozik ibilli al zera  
gorri tartean?  
– Ez, jauna, ez.  
Ez batean  
da ez bestean.  
Nere lurra zaintzen

nuan bitartean,  
ainbestean.  
Bañan gero erbestean...  
Esango diot aoa betean  
obea dala bizi pakean.  
Ez nuan inun gaitzikan egin;  
bi lur zapaldu, bitan berdin;(2)  
bildurra apaldu nere atsegin,  
pekatuaren bildurderin,  
tiroaren suan erdin,  
guda-usaiak berak min,  
mendiak alkarri otsegin:  
"Gaur sartuko gaituk, baldin  
badago beintzat zeru urdin,  
kañoi, fusil da egazkin".  
Gora begira, oien azpin,  
alemanaren biotz gordin  
proatuak gera ludin,  
etsai gaizto eta sorgin.  
Mende erori ez nedin,  
askotan atzera arin.  
Beste gaitzikan ez det egin.  
– Bueno, bueno, ez dago gaizki're,  
ta aurrera bear degu adiskide,  
aztuaz asarre-bide.  
Gudan gudari gradu gabekoa  
edo zer ziñan artekoa?  
– Ni, ala?  
Esango diot bereala:  
talde burutakoa.  
– Zenbat izarrekoa?

- Iru izar.  
– Alajainkoa!  
Jaio baño len bizar?  
– Bai. Ni naiz izardunetan  
gaztenetako;  
euskaldunetan  
gañera, ez azkenetako.  
– Ta pin jokatu al zenduan?  
– Bai. Ustel ez beintzat.  
Odol nereko anaiak,  
indartsu eta alaiak,  
nik bezelaxe eskuak garbi,  
mantxa gabeko garaiak.  
Naiz ezagutu garbaiak,  
gudaldi edo batallak,  
zintzo jokatu degunak  
gera onelako lasaiak.  
Estugo daude etsaiak.  
Zenbaiten barruan  
arra dabil barra-barra;  
alako buru arruan  
aize txarra.  
Berorri zer kastigu dedala  
iruditzen zaio?  
– Geienaz iru bat egun dala,  
fiskalari esango zaio.  
– Ta arek esaten badu  
ni iltzeko?  
– Orra dana galdu.  
Baña zu lasa egon.  
Ala baldin bada,

ederrak dago aditzeko.  
– Protxua zioz ni il da gero,  
zuk aundienak esan arren!  
Il baño len  
ez al dio esango  
nor naizen?  
– Noiz?  
– Gaur bertan joan bedi  
ri-rau!  
– Ez dakit... Zu salbatzearren  
pin, ni iltzen banau?  
– A! Ontarako ekarri  
al dezute lege au?  
Ni nagon bezela elbarri,  
arratsaldeko seiak eta barau,  
ilko ote nauten  
bildurrak aurten.  
Ez da xamurra onela egoten.  
Ez banaiz azkar egiten irten,  
laister naiz zerun jokatzen tuten.  
– Zerun?  
– Apika inpernun,  
txarrikan egin gabe mundun.  
Jaunaren aurka zer egin nun?  
Aibeza: berorrek dionez  
dago  
beterik fedez;  
da ni, orain diotenez,  
nago,  
jokatu detalako legez,  
damu? Ez!

Irakurleak,  
*Jueza eta ni* bertsoetan ere  
esaten det naiko komeri.  
Orain, juzgatu ninduteneko  
oar batzuek esatea  
zait komeni.  
Goizeko zortzi-zortzitan,  
ogei ta amazpigarren  
urte barrenetan,  
nola zan ere illa?  
A, bai: urrilla.  
Atea tin-tan  
joaz,  
nere billa  
sekulako gizon-pilla.  
Eskuak lotuaz  
naramakite.  
Nora?  
Berak dakite.  
Leitz-zulora?  
Esan liteke  
bai, bai, alatsu.  
Ni ez alaitsu.  
Biotzak tik-tak.  
Ez dira  
une politak.

(1938)

(1) Lazaro eguna, Erramu egunaren aurreko igandea da; 1938 urtean apirilak 3 zituala gertatu zana.

(2) Gudari zebilela, bi probintzi edo bi lur zapaldu zituan geienbat Tximelak: Gipuzkoa eta Bizkaia.

## **DUESOTIK CADIZERA**

Euskaldunak Puerto de Santa Mariara, eta andaluzak Duesora.

1/ Agurra ukatzen dizut  
biotzetik, Dueso,  
zaindu dezulako zuk  
oso gaizki preso.  
Zure itzalpean ni  
urte oso-oso,  
egun bat ez det pasa,  
ez ordu bat gozo.

2/ Goizeko bostak dira,  
datorkit ordua,  
begirik itxi gabe  
galdurikan lua.  
Etxeaz aldatzera  
Cádizera nua,  
ura ere, zu bezela,  
ote inpernua?

3/ Gizon asko il dezu,  
ori dakit ongi  
testigu naizelako,  
guzia da egi.  
Goiz batean amalau,  
oso ezagun bi:  
Azkue jauna eta  
bestea Markiegi.

4/ Patioan zan meza  
preso guzintzako:  
laguntzalle, apaiza,  
ta sermoitarako,  
azken ildakoentzat  
otoitz egiteko;  
zigortu egin dute  
oi esan dulako.

\* \* \*

Agur, Dueso, ez al naiz berriz  
etorriko baldinbaite,  
urte betean emen bizitu  
naiz, baña etzaitut maite.  
Santa Mariko Puerto aldera  
emendik naramakite,  
gerra dabil da ara orduko  
iltzea ere baliteke,  
nere etxean ai zer negarrak  
berri au balekitekete!

\* \* \*



Azkeneko talde edo espedizioan bialdu ninduten.  
Lenengo andaluzak Duesora sartu ziranean, tolo-  
sar sendagille zan Luis Goñirekin nengoan sendale-  
kuko atean, eta onela esan zidan:

– Bazetorrek jende ederrik!

Bederatzi puntuko bertso au ipiñi nuan:

Ara or nun dagozen  
larogei andaluz,  
Cádiz aldetik dira  
etorri onuntz.  
Bat eziñean dator  
lagunari elduz,  
naigabeak emanda  
ankak in dio uts.  
Erori dan moduz,  
lurra jo du buruz,  
jendea bakanduz  
gizon bat ankaluz;  
atzelaria da ta  
ibili kontuz.

(1938, agorrak 21)

\* \* \*

Santa Mariko Puertoan. Espetxetik espetxera al-  
daketarik egin ez kero, bederatzi egunean kastigu-  
-gelatik irten gabe egon bear. Ez dek toki ederra!

Ekarriak gaituzte  
bagoitan itxita,  
iru egun bidean,  
iltzeko etsita.  
Estazio guzitan  
ukatu bixita.

Lenez gañera kiloz  
ederki jetxita,  
alare pozik gaude  
sano iritxita.

Kastigu-gela ortan lau lagun giñan. Guretako iru,  
euskeraz egiten genduanak. Laugarrenak, berriz, nai  
eta ezin. Guk ogei ta iru urte, eta arek ogei ta bat.  
Bilboko semea. Bertso au bota nion:

Aizazu, Madariaga:  
nere esanak ez laga,  
ongi dakizu euskotar baten  
semea zerala.  
Euskera ikasi bear da,  
gu bezalaxe, al bada;  
ez al dakizu galtzen badegu  
ezer ez gerala?

Kastigu-gelatik irten nintzanean, Dueson alka-  
rrekin egondako gudari batzuekin bildurik, bizkaitar  
batek, onela agurtu ninduan:

– Kaixo, Tximela! Zelan etorri zara?

Nere erantzuna:

– Kristorenak, Kristorenak gera,(1)  
Kristonak ikusi ta etorri gera!

(1938, agorra)

(1) Garai bateko eliz kanta baten asiera.

## **ESPETXETIK NERE GURASOEI**

("Askok esaten dute ezkondu, ezkondu" eresiaz  
abestu al izateko)

Gurasoei? Bai, gurasoei. Aita, amabi urte nituala  
il zitzaigun. Ala ere, egoera ontan, aita-ama biak go-  
goratzen nik. Gañera, nere espetxeko lagun guztie-  
kin batera abestu al izateko idatzi nituan.

1/ Espetxean sartuta  
txoria bezela,  
txikia nintzan era  
oroitzen naizela.  
Zuen besoetan maite  
ta pozik nintzela,  
ez nuan asko uste  
ikustea orrela.

2/ Arantzaz beterikan  
dago emen dana,  
biotza urduri da  
gurasoengana.  
Ai, oraintxe baletoz  
aita eta ama!  
Nun goxoago zuen  
besoetan baña?

3/ Emendik ikusten det  
nun dan maitasuna,  
lore-jantzian garbi,  
gezurrik ez duna;  
onek ez baidu estaltzen  
arantz zorrotzduna,  
usai goxoa eman da  
eskatzen ez duna.

4/ Etzaituztet aztuko,  
guraso maitiak,  
eriotzak azpian  
artzen naun artian;  
zuen egizko maitasun  
dago agirian,  
lagun danak nigana  
aztu diranian.

5/ Ai, emengo gau illun  
izarrik gabia!  
Bakarrik agiri du  
samin naigabia!  
Zein izandu ote da  
nere illargia?  
Guraso maitearen  
oroitz-irudia.

6/ Ai, amatxo maitea,  
ez egin, ez, negar,  
zu orrela ikustek  
iltzera bainakar;  
Jaunak bidaliko du  
egiaren izar,  
bere argiz xamurki  
laztantzeko alkar.

*Tartetan abesteko:*

Ama gaxo, aita maite,  
ez egin negar orrenbeste;  
zuen ondora oso laiste  
joango natzaizute.

(1938)

## **NERE SENDIA TA NI**

(Doñua: "Iparragirre abilla dala...")

- 1/ Anai zarrena elbarrituta  
Frantzian dago sendatzen,  
aren bitartez aman berriak  
osabak dizkit bialtzen.  
Ondo omen dago an,  
ni naukala gogoan.  
Baleki nola nagoan,  
gaxoak iru zapi negarrez  
bustiko litu gaurkoan.
  
- 2/ Tolosatikan eskutitz ori  
artzeko banun garaia,  
nunbaite ez da asko estutzen  
nere osaba lasaia.  
Illoba dago triste,  
naiz bota iru txiste;  
baleuka naiko alpiste,  
beraren ama ondo dagola  
eukiko luke siniste.

3/ Semea gaizki nolaz baidagon

ama ere txit alatsu  
egongo dala, osaba, ezin  
gauz ori kendu didazu.  
Kartaz zuk ni engaña  
nai ninduzuke; baña  
preso batek, alajaña,  
iru urtean ikasi bear  
kanpoko alprojak aña.

4/ Bartzelonara joan ziran ama,

arreba eta izeba,  
aiek nola bizi diran nere  
ezin egona auxe da.  
Artu baño len lua  
dator nere buruâ  
atzoko bonbardeua.  
Ez al zan beintzat antxen galduko  
nere famili osua!

5/ Sei aste barru artu det beste

karta polit bat amana:  
"Ai, nere seme, goraberakin  
mundu onetan au lana!  
Francok emendik bial,  
ta Tolosara biar  
derrigorrean joan biar;  
gure erritarrak begiratua  
botako didate ziar".

6/ Erantzun diot: "Amatxo maite,  
ortik etzaitez mugitu;  
gure errian lege arauak  
oso txarrak jarri ditu.  
Tolosâ joan orduko,  
kartzelâ bi orduko;  
gero illea buruko  
moztuta gelditu zerala zu,  
beste askoren moduko.

7/ Gañera berriz egin digute  
etxe guzia lapurtu,  
aiton-amonen kuadro ederrak  
baitare danak apurtu.  
Aitona liberala  
izan zalako dala  
oraingo bengantza dana  
badakigu, ta etzaitezela  
jaioterrira joan, ama.

8/ Andaluziko erri batera  
preso naute ni ekarri,  
osasun onak lagundu baña  
tripetatikan elbarri.  
Jateko garbantzu lau,  
lotara askotan barau,  
egunez negar, esna gau;  
Francon aldera biurtutzeko  
tokitara ekarri nau".

(1938)



**NERE AMARI  
SANTA MARIKO PUERTOTIK**

Au da nere zaletasuna, eta berak ematen dit osasuna.

1/ Aitaren egin zerbait  
esan baneike, ta  
sartzera noa oso  
mintzaldi tristetâ.  
Ez dedin galdu gure  
goxodun izketa,  
iriki nai det itxi-  
ta dagon krisketa,  
jakin dezan jendeak  
nere ibilketa.

2/ Gudaren aurretikan  
Tolosan nenguan,  
beste bost senidekin,  
amaren onduan.  
Lenengo tiroekin  
aldegin genduan,  
iru urte barru ille  
zuria buruan,  
orra disgustu txarrak  
zer ekartzen duan.

3/ Jaio ta azia naiz  
Tolosako errian,  
ogei bat urte arte  
nere pamelian.  
Penaz egatu gendun  
geundenak kabian,  
orain ardi galduak  
bezela Españian,  
alkar ikusi gabe  
joan dan aspaldian.

4/ Anai bat gerran il da  
bestea elbarritu,  
Baionara joan eta  
zauriak berritu.  
Amatxo Bartzelonan,  
ni preso arkitu,  
biotzikan ezin det  
iñolaz alaitu,  
naiago nuke aien  
berriak banitu.

5/ Bartzelonara joan zan  
gerraren igesi,  
Bilbao ta Santander  
zapalduz lenbizi.  
Iru urte ontan ez nau  
gaxoak ikusi,  
nere gisa ura lasa  
ezin leike bizi,  
etzituan semeak  
alperrikan azi.

6/ Osaba baten bidez  
gaur artu det karta,  
bertan dator neretzat  
berri bat aparta:  
danak ondo dirala  
naiz il zana palta.  
Lasaitu nadin, ama,  
zu bizi zera-ta,  
lurreko goraberak  
orrela dira-ta.

7/ Giltzapeturik dago  
Aitorren izkuntza,  
ta berak egiten dit  
bertsotara bultza.  
Alkar-urruti gaude,  
auxen da gurutza!  
Ni ezin joan ninteke,  
zu atoz onuntza,  
semearen bizia  
nai badezu luza.

8/ Emen ezta entzuten  
ostoa baten txintik,  
eztago len bezela  
egiterik txistik.  
Gaba esna igaro,  
eztaukat siestik;  
boniatok ezurak  
indartzen badizkit,  
a zer mutilla joango  
naizen ni Cádiztik!

9/ Azken agurrarekin  
zuk begiak ibai,  
atxilotu ezker  
nereak beti blai.  
Lagun jatorrak dauzkat,  
gaur eztira nunai;  
alare itun beti  
zure bixitan zai,  
semea ikustera  
atoz, ama, lasai!

10/ Egun illuna dator  
da gaba zekena,  
ai, auxen da tristura  
etortzen zaitena!  
Tribunalak bota nau  
betiko itzal-pena  
ezertxo're egin gabe,  
au ez al da pena?  
Baldin ez al da izango  
emen nere azkena!

11/ Barrendikan datorkit,  
eztizut gezurrik,  
berriz ez ote dizut  
egingo agurrik.  
Andaluzian ez det  
utzi nai ezurrik,  
Tolosan il nai nuke  
zurekin bildurik;  
Jaunaren aurrerako  
eztaukat bildurrik.

12/ Zu utzita joan nintzan  
sasoi ederrean,  
ogei ta bi urtekin  
ez nago indarrean.  
Gorputza aula daukat  
gogor bearrean,  
baña poz bat bakarra  
biotz barrenean:  
euskeraz ikasia  
zure bularrean.

13/ Begirik ez itxi nai,  
idekitzen lana,  
indartzeko auzoan  
botika ta jana.  
Jaunak nai beza berriz  
joatea zugana,  
pakean bizitzeko  
azturikan dana,  
paseak pasa eta  
alkarrekin, ama!

14/ Berdin zait Eguberri,  
berdin zait Lazaro,  
nik emen ezin egin  
iñolaz lasa lo.  
Eztago irauterik  
onela luzaro,  
zure itzal gozoa  
ez nêkin balego...  
Gaur maite zaitut, ama,  
dana esana dago!(1)

(1938)

(1) *Zeruko Argia* astekarian, 1967, maiatzak 2, sail ontako amabi bertso argitaratu ziran: 3 eta 10 ez bestek.

## TOLOSARATZEAN POZA

1/ Bai, ni len ondo nere errian;  
ta orain, berriz, ordun bezin  
jator nagonik ez bada uste  
espetxean Andaluzin.

*Ta,... Tolosa; ta, Tolosa,  
ni zugantzean, ori poza!*

2/ Amaika illabete Dueson igaro,  
ta gaur nago lendik urrin;  
ango goserik ezin kendu ta  
aoko zulozik lurrin.

*Ta,... Tolosa; ta, Tolosa,  
ni zugantzean, ori poza!*

3/ Txanponik ere batere gabe  
oraintxen nago ederki;  
gaurko egunean bat nola dagon  
norberak ondo badaki.

*Ta,... Tolosa; ta, Tolosa,  
ni zugantzean, ori poza!*

(1939, uztailla)

## EUROPA NEGARTI

- 1/ Europa guzin trumoi soñua  
ixilka beñik asia,  
joan daneko aspaldi ontan  
burrukan dabil aizia.  
Lurrean ere asarre dago  
Italiakin Frantzia,  
alemanakin inglesa eta  
finlandesakin Rusia.  
Gizon bat dala medio dago  
nasturik mundu guzia.
  
- 2/ Aleman oiek pake gizonak  
beñere izan ezta,  
emengo guda amaitu orduko  
sortua dute bestia.  
Egazkiñez ta izkilluz dago  
gaur leporaño betia,  
musean ere oi ta amaikakin  
zail ez da izaten astia,  
alaz ta guzi kostako zaio  
opotik irabaztia.



3/ Nola len Kaiser, ala orain Hitler,  
beti bada erokoia,  
beñepeiñ ortik geinean sortzen  
dute gudako sasoia.  
Eliz-goitarra izana zan bat,  
orra bestea masoia,  
ta Italia bere morroi da,  
era berean Japoia,  
merezi du ta artu bear du  
izugarrizko jipoia.

4/ Erroman dago zaunkari ona  
ixiltzen ez dan zakurra,  
zein-da ona dan luzaro gabe  
sartuko zaio bildurra.  
Nolaz baidakin datorkiola  
Afrika aldetik egurra,  
bizi danantzat etorriko da  
mututuko dan eguna,  
baldin ez al du egingo emen  
geiago berak nai duna.

5/ Poloniara jo alemanak  
dana apurtuz su-eraz,  
Beljikan ere legeak autsi  
ta artu dute Bruselas.  
Frantzian berriz Verdun pasa ta  
baztarrak bete ultzeraz,  
Mundu guzia artuko dute  
orain dabilzan tankeraz,  
Ameriketâ irixterako  
mintzako dira euskeraz.

- 6/ Danok dakigu nola dabillen  
Mussolini guda billa,  
orixe dala medio dator  
izugarrizko naspilla.  
Izkilluakin mugan zai dago  
gudako frantzes mutilla,  
erromatarrak zapaltzen badu  
oin bete *Tour*'en tokiya,  
sinistu zagun egingo dala  
arrautzik gabe tortilla.
- 7/ Amerikan da Ozeanian,  
Afrikan eta Asian,  
arritzen dira Europa dana  
negarrez nola bizi'an.  
Munduaren bost parteetatik  
au dabil marka pasian;  
orain ainbeste odol ixurtzen  
bada denbora luzian,  
anima salbo jarriko gera  
pizti gaiztoen antzian.
- 8/ Guda sortu da, ez da gauz onik,  
au dio gizon azkarrak,  
Amerika ta Japoi aldetik  
datoz notizi kaskarrak.  
Mundu guzia artu omen du  
alemanaren sugarrak,  
bidali ditu lur, itxasoz ta  
goi urdiñera indarrak,  
Jainkoak beste iñork ez daki  
orain datozen negarrak.

(1940)

## **ATXILOTUAREN TXAMARRA**

1/ Txamarra ori egin zuana  
kartzelan amabost urte,  
arpillerakin egiña dago,  
bai josia oso fuerte.  
Urteen buru ezta arritzen  
grasez egitea bete,  
eta joskura-zulo guzitan  
zorriak artzea parte.

2/ Amalau preson bizkarretatik  
pasea izan bear du,  
nik ez nekian gauz ori bañan  
guardianak au esan du;  
eta berritan nola egin zuten  
beatzi pezetan saldu,  
gaur bost kuarton emango det nik,  
iñork nai badu azaldu.

3/ Amore aundiko txamarra da ta  
beko barrena belaunen,  
besoak beatz-muturretan da  
botoirik gabe berriz len.  
Au egin zuan sastrea preso  
oraindik dago Mahónen,  
negargarria iruditzen zait  
neroni ala nagonen.

4/ Urte betea bakarrik ezta,  
beste batekin da pare,  
ondo irten ezkerro emendik  
utsa litzake alare.  
Norbera dala danok dakigu  
zer egin txit aren jabe,  
sastreak bat il omen zuan ta  
ni berriz iñor il gabe.

(1940)

## **ORRA AZKENEAN!**

Orain arte, orrenbeste denboran, atxilotu bat izan naiz. Ala ere, berriro libre! Baniken garaia!

Santa Mari Puertoko espetxetik gaur atera, eta bertso jartzeari ezin utzi.

1/ Urte bete gudan da  
iru espetxian,  
laurak joan zaizkit bizi-  
era oso motxian.  
Milla lareun eta  
irurogei egun  
nik dakit nola bestên  
mende egin ditugun.

2/ Ni naiz noiz aske bada  
jarri zai egona,  
azkenean iritxi  
zait gaur ordu ona.  
Askatasuna egiñik  
izenpetu orra,  
iru urtekin ordain det  
bost xentimon zorra.

3/ Santa Mariko Puerto-  
ko kalean nago,  
ezin egiñik pozez  
jan bai, bañan ez lo.  
Fondako amak negarrez  
jo dit ixil txalo,  
esan nairikan: "Nere  
semea antxen dago".

4/ "Etxeko andre, lasa  
zaitea egondu,  
ark e zukanatzeko  
txit laister egun du.  
Etzaitea biotzez  
ortâño bigundu,  
semea etorko zaizu  
pasata bi mundu".

(1940, agorrak 12)

## **JEXUXA TA BERE AIZPAK**

("Santa Ageda" abestien eresiaz)

- 1/ Joxepita ta *Muxu-gorri* ta  
Jexuxa egoten dira,  
ni noiz tranbean pasako naizen  
goiko leiotik begira.
- 2/ Irurak mutil-zale amorratuk,  
izketan ere berdiñak,  
aspaldi ontan algara pranko  
Jexuxak ditu egiñak.
- 3/ Txoko batean zer egin gendun  
erorrek egin den konta,  
etzekiñat nik nola liteken  
neskatxa olako tonta.
- 4/ Asiera eman denelako  
esan beañat egia:  
neri elduta egon intzanan  
jiratu arte begia.

(1941)

## **NERE ILLOBATXOARI**

Jose Luis Cauqual, senideen aldetik nere illoba  
bakarra danari.

- 1/ Gaur bezelaxe gerora ere  
izan zaitea etxeko,  
osabak esaten dizuana  
ez alperrikan galtzeko.  
Illobatxoa, gaur zure amak  
semea ez dauka saltzeko,  
gizon egiten zeranerako  
nai zaitu bera zaintzeko.
  
- 2/ Amatxok zaitu maiten-maitena,  
bera baizera, txiki,  
seaskan zaudela egiten dizu  
txoko batetikan kiki.  
Zuk, berriz, xorgiñ jostallu zale,  
etxea poztu ederki,  
aitak goxoak ekarri eta  
osabak jarri olerki.



3/ Zu zaintzen zaitun ama gaxoa  
beti dezu aldamenean,  
garbitasuna berekin dauka  
al dan era onenean.  
Ondo-egin oiek gogoan euki  
aundi egiten zeranean,  
ama zer dan bat konturatzen da  
guraso egiten danean.

4/ Gaur aurra zera ta biar zeñek  
izango zeran jakingo,  
nere bideak baztar utzita  
ez al diozu ekingo.  
Nere urtetan ez dezu noski  
bear ez danik egingo,  
jatorriz dezun eusko odola,  
ezin esan det garbiga.

(1941)

## **BELAUN EZURREAN ERI**

1/ Ez dadukat, maitea,  
beste zer egiñik,  
arkitzen naizelako  
ibilli eziñik.  
Belauneko ezurrean  
ez baneuka miñik,  
joango nintzake biar  
arrastaka beñik.

2/ Zu ikusteagatik  
oi egingo nuke,  
bizkarren eman arren  
amar milla neke.  
Etorri nai badezu  
ez gaude aparte,  
bestela berriz agur  
Erregenak arte.

3/ Gaur jeiki naiz arturik  
bastoi ta makulu,  
oik gabe ibiltzeko  
ez nago seguru.  
Oian ni exerita  
arkatz ta liburu,  
noiz sendatuko ote da  
nere belaun-buru?

4/ Alkar ikusi gabe  
irugarren jaia,  
naita're ezin euki  
biotza alaia.  
Eskribitu gaberik  
joan zaidak garaia,  
neska ona egongo dek  
nere andregia.

(1942)

## **DESAFIOA**

Nere gisa, bertsoekin jolastuz:

Muxika ta Aritzio,  
Zumain da Amundu,  
Tximelak gaur badauka  
zuek aña mundu.  
Iparragirrek ezin  
naita're lagundu,  
Aitzetak botatzeko  
ezaguera nun du?

Erantzunak. Aritziok:

Sei etxe marka ditu,  
gaur ez dago barau,  
seietatikan kontra  
atera gera lau.  
Asko xamar ez al da  
gizon batentzat au?  
Tximelak bein bakarrik  
toreatuko nau.

Amunduk:

Tximela torero ta  
Aritzio zezen,  
txuleta ikusgarrik  
jartzen bada gizen.  
Billeteak saltzen ni  
asiko naiz goizen,  
torero au ikustera  
beko plazâ goazen.

Iparragirrek:

Ez du noski Tximelak  
aterako mauka,  
bere ustez tontona  
kuadrill ontan nauka.  
Bertatikan kobarde,  
urrutitik zaunka,  
berak aña koraje  
Martínek badauka.

Aritzetak:

Iruk kanta dute ta  
nik berriz azkena,  
ni naiz Aritzetako  
semerik gaztena.  
Onek ez du zezena  
motelduko dena,  
ea, asi gaitzen  
zorrozten eztena.

(1943)

## **ERDERAZ NUNAI**

1/ Nere anaiak, nijoakizute  
itz neurrituak biltzera,  
erderaz nunai asi zerate,  
euskera dator iltzera.  
Zeok zoazte zeon lurrean  
au galduz ura ipintzera,  
guraso onak ziñuzen bañan  
zu gaiztotu egin zera.

2/ Bakardadeko oroipenetan  
bururatu zait usterik:  
mundua mundu dan arte ez da  
galduko gure euskerik.  
Gaurko semeak erdaldundu arren  
ez du sentitzen aulkerik,  
erdera oinpean artzeko ez ote  
zaigu etorriko aukerik?

3/ Erderak nunbait gure lurrean  
billatu leku biguna,  
guk noiz egingo ote diogu  
onek gaur îten diguna?  
Ni naiz bat zu noiz erortzen asi  
azkar elduko dizuna,  
gudaldi oien goraberetan  
dago zure etorkizuna.

4/ Inglesak dira gure izkuntza  
asi diranak jatortzen;  
Agirre andik pasea, orra  
zer gauzak diran etortzen.  
Gu len da orain zer geran dute  
Ameriketan aitortzen,  
esanaz nungo dan jakin gabe  
euskalduna ez dala aitontzen.

(1944)

## "PINTXANA"

Iñauterietako kanta. Musika, Antton de Pedro jaunarena, eta letra neronek jarria.

Tolosak dituan kale guztiak pasa ondoren, *Zumeta* tabernan genduan aparria. Anttonek an jarraitzen zuan soñua joaz, bañan letrarik gabe. Tabernariari arkatz bat eskatu eta, neronen etorriak alde egin baño len, auxe idatzi nuan:

*Pin, pin, pintxanatarrak gu gera,  
pin, pin, pintxanatarrak beti.*

Umore ona pasatzen degu  
beti sagardotegian,  
gu bezelakorikan ez baita  
Tolosako errian.

*Pin, pin, pintxanatarrak gu gera,  
Pin, pin, pintxanatarrak beti.*



Antton de Pedrok eskun soñua,  
anka batean txalopa,  
gu atzetikan erdi mozkorrek  
ta jendea txaloka.

*Pin, pin, pintxanatarrak gu gera,  
pin, pin, pintxanatarrak beti.*

Neska gazteak, ez egon lotsez  
guregana etortzeko,  
Pintxanakoak beti zai gaude  
zuekin dantzatzeko.

*Pin, pin, pintxanatarrak gu gera,  
pin, pin, pintxanatarrak beti.*

(1944, ostegun gizen)

\* \* \*

Bañan iñauteriak pasa ondoren, garizuman sartu  
bear...

Gaizuman sartu gera,  
agur iñauterik,  
etzegoan Tolosan  
ala irauterik.  
Erabat iru egun  
etxera gaberik,  
danok gelditu gera  
ler ta uts egiñik,  
gañera ezin kendu  
anketako miñik.

(1945)

## **TRANBEETAKO ESTRAPERLOAZ**

1/ Tranbero danak atentzioa  
andia dute oientzat,  
noiz etorriko *Izkiña*'n lasa  
egoten dirade beintzat.  
Iritxi orduko lore bi bota,  
esku-azpikoa berentzat,  
presa ta bulla izaten dute  
langille jendearentzat.

2/ Txoko epelak badakizkitez  
gauza goxoak artzeko,  
bezperatikan esanda dauzke  
mokau onenak jartzeko.  
Gero kalera aizea botaz  
jarririk erabateko,  
au ez da martxa etxera poltsa  
osorik eramateko.

3/ Esne, arraultz ta olio, ollasko,  
babarrun ixil sartuak,  
uniformerik ikusten baute  
oien biotzen saltuak!

Azak gañean txukun ipiñi  
kamufaturik xextuak,  
eskol ederra ikasi dute  
gaur basarri etxeuak.

4/ Danak bilduta tranbearen zai,  
izketan ari garboso,  
zenbat artu ta zenbat gasta dan  
lenbizi orri eraso.

"Neska, ez esan iñoiz iñori  
ik asko denela jaso;  
esaten baden, amak aguro  
artuko din sokor-mazo".

(1945)

## ONDARRETAKO ESPETXEAN

Berriro ere kartzeleratua. Giltzaperatua. Oraingoan, Ondarretako espetxean. Zergatik? Paper batzuk zabaldu nitualako...

Espetxetuak izaten ditu  
—entzun nere abestiak—  
orduak oso luzeak eta  
egunak berriz tristiak.  
Orain ikasi zer egiten dun  
lurmenik gabe piztiak:  
osto gabeko zugaitz guziak  
egoten dira betiak,  
nora egatu ez dakitela,  
ni bezelaxe gosiak.

(1946)

## **ZURI NERE BIOTZA**

Ondarretako espexetik, nere andregai Ramoniri.

1/ Olerki batzuk zeñi ta zuri  
jartzeko badet baimena,  
Ramoni, zaitut biotz-biotzez  
izan nezaken maitena.  
Goxo ta zintzo zurekin nai det  
ibilli al dan maizena,  
ni naiz zu iñoiz ikusi gabe  
oñazez bizi naizena.

2/ Lotan bakarrik nagolako bart  
zurekin egin det amets,  
galdeturikan egiz nai nazun  
erantzun didazu baietz.  
Gogo berdiña daukagu biok  
nere ametsak dionez,  
zure alboan joan liteke bat  
Burdeoseraño oñez.

- 3/ Emendik ara oñez joateko  
aukera izango zenduke,  
zure besotik abitzen dana  
ni izatea nai nuke.  
Badakit noski ez didazula  
itz ori egingo uke,  
bestela beintzat nere biotzak  
arnasa geldiko luke.
- 4/ Aldizka alako tanpetakoak  
badira biotz guretan,  
oraintxen ere nere dago  
zutzat eguzki erretan.  
Ain nago goxo oroitzen zure  
gaurko bixita errejetan,  
egin didazun ongarriakin  
beñe ez egon penetan.
- 5/ Lau illabete asi giñala,  
datorkigu bosgarrena,  
geroztik ez det besterik, baizik  
zu neretzat ederrena;  
nere asmoen berri gaurtikan  
jakitea ez da txarrena:  
zu uztezkotan joan bearco det  
Ameriketari barrena.



6/ Amasei aste dira lenengo  
lorea bota nizula,  
zuk erdi parrez artu zenduan,  
ai, zer nere poza ura!  
Biotz berako alaba zera,  
nerea ez da elurra,  
zugantzarren utziko nuke  
Ameriketako lurra.

7/ Ludi onetan mesede baño  
geiotan dator kaltea,  
ni beintzat orra berriro preso,  
nago naigabez betea.  
Jaunari otoitz egiozu maiz,  
nere bioztxo maitea,  
zabaldutzera etorri dedin  
Ondarretako atea.

8/ Barruan dedan xamurtasuna  
garbi dizut erakutsi,  
biotza daukat kilimuka ta  
orra zure era utzi.  
Nai zaitut iru ta iru ta bi  
diran bezelaxe zortzi,  
ni naiz zuretzat egimen utsa  
ta zu nere amets-ontzi.

(1946, dagonillak 24)

\* \* \*

Urrengo urtean, andregaiia ta biok Arantzazura  
joandakoan:

Urteko egun zoragarrina  
nere iritziz gaurkua:  
andregaiakin Arantzazura,  
ezin aztu modukua.  
Amatxo, zugar etorri gera  
naiz-ta ixuri malkua,  
o, zure bidez izan dezagun  
goi-zelaiean lekua.



## IZASKUNGO AMAREN OÑETAN

Tolosako Figuerido sendagillearen Izaskungo Amaren klinikan jarriak. Nere emazteak an pasa zitu-  
an bost bat egun, apendize miñak jota. Eta, zain-  
tzearren, gauero an ni. Klinikak sarreran zeukan ja-  
rrita Izaskungo Amaren irudia, eta egun gutxi barru  
bere koronazioa ospatzeko genduan Tolosan. Erre-  
zorik onenak, berari bertsoak. Moldiztegi izenik ga-  
beko bertso-paperetan argitaratuak, eta sei egunetan  
sei milla salduak.

1/ Azaldu ziñan "Nun nago?" esanaz,  
zeruak zizun erantzu,  
ango agindua bete zenduan,  
gutziz ona baizera zu!  
Amatxo, ai zer goxoa zeran  
eta biotzez beratsu,  
zure oñetan belaunikatuz  
jakinduria ekatzu.

2/ Ezaguera dedan ezker  
daukat zuregantasuna,  
orreatikan goizero dizut  
eskatzen gauz beartsuna.  
Otoitz ondoren apatx egin det,  
auxen da goxotasuna,  
urrearekin ez da ordaintzen  
zure gurasotasuna.

3/ Zuretzat onak geran semeak  
ikusitazu zer degun,  
ni beintzat pozik nator zugana,  
ain zaude goxo ta legun.  
Apaingarriztat ekarri dizut  
sortatxo bat lore eskun,  
zer gutxiago egin gentzake  
maite degunak Izaskun?

4/ Lenengo etorri zinaneko lur  
mugatsu orren jabeak  
zuretzat zuten sinismen ona,  
beste txarkeri gabeak.  
Guk ere aien kutsu apurrak  
badaduzkagu gordeak,  
bañan alare oraindik izan  
bear genduke obeak.

5/ Zazpi gizaldi bete xamartuk  
esan oi dute dirala,  
txillar loretsu, arkaitz babeski,  
ortxe azaldu ziñala.  
Geroztik beti egin diozu  
sorterriari itzala,  
aurrera ere Alguztidunak  
gurekin gorde zaitzala.

6/ Eun da ogei ta zazpi urte dira  
ermit ori erre zala,  
berritu arren berriz erre zan  
zure estalpetxo apala.  
Irugarrena berria dezu  
merezi bezin jaukala,(1)  
au da semea txit bizitzea  
Ama gogoan daukala.

7/ Zure kondaira dana ez dakit,  
entzunda nago zerbaitu,  
bi bider sua etxe barruan  
bañan etziñan erre zu.  
Nun estalpetu etzekizula  
gelditu ziñan beartsu,  
berria egin arte Tolosan  
elizan egon ziñan zu.

- 8/ Erri guzia errukitu zan  
da berria egin zuten,  
berriro gora pozik igo zan  
negarrez jetxi zana len.  
Berriz su artu edo mendia  
erditik ez bada austen,  
zillar utsa dun koroï eder bat  
jarriko dizute aurten.(2)
- 9/ Noiz koronatuko duten euki  
zazute gogoangarri:  
agorrillaren bigarren jaia  
egun ori dute jarri.  
Gipuzkoako guraso onak,  
zeon sendiak ekarri,  
beso zabalik Ama Birjiña  
dago ta ongi etorri.
- 10/ Zure izena goratu duna  
bikaio dago Tolosan,(3)  
oso makala ez da gizona,  
Durangotik etorri zan.  
Geroztik esan izandu zuan  
itz-lekutikan elizan:  
"Amarentzako oroitzen ez dan  
semea nola leike izan?".

11/ Len eunetatik larogei zeuden  
zuretzat oso aztuta,  
da orain eunetatik berrogei  
zure Kofradin sartuta.  
Bikaio jaunak lan asko egin du  
guzia gogoz artuta,  
amaika etxe txiro jaso du  
aberatsari kenduta.

12/ Ez nuke iñor gogor artu nai,  
onez nai det adierazi,  
erriko artzai zintzoarentzat  
milla zorion lenbizi.  
Beraren bidez egin dalako  
len txertatua itxasi,  
erri guziko txalo beroak  
ark ez al ditu merezi?

13/ Ai, tolosarrak, nere olerkik  
entzungo baziñuzteke,  
biotz-kilima bezelako gauz  
bat senti lezazuteke.  
Gaur gizon onek eskatzen duna  
emango bazenduteke,  
Izaskunera bide berria  
laister izango genduke.

14/ Aspalditxotik nola dagoan  
daduzkagunak oroitzak,  
zarra berrituko luke noski  
nekeak eta otoitzak.  
Gure Amatxok bidean dauzkan  
luizi-lur eta arkaitzak  
kenduko dira, laguntza pixkat  
jartzen badegu bakoitzak.

15/ Gu langilleak esku-lana ta  
txanpona jarri aberatsak,  
len ere noski etzitun lertzen  
arriak oien beatzak.  
Nagusi jaunak, etzaitezuela  
emateko egon otzak,  
dirua simaur biurtu baño len  
aska ditzazute poltsak.

16/ Gora emalle on zeratenak  
ta erriko jauntxo azkarrak!  
Gora Amaren babes ez titan  
oitu zeraten luistarrak!  
Nolatan zaindu badakizute,  
etzerate seme txarrak,  
ori bear da pakean bizi  
nai badegu luditarrak.

17/ Alabak berriz egin diote  
Amari mantoi berriya,  
orra guziak alkar artuta  
polita erregaliya.  
Oinbeste urtetan erdi aztuta  
zegoan Ama Birjiña,  
orain nolana erregaloak;  
ez al da gauz atsegiña?

18/ Nere asmoa zertara dagon  
garbi asko dizut ager,  
zure laguntza izan ez bazan  
aixa egingo nuan ler.  
Zuk mâletxoan daukazun Aurra  
zaintzen dezu beti eder,  
nik ere berdin zainduko zaitut,  
agur, Ama, ta milla esker!(4)

(1949)

(1) jaukala: bikaiña.

(2) Izaskungo Ama Birjiña, 1949 urtean, Agorrillaren 12'an, izan zan koronatu.

(3) Don Wenceslao Mayora apaiz jauna, Tolosako erretore izan zana.

(4) Basarrik, 1949 urteko agorrillaren 25'ean, *La Voz de España* egunkarian, bere *Mi atalaya montañera* saillean, onela zion:

*"La especialidad de este amigo mío es escribir versos, versos de alta calidad, sobre todo. En cierta ocasión, más de media hora estuve embelesado, escuchándole los fragmentos de su rica producción poética. Ahora, aprovechando la bella coyuntura de la próxima coronación canónica, ha tenido la feliz ini-*

*ciativa de imprimir 18 estrofas en honor de la tierna "Amatxo" de sus amores. Todas ellas son aceptables. Para mi gusto, las mejor logradas, la primera (si bien se permite algunas licencias gramaticales), la tercera, la octava y la estrofa final. Recomendamos la adquisición de estos papeles impresos de nuestro buen amigo e inspirado bertsolari tolosano Luis Rezola "Tximela".*

Eta *Ecos de la Coronación* izeneko agerkarian onela esaten da:

*"Varios bersolaris recorren los pueblos del Arciprestazgo, cantando los bersos que el popular "Tximela" ha compuesto en honor de nuestra Amacho. Es sorprendente el éxito que van obteniendo entre nuestros buenos baserritarras...Vuestro Párroco".*



## **JOAKIN ETA MIRENTXU**

- 1/ Amar eunko ta bederatzireun  
berrogei ta amargarrena,  
azaro zarra ezkonberrintzat  
aukeran ez da txarrena.  
Joakintxo, etzaude lotan, baizikan  
ibilli zera azkarrena,  
baratzen dagon loretegitik  
artu dezu ederrena.
  
- 2/ Atzoko ametsak gaurko egiak  
zuentzat milla birtute,  
mendak usaia duan bezela  
alkar maitatzen dezute.  
Aldare aurrean biok ain goxo  
gaur uztartuta zerate,  
urte askoan babes onetan  
munduan bizi zaitezte.

3/ Txori batzuek ibilli dira  
gaur arte zuen buruan,  
aldare aurrean ikusi ditut  
nola joan diran eguan.  
Aurrera, Miren, opatzen dizut  
ta, Joakin, zuri munduan:  
Zeruko Aitak deitu arte bizi  
zaitezte alkarren onduan.

4/ Gaur edo biar aita ta amatxo  
ikusten dituzuenean,  
agurtu gabe ez beintzat utzi  
Jainkoaren izenean;  
ta iñoiz ikusten badituzute  
dabiltzala eziñean,  
aiek zuentzat egin zutena  
zuek ordaindu azkenean.

5/ Mirentxu eta Joakin, zerate  
gazte jator ta egokiak,  
nai baña ezin goraldtu iñolaz  
zeratena olerkiak.  
Nundik zatozten begira jarri  
eta aita ta ama biak,  
iñun gutxi gaur topatzen dira  
orlako erakuslariak.

(1950)

## **BELABIETATIK IRU ERREGE**

1/ Antziñatikan dator oitura,  
gañera bikaña berez,  
ea, Erregeak, urtero etorri,  
galdu ez dedin, mesedez.  
Guk badakigu inoiz ekaitzak  
jotzean ez dala errez,  
zaldiak ezin badira ibilli  
etorri zaitezte oñez.

2/ Belabietatik iru Errege  
datoz urtero bezela,  
gure aurtxoak negar da negar  
egongo ziran bestela.  
Pitxi politez ongi beteta  
ekarri dute pardela,  
biar goizean apaindutzeko  
leioa edo lo-gela.

3/ Jostallu asko dakarkizute,  
nik dakiten baten poza,  
zapata uzteko apurtua du  
leioan zegon larrosa.  
Andaretxo bat eskatzen du ta  
amets ori zuek osa,  
autsi artean egin dezala  
bere besoetan goza.

(1951)

## IRU ERREGEEI NERE AGURRA

Jaun andreok,  
au da negargarriza:  
eguzkiari  
joan zaio erregintza.  
Orrengatikan gabilta  
gabiltzan bezela:  
sudurrari zintza ta zintza,  
eztul gaitza,  
doministiku:  
Atxi!... Atxi!...  
-Noiz arraio  
etorri bear dek, kuku?  
-Noiz?  
Joaten danean ekaitza.  
Kukuak abesten duanean,  
dana zelai.  
Orain nunai  
erabat arkaitza.  
Ilbeltza...  
Zu alako negu-ertza.

Bere muturra  
ille tartean gorderik,  
zakur da katu...  
Ta guk?  
Negu.  
Bere txarrear  
egun ederra gaur degu.  
Bai, Billabona, bai.  
Au nere iritza:  
Erregeak pozten dute  
etxeko bizitza.  
Agurgarritza.  
Ta orain ofrenda ez,  
eskeintza:  
torizute erriko giltza!  
Leioetan ixil-ixilik mintza,  
danok lo ta lo.  
Datorren urte arte  
ondo igaro.

(1951)

## **EMAZTEARI**

1/ Bakardadeko nere ametsak  
beti izan ziran zuregan,  
amaika bider zu izan ziñan  
etxera joan nintzan egan.  
Esnaturikan esan ere bai:  
"Zer gozo lo egin dedan!".  
Zuri eskerrak bizitu nintzan  
amets-pozarekin gelan.

2/ Ikusten nazu kantun berriro  
aurra besoan detela,  
belarri-ertzera etorritzen zait  
beraren arnas epela.  
Zu garbiketan ari zerade,  
autsa jabetu bestela,  
ai, emaztetxo, gaur bizi gera  
nik amets egin bezela.

3/ Ezkon arreko amets guziak  
egin zaizkigu egitu,  
ez baizidazun ta ez bainizun  
iñoiz biotzik zauritu.  
Ondo jositako maitasuna  
beñere ez leike aritu,  
alkar nai onek guraso onak  
berekín izaten ditu.

4/ Saretutako maitasuna da  
gaur asko, biar baterez,  
bein banatutzen asi ezker  
batutzen ez da oso errez.  
Bañan itxia baldin badago  
len berotua sugarrez,  
ez da oztuko elur zuritan,  
jantzia baidago urrez.

5/ Txiroak gera dirutan baña  
aberatsak maitasunez,  
altxor oberik ez dago ondo  
egon ezker osasunez.  
Bai, andrea, bai egia da ta  
orra or bi gauz aukerez,  
nik maitasuna askoz naigo det  
naiz dirurik eduki ez.



6/ Aurra badegu urte biko,  
jostatzen dabil etxean,  
emen xalto bat, andikan txelet,  
lo artu errenditzean.  
Amak aitaren nola egiten dan  
erakutsi esnatzean...  
Aitak amets au maiz egin zuan  
Ondarretako espetxean.

(1951)

## **IRU ERREGE ETORRI DIRA**

(Doñua: "Uso zuria zera zu...")

1/ Billabonako errira  
iru Errege etorri dira:  
Baltasar, Gaspar, bestea Meltxor;  
zorutzen gaude begira.  
Lotan goxoro gaudela etorri  
zaitezte leio erdira.

2/ Leioan oñetakoak  
amatxok jarritakoak.  
Joan dan urteko erregaliak  
ziran nere gogozkoak.  
Beste oinbeste gaur ere egin,  
Errege biotzekoak.

3/ Au da nere zoramena,  
ain atsegin dago dena.  
Iru jaun aundi aurreko aldean,  
au da eskatzen detena:  
zuen gain dago poztasun dana  
ta utzi nai dezutena.

(1952)

## TOLOSARI

Urte ontako ugoldeen ondorenak latzak izan ziran. Bakoitza bere erriaz oroitzen da.

1/ Tolosa, zera nere  
sorterri laztana,  
Tolosa, zera beste  
erri askoren ama.  
Ibaiak utzi zaitu  
lokaztuta dana;  
burnizko erratzakin  
arturikan lana,  
zikiñak baztartzera  
nator zuregana.

2/ Zu orrela ikusita  
nik artzen det miña,  
iñolaz malkoari  
nere eutsi eziña!  
Urak eraman dizu  
len nekez egiña,  
ta berak utzi dizu  
zauri bat gordiña;  
sendatzen egin zagun  
danok alegiña.

3/ Goiko laguntz ederra  
bekoak artuta,  
jaso zagun erria  
guziok batuta.  
Ez da ezer egiten  
alkar zapuztuta,  
gure neke guziak  
merezi ditu-ta,  
azkar ikusi zagun  
oñak garbituta.

4/ Uran aurretik ziñan  
Gipuzkoako altxor,  
geroztik gertatu da  
izugarria or.  
Txiro dago lenago  
bizi zana jator,  
txiro zegonak berriz  
orain geiago zor,  
ondamenakin ezta  
aberasten iñor.

5/ Urak utzi dizkizu  
milla arabaki,  
oiek nola konpondu?,  
nola erabaki?  
Bota ez duna egin du  
erditik ebaki,  
nolaz zauden Tximelak  
dotore badaki,  
berriz berritu arte  
ez zaude ederki.(1)

. (1953)

(1) Bertso aukerak, Tolosako *Izaskun* aldizkarian argitaratu ziran, 1954 urteko ilbeltzean. Ugolde ori 1953'ko urrian gertatu zan.



Luis Rezola , *Tximela*, Tolosako Iñauterietan (lendabizikoa eskubitik asita).

## **GABON ESKEAN**

- 1/ Billabonako anai maitea,  
entzunez egon begira:  
Gabon gabaz nik eramán nai det  
illun dagona argira.  
Bost pezta eman nai ez baituzu  
jetxiko ditugu erdira,  
ezin bizirik dauden aientzat  
gaizki etorriko al dira?
  
- 2/ Lenengo gora alkate jauna  
ta gero ondorengoak,  
ozturik dauden sendiak ea  
jartzen ditugun beroak.  
Guztion laguntzaren zai daude  
kixkurturikan gaxoak,  
oiek zutituko ditu gaurko  
zuen limosna goxoak.



3/ Danori milla esker ta pozik  
aurrera goaz emendik,  
eskean artutako txanponak  
kontatuaz geldi-geldik.  
Bestentzat iaio biltzen ai gera  
paseaz kale ta mendik,  
ta beste zerbait eman nai dunak  
garaia dauka oraindik.

(1953)

## **BARATZAKO LORE SORTA**

1/ Neskazar erretxinduan gisa  
zabarkeri idatzirik,  
iñon aorik beñere ez jarri  
irabazkitu gaberik.  
Baratz onetan arek etzuan  
batere egin kalterik.  
zure orrian ez det ikusten  
seitik egi bat besterik.

2/ Onek egiten duan lana da  
ixilikan gordetzeko,  
ala obia baratz guzian  
lore ona etortzeko.  
Orlako ekaitzak askotan jota  
arraixkua da galtzeko,  
naiz lore jator asko egon arren  
batere ez dago saltzeko.

- 3/ Loreai ura botatzen die  
egarririk daudenean,  
lengo illetik arkitzen dira  
girorik exkaxenean.  
Geiegi zaindu nai dualako  
sartu zaigu barrenean,  
nai ez duala ondatu ditu  
zeudenak sasoi onean.
- 4/ Nortasun gutxi ote dadukan  
landare gaztearentzat,  
izugarria ez du azaldu  
il dan lore zar arentzat.  
Arixe ainbat azi oneri  
etzaio jalkitzen beintzat,  
galburu txiki galdutik zalla  
dala iruditutzen zat.
- 5/ Giro txarrian nagitutako  
galburu txori maitea,  
ez naiz arritzen baratz ertzean  
ale txarra ematea.  
Lengo buruak emandakotik  
obea degu jatea,  
ta ark jantzitako izkuntz bidetik  
guk apainduaz joatea.

6/ Lenengo ikasi bear genduke  
lurra ondo baniatzen,  
gero azia purran botata  
ikusitzeko ernetzen.  
Bañan ez asi garai baño len  
lore lotia esnatzen,  
amets batean egon liteke,  
ez da errexa asmatzen.

## **AUPA SORO!**

1/ Maiatzaren erditik  
egun bat gerogo,  
berrogei ta amairutik  
urte bat geiago;  
amar eunkorekin  
milla egiña dago,  
beste bederatzireun  
erantsi arago,  
ogeigarren gizaldin  
i txapeldun ago.

2/ Arretetxetik entzun  
nuan partidua,  
riojanoan alde  
zegoan dirua.  
Asieran buruz be  
negoan mindua,  
bukaeran jaso nun  
beso ta burua,  
semeari esanaz:  
"Au dek, au, zerua!".

- 3/ Partidua ikusi  
zuanak txit au du:  
asi orduko zala  
Barberito auldu.  
Obearen ondoan  
egin bear galdu;  
irabaziko zula  
gaur batek esan du,  
aizezko pelotakin  
jokatu izan balu.
- 4/ Ez dakinak jakintzan(1)  
esatera nua  
pelotâko jaiotzen  
dala emengua.  
Nola dan badakigu  
nork bere lekua,  
berriz ere izango da,  
lodi ta megua,  
emen txapelduna ta  
Riojan ardua.
- 5/ Orain nijoakizute  
esate batera,  
nolabait e sustraia  
nai nuke atera.  
Gu joango bagiña  
urez beste aldera,  
atomika nola egin  
aidi erakustera,  
laister giñake danok  
sartuak lurpera.

6/ Jaunak, ez nadin joan  
orren urrutira,  
bakoitzak begiratu  
bere barrutira.  
Naiz dala gañekua  
azpiraño jira,  
emen pelotariak  
beti izango dira;  
kontuz zaitezte etorri  
berriz gure errira.

7/ Txapela gelditu da  
bere iturrian,  
naikoa ondatu da  
egon dan tokian.  
Berriro pozez dago  
jaio zan kabian,  
iñork ez du uxatuko,  
ain dago mamian,  
sortu bezela ilko da  
euskaldun errian.

8/ Eun da bi edo iru  
gramoko pelota,  
lautikan zazpiraño  
ezkerrakin jota.  
Era arrapatzian  
barrenera bota;  
Barberito negarrez,  
jendea saltoka,  
laurekin gelditu zan  
oi ta bi tantotâ.

9/ Barberito jetxi da,  
Soroa goratu,  
txapelketa oberik  
ez degu ezautu.  
Kanpoan zegoana  
orra etxeratu;  
berriz egingo zuan  
emendik egatu,  
Elduaingo semeak  
ez bazun geratu.

10/ Onekin bukatzeko  
artu det asmoa,  
asia dedalako  
berotzen aspoa.  
Txapelduna ikusteko  
badaukat gogoia,  
berari emateko  
zorion beroa;  
danak merezi ditu  
ta aupa Soroa!(2)

(1954, maiatzak 16)

(1) jakitzan: jakin dezan.

(2) Bertso auek paperetan argitaratu ta zabaldu ziran. Moldiztegiaren izena: *Gráficas Gorriti.-Tolosa*. *Auspoa* liburutegian ere agertu ziran, 39 zenbakian, 19 orrialdean.



## **EIZA TA EIZTARIAK**

Eiz kontuak dakarzkite oraingoan, Adunako Elbarrenan gertatuak.

- 1/ Eiz-leku ona dala dakigu  
Adunako Elbarrena,  
ogei eiztari kontatu ditut  
juntaturik alkarrena.  
Mibit kantua, artean illun,  
entzun genduan aurrena,  
luma urrea balitz bezela  
tiroak berriz urrena.
  
- 2/ Lau egabera buru gañean,  
lurreraturik aulena,  
saio ederra egiña dute  
zein iritxiko aurrena.  
Il zutela uste, baña zauritu,  
egiten zuan errena,  
orrelakotan az-ostoa du  
gordeleku ederrena.

3/ Pizti gaxoen paraderoa  
eztegu geroztik jakin,  
bakoitzak biña tiro egin da  
gero erritan alkarrekin,  
Ez gera beintzat gu gizenduko  
oiek botatakoekin,  
amaika miru mantendutzen da  
eiztarien eizarekin.

4/ Sororik soro ortxe dabilta,  
belaz eta baratzetan,  
artean ondo esnatu gabe,  
eizarekin ametsetan.  
Ezer ikusten ezutenean  
ate-zai ibai ertzetan,  
kalte besterik ez tute egiten  
oiek lur aberatsetan.

5/ Izkilludunak gauz bat ona du:  
eztu bildurtzen diruak,  
polbora-etxera ajolik gabe  
egiten ditu jiruak.  
Elurak lurra naiz zuriz jantzi,  
nunai badira tiruak;  
nik etxe alde naiago ditut  
pasa olako giruak.

6/ Tapakik bota zilipurdika,  
ipar aizea artzera,  
Naparranean kopak artu ta  
eguardiz utsik etxera.  
Beren maiteak marmar batean:  
"Ortâko joaten al zera?  
Obea dezu bide ortatik  
lenbailen egin atzera".

7/ Zerbait esaten kantuz ari naiz,  
aspaldi ikasi nun oñez,  
neu eiztaria izandua naiz  
orregatik dakit orrez.  
Elbarrituta jetxi zan arek  
ondo zekian latinez,  
ta zuek berriz, gizon bizkorrak,  
nuntsu gorde zan jakiñ ez.

8/ Orain ogei bat urte mugatsu  
–ikusi nere artea–  
belaz-putzutan jarritzen nuan  
reklamotako atea.  
Zenbat etorri, ainbeste jetxi,  
tirua beti merkea,  
lurrik batere ondatu gabe  
amaika badet botea.

9/ Bein eiztari bat sartu zitzaidan  
meta atzean nengoala,  
makurtu zan da bertan tiroka  
ekin zion bereala.  
Ni albotikan algaraz lertzen,  
esanaz: "Nerea dala!";  
ikusi arte etzun sinistu  
ura egurrezkoa zala.

10/ Orain eztago ordun bezela  
iñolaz ibiltzerikan,  
eizikan ezta ugaritu ta  
eiztaria gogotikan.  
Au esan gabe ezin naiz egon  
azkenean ixilikan:  
urte onenak arrapatuta  
bizi naizela pozikan.(1)

(1) *Zeruko Argia* astekariak, 1967 urteko apirillaren 30'an argitaratuak.

## **ADUNARI**

1/ Bear bezela zu goi jartzeko  
emen natorkizu, Aduna,  
ogei ta amairu urte oietan  
izanik zure laguna.  
Naiz dala Elbarren edo Goiburu  
neretzat zera leguna,  
zutzaz oroituz joango da nere  
munduko azken eguna.

2/ Tolosatikan etorri nintzan  
gerra aurretik lanera,  
ondorenean zure alaba  
emazte artu gañera.  
Or uztartu ta etorri giñan  
Billabonako kalera,  
gaur bi semekin zure albora  
pozikan joaten gera.

3/ Zure kondairan berri nik ondo  
zure semeak bezela,  
narraxkerian ez nintzan joango  
aitormenera bestela.  
Itz batean zu izan da zera  
Euskalerria berbera,  
orreatikan etorria zan  
Aitor zure babesera.

4/ Asia aldean ibili omen zan  
toki billatu eziñik,  
kondairak ala esaten digu,  
ori ondo badakit nik.  
Mundu guzian etzun billatu  
bera añako lekurik,  
orreatikan Aduna artu zun  
"Emengoa naiz" esanik.

5/ Berealaxe asi omen zan  
lur gorrietan nekean,  
danei esanaz: "Ez geldi egon  
tripantzat bear danean".  
Bere artaldea negar malkotan  
arturik aldamenean,  
baztar guziak atxurtu arte  
etzan gelditu lanean.

## **GEREZI LAPURRETA**

- 1/ Aduna beko burni-olako  
porteroari emen nik  
bertso batzuek jartzeko Jaunak  
ez bedit kendu kemenik.  
Gai ontan zuzen jarraitu nai det,  
ez nuke egin nai etenik,  
gaur edo biar utsegin eta  
ez dezadan artu penik.
  
- 2/ Aizazu, Pio, lengo San Juan  
bezpera goizeko gauzik  
etzait aztu ta etzait aztuko,  
esango dizkizut guzik.  
Seitan lanera etorri nintzan  
nere artaldeakin pozik,  
bañan nik ez nun zure arboletik  
goiz artan lapurtu geizîk.

3/ Elorri-adar irutan jarri  
ziñuzenean geziak,  
zorro-zorro zuk egin ziñuzen  
ixilkako ibilliak.  
Laister usaia artu zizuten  
eta etziran txikiak  
Migel Zabalak ostu artean  
pasa zitun inbiriak.

4/ Zuk esan zendun enkargatuak  
ote ziraden ostuak,  
beste bostekin jan nituala  
geziak eta ostuak.  
"Ostu ez baditu, berak agindu"  
zabaldu ziran kontuak,  
zeñi zer eldu ez baizekian  
gure portero tontuak.

(1958)



## **ALKAR IKUSI EZIÑA**

1/ Auzoko gauzak auzoan utzi  
ta errikoak erriko,  
agindu gogoz iñor galtzera  
gu ez gerala jarriko,  
premi danean alkar serbitu  
ta inbiriari ostiko...  
Bide ontara sartu ezean  
galduak gera betiko.

2/ Norbera santu dala uste ta  
beti bestengatik marmar,  
iñola galdu al balezake  
artan bai saiatu azkar.  
Aurretik lagun bezela mintza  
naiz atzetik saldu alkar,  
gorrotoa ta bizi eziña  
askotan onetxek dakar. :

3/ Ez da maitatzen guraso zarrik,  
ez senide ta lagunik,  
ez leike pasa lasaitasunez  
ez gabik eta egunik.  
Ezin suprituz urtutzen beti  
patxaran ezin egonik,  
inbrietan dagon gizonak  
ordu bat ez dauka onik.

4/ "Ni on, i gaizto" auzi orretan  
bata bestearen griña,  
biziro zorrotz darabilgu ta  
azkenerako jakiña:  
asarre oiez orain gorroto,  
alkar eraman eziña...  
Beste kukuak joko liguke  
gizonak izan bagiña.

5/ Animaletan katua degu  
inbrietan dagona,  
aurtxo gaxoai ezin êmanik  
xarpa botatzen diona.  
Ni nazute bat arritu bizin  
bizkar goratuz nagona,  
animalitan animalina  
nola liteken gizona.

6/ Lau ankakoak gaitz ori dute  
ta or konpon ditezela,  
beste aldera guk joka zagun  
gizonak gizon bezela.  
Lenaz gañera inbiriz bete  
egingo gera bestela,  
neretzat onak ez diran gauzak  
errekan dijoazela.

7/ Usai gozoko loreak dira  
larrosa ta krabeliña,  
beren artean arkitzen dira  
kardulatzta ta osiña.  
Kristandadean danok ez degu  
onak izateko griña,  
gure gaitzikan gaiztoena da  
alkar ikusi eziña.

(1958)

## **BI BERTSOLARI TXAPELKETA**

1/ Santo Tomas mugatsu  
Donostira begoz,  
bertsoak entzutera  
joan nintzan gogoz.  
Bota zituzten onak  
ta gañera garboz,  
Basarrintzat txapela,  
artu nuen txaloz.  
Uztapidek an lots,  
etzan alda margoz,  
nik bezelaxe poz  
erabaki angoz.  
Basarri ohea da  
bañan ez askoz.

(1960)

\* \* \*

2/ Berrero Donostin zan  
deiazen kanpana,  
pena nerekin noski  
ara ez joana.  
"Txapelketa jatorra"  
guzien esana,  
lenbizi binaka ta  
gero banan-bana.  
Atzera txaldana,  
aurrera on dana,  
orra ango lana  
erabaki zana:  
oraingoan txapela  
Uztapidengana.

3/ Azpeitiko saria  
ez da aztutzekua,  
badakizute ez dala  
gaur goizekua,  
Udarregi zarraren  
garaietakua.  
Geroztik entzun degu  
Basarrin ujua.  
Marka oraingua  
da esatekua,  
galdu du lekua  
onenetakua;  
Uztapide txapeldun  
alajainkua!

4/ Entzun bear didazu  
orain adiskide,  
naiz dala prantzes izan,  
naiz aberkide:  
berdin bada laguna,  
berdin da senide,  
Basarri al da onena  
edo Uztapide?  
Amaika itzbide  
eman dizkigute:  
onena zein ote?  
Nik onela uste:  
alkarri puska aundirik  
ken ez diote.

5/ Ni ez naiz jakintsua  
zerbait dakitena,  
orreatatik dit askok  
ematen pena:  
"Iri iruditzen zaik  
dakikela dena,  
utsa kolejotik  
baintzakek irtena.  
Ire arromena,  
illun adimena,  
palta dek linterna  
ikusteko aurrena.  
Motel, ez aiela izan  
orren kirtena!".

6/ Uztapide osaba  
bertsolarietan,  
Mitxelena ontxona  
degu illobetan.  
Agirre ta Lasarte,  
ez egon penetan;  
Lizaso sartuko det  
zuen aurretikan.  
Arozamenikan  
aztu gaberikan,  
Lazkanongatikan  
ez zer esanikan.  
Xalbador berriz dago  
oin gañetikan.

(1962)

## **EUSKERARI**

1/ Nere barrengo estutasun bat  
kantuz nai nuke zabaldu,  
Euskal-Erriko anai maiteak,  
nai banazute lagundu.  
Oinbeste urtez degun euskera  
orain nai digute galdu,  
Zeruko Jaunak orrelakorik  
arren utziko ez al du!

2/ Euskerak zenbat urte dituan  
oso jakintsu ez nago,  
beñepein Jesus baño berrogei  
ta amar gizaldiz lenago.  
Aitor izena zuen aitona  
ez da aztuta egongo,  
galdu baño len gozo pixka bat  
ez al diogu emango?



3/ Ez da urrerik, ez da zillarrik,  
mundu onetan dagonik,  
norbere etxean jaun da nagusi  
izatea aña danik.  
Orrengatikan dabiltz etsaiak  
utsegin gabe egunik,  
bañan gutarrik izango ote da  
morroi bizi nai duanik?

4/ Euskaldunaren iturburua  
Tubalen seme Aitor zan,  
aien ezpañen gure euskera  
orain ez bezin jator zan.  
Gure aitonen txiki denboran  
ere alaxe omen zan,  
baita gaur ere erbestetikan  
motzikan sartu ez bazan.

5/ Eun milla urte okerrik gabe  
entzun izan det dirala,  
irurogei ta amar izkuntza  
lurrean jarri zirala.  
Ordukoa da gure euskera,  
artean iñor etzala,  
Tubal zarraren artaldetxoa  
onera etorri zala.

- 6/ Bedeinkatua izan dedilla,  
euskera, zure itzala,  
zuk erakutsi zenidan neri  
zurekin zerbait nintzala.  
Zeruko Jaunak milla urtetan  
gurekin gorde zaitzala,  
zu iltzekotan kale ta mendi  
urak irentsi gaitzala.
- 7/ Zakur obenak il dizkigute  
eta eskopetak kendu,  
orreatikan baratza ontan  
axari askok jaten du.  
Bertako lore ederrenakin  
egiten dira apaindu,  
gure izkuntza entzun nai ezik  
berak nai dute agindu,  
bañan, euskera, etzera oraindik  
buruz oinbeste arindu.
- 8/ Egia esaten, Jauna ez bada,  
ez dit iñork galaziko,  
o, euskalduna, ez ote zera  
noizbait zintzotzen asiko?  
Bide txarretik zer datorkigun  
laister dezu ikusiko,  
uzten bazaio berealaxe  
etsaia zaigu nausiko,  
bañan mundua mundu dan arte  
gurea ez du autsiko.

9/ Izkuntzarikan ez da egiten  
ez erosi ta ez lapurtu,  
o, euskalduna, zedorrek beintzat  
ez dezazula apurtu.  
Gutxi gerala danok dakigu,  
zertâko egin apustu?  
Geronarekin jarrai dezagun,  
bestela etsaia poztu.  
Guretan gaizki nai dunik bada  
berari mingaña moztu.

10/ Aitaren eta otoitzik gabe  
ez naiz beñere lotâtzen,  
guraso zarrak erakutsia  
barrendikan det botatzen.  
Aizan, Mirentxu: beti erderaz  
ez aiz batere lotsatzen?  
Biboteduna aldamenean  
ire burua goratzen?  
Ni aspertu naun alper-alperrik  
alperrai jaten ematen.

(1964)

## ITURRIOTZEN EGUN PASA

Segalariak zirala-ta, Iturriotzen egun pasa. An ikusitakoaz bertso auk, bederatzi puntukoak. Moldiztegi izenik gabeko paperetan zabalduak, eta bost milla arrapazka salduak.

1/ Tolosatik irten da  
Erniora ekin,  
lenbiziko joan nintzan  
aita zanakin,  
andik Iturriotzara  
bost urtetzorekin,  
batzutan bizkarrean,  
oñez nekeakin;  
zoratzen nerekin,  
da ermitatxoakin,  
bere San Juanekin,  
ur sonatuakin;  
zein ez da zoratuko  
toki onekin?

2/ Oitura zarrez goaz  
ostiral santuaz,  
San Juan txikiak utzi  
gabe aztuaz.  
Erniotikan zintak  
gerrian artuaz,  
Iturriotzara danok  
otoitz da kantuaz.  
Ara, ontara guaz,  
zu, gazte, buruaz,  
neska askokin zuaz,  
danak maitatuaz,  
zein ote andretzako  
aukeratuaz.

3/ Agor-illarek zuan  
azken igandea,  
irurogei eta lau  
degu urtea;  
milla bederatzireun  
daukagu betea,  
ogeigarren gizaldin  
bagoaz aurreâ.  
Iturriotz aldeâ  
jokura joan geâ;  
an diru jabea  
ajolik gabea,  
galdu zunak ederki  
dauka gordea.

4/ Andazarraten zenbat  
zan kotxe ta motoz?  
Milla ta lareun bat  
entzunik gatoz.  
Egoaldi bikaña zan  
ez bero ta ez otz,  
orreatikan bete  
ziñan, Iturriotz.  
Zenbat giñan zorrotz  
esateko ez det lots:  
bertako ta arrotz  
–geldituko naiz motz–,  
amalau bat milla  
txapel da motots.

5/ Arpegi zuri pranko  
ikusi nituan,  
txisturik pasa ezin,  
ia ituan.  
Sekretarioakin  
ni lasa nijuan,  
Andazarraten gora,  
tertuli pijuan.  
Gizon bat ujuan  
atzetik genduan,  
esku itxituan  
berde asko zituan;  
danak galduta orain  
dabil zirkuian.

6/ Amaiketan bakoitza  
joan bere salleâ,  
nola segalaria  
ta biltzallea.  
Gu danok jarri giñan  
begira malleâ,  
bien gerri biguñai  
eta masalleâ.  
Beso langillea,  
golpe emallea,  
irabaztallea,  
txiki aundillea,  
zu ziñan nere txalo  
bero artzallea.

7/ Etzan izugarria  
an zegon belarra:  
pixurako motxa ta  
oso baldarra.  
Tarteka burni-zirik  
–beti griña txarra–,  
aiek jo ta larritu  
zan zarauztarra.  
Atera indarra,  
bazuan bearra,  
arrotuz kalparra  
aren su ta garra!  
Erakusle onakin  
mutil azkarra.

8/ Antziñetako gaitzak  
ez dira berriak,  
len ere ongi daki  
Euskal-Erriak.  
Tubalekin batera  
ote etorriak?  
Jarraitutzen du beintzat  
lengo txarkeriak.  
Bai; bertsolariak  
bertan erariak;  
bañan segariak  
beti komerriak:  
noiz ez ditu izango  
burni-ziriak?

9/ Bi orduko lanean  
indarrak berdintsun,  
bañan bitako batek  
galdu bear zun.  
Azken-azkenerarte  
aurretik Oiartzun,  
bere alde dirua  
goitik nuan entzun.  
Belar ohea zun,  
sallak ezagun zun,  
pixkatxo bat zentzun  
an egon bear zun;  
sei segundorengatik  
dana galdu zun.



10/ Biak piñak zirala  
ikusi zan laister,  
jo-aldikan etzuten  
ematen oker.  
Iñoiz edo bein baizik  
begiratu alker,  
nor zegon ikusteko  
nekeakin alper.  
Tirorik gabe zer?  
Ura ez al zan eder?  
Bukaeran ager  
biak egiñik ler;  
amabi kiloz galdu,  
ori ez dek ezer.

11/ Zortzi milla zazpireun  
baidira galanki  
berrogei ta lau t'erdi  
kilo ebaki.  
Markarik etzan ondu,  
belarrak aitzeki;  
bat ez bada, bestea  
izaten da noski.  
Aundia ta txiki,  
biak bai egoki,  
zarauztarra obeki  
naiz berdiña jaki;  
mutilla nola jarri  
Tapiak badaki.

12/ Pixuketa bukatu  
ta artu zuan era,  
korrikalari oberik  
ezin atera.  
Mugatzera jetxi zan(1)  
putrian antzera,  
—etzuan begiratzen  
batere atzera—,  
Paskualtxo artzera,  
mandio-ertzera,  
pozez betetzera,  
dardarra kentzera.  
Tapia jauna, gogorra  
beti izan zera.

13/ An ikusi genduan,  
zintzilik jarria,  
etxea añeko pertza  
berri-berria.  
Barrenen bazegoan  
naiko egaztia;  
plater zopa amar pezta,  
ez da galestia.  
Etxetik jakia  
bezperan jarria,  
beltza edaria.  
ona bazkaria;  
eguna pasatzeko  
au dek tokia!

14/ Askotatik au zan bat  
agurtu genduna:  
bere semearekin  
Basarri jauna.  
Asteasu guzia,  
baitare Aduna,  
erri guzietatik  
bazan ezaguna.  
Dana euskalduna,  
ura edertasuna!  
Jatorra eguna,  
aztuko etzaiguna.  
Au dezute Tximelak  
ikusi zuna.

(1964, agorrilla)

(1) Mugatz, Iturriotztik urbil dagoan baserri bat da.

## ARKIBIDEA

Itzaurrea . . . . .	7
Semeak aitari . . . . .	13
Prantxiskaren atzetik . . . . .	15
Eusko bizitza ta oiturak . . . . .	17
Urretari goraintziak . . . . .	21
Gazte kontuak . . . . .	23
Aritzetako Anttoniori . . . . .	27
Xirriki-xorka . . . . .	29
Libre ala soldadu? . . . . .	37
Gorbean . . . . .	39
Laredon . . . . .	41
Kaiol itxian . . . . .	43
Bakardadeko oroipenetan . . . . .	51
Duesoko espetxean . . . . .	61
Goizero bildurrez . . . . .	65
Gernika eder ori! . . . . .	67
Markiegi ta Azkueren azkeneko itzak . . . . .	69
Dueso . . . . .	71
Dueson, espetxeko nere gelan . . . . .	73
Lota-lekua, nolabaitekua . . . . .	75
Olerkitxo batzuk . . . . .	77
Gorbea nork gureganatu? . . . . .	81
Jueza ta ni . . . . .	83
Txotaren ordez txalduna . . . . .	87
Amari . . . . .	91
"Txerri goseak, ezkur amets" . . . . .	93
Gosearen negarrak ez dira ederrak . . . . .	95
San Blasko Anttoniori . . . . .	111

Urtezar, urteberri, beti berdin . . . . .	121
Espetxeko kontuak . . . . .	123
Duesotik Cadizera . . . . .	133
Espetxetik nere gurasoei . . . . .	137
Nere sendia ta ni . . . . .	141
Nere amari Santa Maria Puertotik . . . . .	145
Tolosaratzean poza . . . . .	151
Europa negarti . . . . .	153
Atxilotuaren txamarra . . . . .	157
Orra azkenean! . . . . .	159
Jexuxa ta bere aizpak . . . . .	161
Nere illobatxoari . . . . .	163
Belaun ezurrean eri . . . . .	165
Desafioa . . . . .	167
Erderaz nunai . . . . .	169
"Pintxana" . . . . .	171
Tranbeetako estraperloaz . . . . .	173
Ondarretako espetxean . . . . .	175
Zuri nere biotza . . . . .	177
Izaskungo Amaren oñetan . . . . .	181
Joakin eta Mirentxu . . . . .	189
Belabietatik iru errege . . . . .	191
Iru erregeei nere agurra . . . . .	193
Emazteari . . . . .	195
Iru errege etorri dira . . . . .	199
Tolosari . . . . .	201
Gabon eskean . . . . .	207
Baratzeko lore sorta . . . . .	209
Aupa Soroa! . . . . .	213
Eiza ta eiztariak . . . . .	217
Adunari . . . . .	221


Gerezi lapurreta . . . . .	223
Alkar ikusi eziña . . . . .	225
Bi bertsolari txapelketa . . . . .	229
Euskerari . . . . .	233
Iturriotzen egun pasa . . . . .	237



1009203

B0-2178-1

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALTZ INDIA
BILBO
67635
1990 URR. 5
1009203



AUSPOA  
LIBURUTEGIA

BO



Luis Rezola Arana

"Tximela"


**BAKARDADEKO  
AMETSAK  
II**

---

Erri-literatura  
Auspoa Liburutegia

---

Bertsoak



**ETOR**

80-2178-II

10236

**BAKARDADEKO  
AMETSAK  
II**

Auspoa Liburutegia  
205



Luis Rezola , *Tximela*.

Luis Rezola Arana  
"Tximela"



**BAKARDADEKO  
AMETSAK  
II**

(Bertsoak)

Zuzendari - Antonio Zavala



EDITORIAL

**ETOR**

ARGITALETXEA

© EUSKO KULTUR ERAGINTZA ETOR S.A.  
Euskal Herria, 2-2º 20003 DONOSTIA

I.S.B.N: 85527-60-7

D.L.:NA. 1577-1989

Irar-lanak: GRAFICAS LIZARRA, S.L. - Lizarra

## **LANDARE-ERRIA**

(Doñua: "Aizak, i, mutil mañontzi...")

- 1/ Zeru goineko argiak  
arturik olerkariak,  
atsegin onez jasotzen ditu  
gauz on etorriak.  
Nere adimen urriak  
esango ditu egiak,  
xorta bat bertso gaur merezi du  
landare-erriak.
  
- 2/ Ortik onera ekarrik  
bada landare ederrik,  
nungoa danik ez da galdezka  
ibilli bearrik;  
ezta ikusten belarrik,  
zailduta dauzkate gerrik,  
txukuntasun au ikusitzen da  
Ibarren bakarrik.

3/ Landarearen nekia  
iñolaz ezin merkia;  
bost, amar, ogei, berrogei ziento  
astero eskia.  
Ibartarren albokia  
beti tratu egokia;  
Amerika egin nai duanantzat  
au dek, au, tokia!

4/ Ibar ertzeko baratzak  
nolaz dauden begira zak:  
kare biziaz txuri-txuriak,  
zer lur aberatsak!  
Goitan orlegi belazak,  
bibelartutzen errezak;  
beiak ez-ezik goiak ez dira  
oso aldrebesak.

5/ Gauz geiago egon arren,  
landarea dago aurren;  
merezi du ta jarri bear det  
Menéndez bigarren.  
Atera nuan aztarren  
da ezin utzi det baztarren:  
botoiak ere egiten dira  
jatorrak Ibarren.



6/ Erantzun, nik galdetzean:

– Aspaldin jator antzean?

– Bai, Tximela, bai, ollo ederrik  
bazeok eltzean.

San Bartolome goizean

etorri adi kotxean,

ezerren paltik ez dek izango

Kolladon etxean.

(1965)

## ALGUZTIDUNARI

Bukatu gabeko sailla:

1/ Lagun zaidazu zeru ortatik  
gure geroko izarra,  
lurrean sortu nintzan ezker  
eman didazu indarra.  
Zure alde naiz egimen utsa,  
daukat aitortu bearra,  
ama ta aita izan nituan  
baña zu Jainko bakarra.

2/ Ludi eder au egin zenduan,  
gero joan ziñan betiko,  
beti burrukan nola gabiltzan  
ortik dezu ikusiko.  
Lege jatorrak ondo betetzen  
beñere ez gera asiko,  
zure alboan exeri arte  
ez baidegu ikasiko.

3/ Guregandikan urrun ain ezik  
naiz gogoz egon urrean,  
ikusten dezu zutar ta ezta  
gabiltzala egurrean.  
Zure izena erabiltzen da  
egi ordez gezurrean,  
paltsokeria nabarmen dago  
egin zenduan lurrean.

4/ Bost egal dira geroztik sortuk,  
bostak alkarren antzeko,  
aietatik bat zein ote degu  
onena aukeratzeko?  
Bostetan beti odola ixuri,  
berdin dira neretzako,  
gizonen esku lagata dago  
egin zenduna galtzeko.

5/ Azken auziaren beldurrikan  
batere eztauka jendeak,  
gizonak ainbat badakiala  
iruditzen zait erleak.  
Naiz zerutikan sarritan bota  
goxo dituan aleak,  
emen lurrean oinpean daude  
utzi zenitun legeak.

6/ Arraza danak egin zenitun,  
gure alkartu eziña;  
o, gaur zerbaitek ematen badit,  
onek ematen dit miña.  
Nunai odolez lurra bustita,  
indarrean dago griña,  
orlakorikan etzan izango  
zuretar onak bagiña.

7/ Zuk utzi zendun garaietan au  
dana zegoan ur loa,  
geroztik iñork eztu estali  
utzi zenduan zuloa,  
ta estaliko ez da gañera  
naiz batek euki gogoa...

(1965)

**BASARRI JAUNARI  
TXIMELA KANTARI**

Basarri: Gernika. Uztapide: arbola. Eta besteak morroiak. Moldiztegi izenik gabeko paperetan zabalduak, eta bost milla salduak.

1/ Eizmenditar Iñaki,  
zu zera Basarri,  
Errezillen jaioa,  
Aiakin mugarri.  
Berrogei ta amaika urte,  
zaude sasoigarri,  
Zarautzen bizi zera,  
etzaude lur gorri.  
Deitzean etorri,  
Uztapide ekarri,  
bertsotan alkarri  
plaza alai jarri;  
gero jakingo degu  
alkarren berri.

2/ Au da nere iritzia,  
Basarri maitea,  
ez dana esatea  
nêtzat kaltea.  
Dan bezela esateko  
badaukat artea,  
bederatzi puntuan  
jotzen det atea.  
Zarra ta gaztea,  
senar ta emaztea,  
dei zagun bateâ  
egiñik pakea:  
gora Basarri jauna  
ta gizartea!

3/ Gizartean biltzean  
alkarri erakutsi,  
jakinda kopetik ez  
beñere igurtzi.  
Edoziñen aurrean  
oso da itxusi,  
euskera jatorrean  
txolinkeri gutxi.  
Inbiriak utzi,  
buruz gizon jantzi,  
ez jarri muxurtzi,  
aurrak bezelaxi;  
Basarriren aurrean  
txapela erantzi!

4/ Ez dakina zertâko  
ari ezdabaika,  
dakina ez da egoten  
oso lasai ta?  
Gizarte jatorrean  
aurrera jarraitu,  
danon maisu bezela  
bear degu maita.  
Dagon arte gaita,  
bertsotan alai ta,  
iritxi garai ta  
esan bear baita  
Basarri dala bertso-  
larien aita.

5/ Gure pitxia zera,  
ez dezu grandezi,  
zuregatikan degu  
asko ikasi.  
Gizontasuna dezu  
beti erakutsi,  
ta txolinkeri guzik  
bartzarrera utzi.  
Bertsotan lenbizi,  
urtetan nagusi,  
orrenbeste grazi  
dezu irabazi;  
alare askok ezin  
begiz ikusi.

6/ Len ere badituzu  
–ari naiz urruka–  
Prantzitik ekarriak  
txapel da kopa.  
Egin zendualako  
kantuzko burruka,  
zu onena izana  
nik al daukat kulpa?  
Andik ez muturka,  
ain gutxigo egurka,  
baizikan agurka  
artua ez uka:  
erregali ederrak  
bertsoen truka.

7/ Zuregana nabarmen  
dago inbiria,  
ezin êmanik daude  
zure ibilia.  
Argitasun gutxiko  
adimen urria,  
berdin deitzen diote  
beltzari zuria.  
Burua nagia,  
tonto eroria,  
uste izugarria,  
autsi gaituzte ia;  
oiekin nola jaso  
Euskalerra?



8/ Ala esaten dute:  
Basarri dirutan,  
len bitan zegoana  
orain irutan.  
Ezin êmana beti  
bada ingurutan,  
ez al da ikusten nor dan  
bere liburutan?  
Gure jokuetan  
sartzen da benetan,  
ez dago penetan  
jokatu gabetan;  
xoxik ez du jasotzen  
apustueta.

9/ Izan gaitezen bear  
bezelako piñak,  
da ez bizi besten ona  
êman eziñak.  
Danok izan giñuzen  
ponteak berdiñak,  
ikastolatik ere  
Jesusen dotriñak.  
Betiko aztu griñak,  
artu ondo egiñak,  
ez izan txoliñak  
ta izketan ariñak;  
ortik etortzen dira  
buruko miñak.

10/ Tertuli bat entzun det  
gezurrez betea,  
eskerrak zabalikan  
zegola atea.  
Lau lagun ari ziran  
laurak jo ta kea:  
"Basarrik apustutik  
nai du aberastea".  
Au da esatea,  
gezurra jatea,  
tertuli merkea  
berentzat kaltea;  
ortarako bakarrik  
dute artea.

11/ Izparregiña dezu,  
dezu radiua,  
berriak emateko  
zera iaiua.  
Zerbait galtzen danean  
zuri abixua;  
berdin jokua bada,  
naiz desapiua.  
Euskeraz saiua,  
jakin da iua;  
zu zera erramua,  
itzal da errañua,  
euskera indartzeko  
mundun jaiua.

12/ Donostira joan nitzan  
bertsoengatikan,  
txapelketa zala-ta  
goiz-goizetikan.  
Beatzitatik Txikia  
gelditu aurretikan,  
txalo gogotik bazan  
Goierri aldetikan.  
Lan asko egiñikan,  
Uztapiderikan  
autsi gaberikan  
Iztuetangatikan;  
lengo zarra txapeldun  
dago oraindikan.(1)

13/ Luze ta lodiari  
ez jarri begia,  
metroakin ez baida  
artzen neurria.  
Aundiak euki leike  
burua lotia,  
ixpillutzat ar zagun  
Lazkao-Txikia:  
adimen argia,  
goxoa eresia,  
bigarren tokia  
ongi merezia;  
damurikan ez dauka  
geigo ez azia.

14/ Entzulea berotu  
Matxaiñen bertsoak,(2)  
Basarri ateratzeko  
ango txaloak.  
Mitxelenak beste bi  
jator da gozoak,  
"negarrez nator" bota  
ziguan maixuak.  
Biotz berakoak  
ixuri malkoak,  
alako koadroak  
dira ikustekoak;  
urte askoan zaitzala  
gorde Jainkoak.

15/ Lopategi gaztea  
au da Bizkaikoa,  
bertso onena au zan  
botatakkoa;  
Mattinekin pelean  
ibilitakoa,  
saria eraman zun  
merezitakoa.  
Etorri aundikoa,  
iturri onekoa,  
au ez da uztekoa  
ta tok bostekoa,  
utzirikan alde bat  
Anoetakoa.

16/ Gora Uztapide zarra,  
Manuel Olaizola,  
bertsoetan txapeldun,  
bejondaizula!  
Maixuan antzekoa,  
bai arraiopola,  
zu zera itz batean  
bertsoen kaiola.  
Betea dagola  
zure buru bola,  
kantuakin orla  
guk ezin iñola;  
Basarri da Gernika  
ta zu arbola.

(1965, ilbeltzak 3)

(1) Txapelketa au 1965'eko urteberri egunarekin ospatu zan, Uztapide txapeldun eta Lazkao-Txiki bigarren gelditurik.

(2) Tarte batean, epai-maikoak kanporatu ta erabakia artu bearrez ari zirala, Manuel Matxain bertso jartzalleak bertso bat bota zuan, Basarrik kanta zezan eskatuz. Önek ez baitzuan txapelketa artan parterik artzen. Ala, berak ere kantatu zuan.

## **PERRETXIKUAK**

1/ San Blasen jaio ta azia naiz,  
etxe atzean basoa,  
oñez ikasi nuan orduko  
perretxikutâ pausoa.  
Ordutan antxen bildu ta bildu,  
atozka amatxo gaxoa;  
etzaitut aztu, goiko pagadi,  
ain ziñan toki goxoa!

2/ Udaberrian azaltzen zera  
aurrena zu, xixa txuri,  
zenbat maitasun usai egiñaz  
egiten dizuten zuri.  
Biltzalle danon ameslaria  
osin tarteko eder ori,  
neguan ere antxen zaudela  
iruditutzen zait neri.

3/ Zu zera, xixa, ondo alare,  
perretxikun erregiña,  
beste janari asko bezela  
lur goxo beltzak egiña.  
Baserritarrak zerala dio  
sasi berriko sorgiña,  
tokiz aldatzen egiten dezu  
beintzat naiko alegiña.

4/ Jatorriz margo zuria dezu,  
otzak zaitula gorritzen.  
tapakitâko iñoiz elurra  
ta ez naiz batere arritzen.  
Ondoreneko ebi epelak  
berriro zaitu txuxperten,  
giro guzitan ederra zera,  
usaia etzaizu galtzen.

5/ Xixa erregin, kuletro errege,  
aitortu bear egitan,  
oien ondoren gibelurdiña  
ta unto beltza kapitan.  
Laukote ori baño oberik  
ez dago nere begitan,  
katalan jana ona izan arren  
ez naiz sartzen piñuritan.

6/ Kuletroa da ollo-arrautza  
dirudiena kolorez,  
toki jakiñetan jaiotzen da  
baña ugari beñerez.  
Lertzen danean txar edo ona dan  
ezagututzen da errez,  
pinportarikan ez baldin badu  
jateko ez egon bildurrez.

7/ Janari onen berri oraindik  
ba ote daki gizonak?  
Deskuido latzak gertatzen dira  
bilduagatik ontxonak.  
Ez det nai iñor dardar jartzerik  
baizik entzun esan onak:  
perretxikurik ez dezala jan  
gibeletikan dagonak.

8/ Xixa oria azpi irikia  
–tarteana bada itxia–,  
jaten badezu, gaitz egin baietz  
egon zindezke etsia.  
Lagun bat badet iltzen egona  
ta orra aren iritzia:  
"Perretxikuak, nai duanantzat;  
aurrena nere bizia".



9/ Biltzalle onak ekartzen ditu  
zabalak eta extuak,  
egun bikoak, lauakoak berdin,  
arraia bezin prexkuak.  
Zertan alperrik unto baldarrez  
goraño bete xextuak?  
Gutxi ta onak atsegin ditut,  
bestentzako arrixkuak.

10/ Arrubioak kutsututako  
unto ala gibelurdin,  
garbitu gabe beñere ez jarri  
tartera edo zartagin.  
Koska nabarmen kutsu gordean,  
dana kendutzen alegin,  
nai ez badezu beneno bidez  
mundu ontatik aldegin.

11/ Arrubioa ez dakianak  
zer dan nua esatera:  
margo illuna, arrai orixtak,  
muskarran ibilliera.  
Ur geldi edo zingira maite  
dituna geina da bera,  
sargoï danean alper motela,  
ez du ederra tankera.

12/ Biltzeko egoaldi txarrenak dira  
terral, ebi ta ekaitz laño,  
giro onari ez diou noski  
asko begiratzten baño.  
Jateko berdin-berdiñak dira,  
bete egin bear goraño,  
asto-tankera badegu bañan  
etzagun euki ortâño.

13/ Oitu gaitezen gogorak biltzen,  
usteltzen utzi bigunak,  
naiz onak izan beñere ez jaso  
intzak saretzen ditunak.  
Bestela ere etortzen dira  
nai gabe ordu illunak,  
arnasa kentzea ohea da  
arnasa eman zigunak.

14/ Gizona bezin azkarra degu  
ezagututzen ardia,  
txarra utzi ta ona jaten du,  
sasoizkoa ta garbia.  
Ez du bareak bezela uzten  
alperrik galduta erdia,  
tontogoa da unto gañera  
pixa egiten dun erbia.

15/ Kuletro geina ateratzen da  
Naparroako partean,  
Illarratzutik areaxego,  
urrill-untoen tartean.  
Ogeitik gora bildua nago  
guziak toki batean,  
"au dek, au, sendi zoragarria!"  
esanaz nere artean.

16/ Poz ederrikan eman zidaten  
beste batean untuak,  
San Martiñetan Aduna mendin  
urki azpin billatuak.  
Sei ziran danak, pixatu zuten  
txit lau kilo goratuak,  
etziran txarrak jai-goiz artako  
jendean begiratuak.

17/ Jai degunean joaten gera  
pozikan eldurik goizai,  
eiztaria bezela askotan  
goian noiz argituko zai.  
Kalean berriz gelditzen dira  
ez dakit zenbat tripazai,  
gu noiz baño noiz andik jetxiko  
baxoerdi eraten lasai.

18/ Kondairak ez du ezer esaten,  
onela degu entzuna:  
perretxikua izandu zala  
Iparragirre il zuna.  
Bear bezela ez dakigu ta  
neroni nago mintsuna,  
ura baizan bat, ura alakoa,  
beñere il bear etzuna.

19/ Aranzadiko talde jatorrak,  
orain bi urte Tolosan,  
badakizute klase guzien  
txapelketa bat nola zan.  
Biltzalle geinok an bildu giñan  
ta onela ziguten esan:  
"Perretxikua mendikoa da  
ta kontu aundia izan!".

20/ Orra ogei bertso berri nereak,  
izena dute laukuak;  
aspertu naiz ta lotara noa,  
bukatu dira gaurkuak.  
Biotz-biotzez opa dizute  
Tolosako San Blaskuak  
guziori on dagizutela  
aurtengo perretxikuak.(1)

(1965)

(1) Bertso auk, paperetan zabaldu ziran lenengo, moldiztegi izenik gabe, baña bai beste argibide onekin, orduko legeak eskatzen zuanez: "N.R. SS. 660/65".

Urrena, *Zeruko Argia* astekarian agertu ziran, 1965 urteko abuztuaren 1'ean, zenbait aldaketarekin.

## LURTARRAK ILLARGIRA

Lurtarrak ari dira illargira iritxi eziñik. Batzuen iritziz, orren muga aundiak gizonak austeaz eziñezkoa. Ni, berriz, ziur nago laister gurea izango dala.

Illargiarekin, Amerikarekin bezelaxe gertatuko zaigu: garai batean ez-ezagun, eta orain amar ordun.

Amaikagarrenean Aita Arrupe aitutzen det. Au, jesuiten buru zegoana zan. Japongo Hiroshiman, lenengo atomikazko bonba lertu zanean, an zegoen bera. Beraz, testigu edo lekuko degu.

1/ Uzturretikan berago nago,  
Izaskun bidez erdira,  
aize babeski txoko batean,  
goi urdiñari begira.  
Tolosa aldera burua bota,  
eskua eltxo ta elbira,  
Uxatu arren, lañezturikan  
berriro etortzen dira,  
bertso jartzera axkuretarren(1)  
albora nator mendira.

- 2/ – Euskalerriko bazter ontatik  
zer dizkiok, bertsolari?  
– Bakardadeko oroipenetan  
nik buruauste ugari.  
Urte gogorrek ote datozen  
beldurra datorkit neri,  
gizon azkarrak illargiratzen  
or dabilta proalari,  
lurrean berriz gudako kantu  
triste guziak kantari.
- 3/ Illargia da lurreko alaba,  
bere gixa ote sortua?  
Munduaren bost aldetakoak  
belauniko agurtua.  
Ainbeste milla kilometrora  
dago urrutiratua;  
itai antzera ikusten degu  
erdi eta osatua,  
zu izango zera laister, illargi,  
gizonaren ostatua.
- 4/ Zu zera, illargi, gabero argi  
onera egin zalea,  
oñezkoaren gidari maite,  
eguzkian neskamea.  
Iñoiz ikusten zaitut zaudela  
lotsa antzean gordea,  
ez naiz arritzen, zein len dabilta  
zuregantzen jo ta kea,  
obe luteke zu lo utzita  
lurrean egin pakea.

5/ Lurra or konpon; ez tie ajolik  
joan nai badute orruntza,  
zure ixilpoltsa maxiatuta  
ostera etorri onuntza.  
Susmurra dabill zu etzaudela  
uste zuten bezin utsa,  
urreakin egiña dala  
diote zure gorontza,  
orrela bada eztezu ona  
izango emengo laguntza.

6/ Eztira oso makalak izan  
tresna berriaren gatzak:  
iru egunean illargiratu,  
sortu dira pizti latzak.  
Txitoen billa jetxitzen diran  
bezelaxe zapelatzak,  
arkaitz tartean apatx egin du  
zabaldurikan egatsak,  
orra azkenean egi biurtu  
Julio Verne'ren ametsak.

7/ Lenengo gizon bat igoko da  
ta gero danak sallean,  
zartakorikan eman ezean  
illargiak masallean.  
Asieratik jakintsu oiek  
ango urre usaiean;  
Kolonek egin zuen berbera  
amerikâtu zanean:  
gauzik onenak bereganatu  
erregiñan izenean.



8/ Goi uts orretan eztago lurrik,  
ezer eztago jateko,  
itxasorik ez, Kolon bezela  
arraia janez joateko.  
Bakarrik daude tresna bikañak  
emen egiñak arako,  
lurrari opor egin diote  
goia ohea dalako,  
txarren aziak an ere pujik  
eztu emango onerako.

9/ Nere denboran ezagutu det  
lurrean naste-borraste,  
Europar eztanean Asian,  
Afrikan beste ainbeste.  
Amerikan da Ozeanian  
beñere onik eztute;  
dolartarra da artzen duena  
naspilla guzitan parte,  
oraintxen bertan Vietnam aldera  
begira jarri zaitezte.

10/ Danok dakigu ez goazela  
guziok toki batera,  
ezta xamurra alkar artzea,  
iru milla milloi gera.  
Bi ziranean odola ixuri,  
ortik kontuak atera;  
beñere ez gera noski bilduko  
Jesukristoren legera,  
odolarekin asi bagiñan  
odolakin bukaera.

11/ Polbora sortu artean emen  
lizar-makillak dantzari,  
gero izkillu ta egazkiñak,  
gaur gizona egalari.  
Beian bizitza txintxilikatu,  
goian diru-arrokeri;  
obe genduke gudak bukatu  
ta utzi atomikari,  
orren indarra nolakoa dan  
galde Aita Arruperi.

12/ Agur, mendi zar, arri ta belaz,  
beste bat arte, lizardik,  
osasanaren onerako izan  
neditzan gaurko izardik.  
Agur, illargi, talo eder ori,  
neretzat nere ler-aldik,  
ta bat-batera datorkidana  
eztizut esan oraindik:  
aurrera ere argi egiteko  
eskatzen dizut emendik.

*Zeruko Argia*, 1966, epaillak 27.

(1) Axkure-emaleen albora, alegia.

## **PENTSAKIZUNAK**

- 1/ Baserritarrak giro danean  
gogor ai dira labrantzan,  
itxasokoak al dutenean  
saiatzen dira arrantzan.  
Kalean berriz ajolik gabe  
zurrutean eta dantzan,  
Jaun Zerukoa begira dago  
guziok nola gabiltzan.
- 2/ Baserritarrak galduko balu  
lan egiteko gogoa,  
gari tartean sortuko zaio  
kardulatza ta oloa.  
Perira maiz joan lana utzita  
egiñagatik giroa,  
era onetan zintzotuko dek  
kaleko jende eroa.

3/ Iñaurkin oiek orain mendian  
alperrik ai dira galtzen,  
pozikan bilduko lutekenak  
gerrara ai dira bialtzen.  
Lenago nekez sendotutako  
lurrak ai dira argaltzen,  
era onetan zail izango dek  
oinbeste alper mantentzen.

**SAN BLAS AUZUA,  
NERE BIZI TA JOSTALEKUA**

(Doñua: "Aizak i, mutil mañontzi...")

1/ San Blasen buruzagitza  
daukanak ikusi bitza  
bertso berritan nola izan zan  
gure gazteditza:  
batzutan tonto biritza,  
bestetan biurkeritza,  
gazte txoroen buruan beti  
txoriak dabilta.

2/ Nola aste ala jaietan,  
baserri maite oietan,  
urruti gabe or giñan beti  
edo geienetan.  
Goxo, pozik jolasketan  
ibiltzen nintzan gaztetan,  
amaika xalto aterea naiz  
goiko belazetan.

- 3/ Naiz elur, berdin eguzki,  
zeñek etxean eduki?  
Jan da jostatu, beste lanik ez,  
egiñaz biurki.  
Lagun bat nuan xaxarki,  
erakutsi zidan txarki,  
Jaunaren esker aren ondoan  
ez naizela arki.
- 4/ Etxe ondoan lugarri,  
auzoarekin mugarri,  
gaur adiskide, biar asarre,  
olloak aztarri...  
Sasian arrautzak jarri,  
guk berriz artu ta ekarri,  
gordiñak jan da paseak gaude  
biok naiko larri.
- 5/ Aitzetan giñan alkartzen,  
geren buruak argaltzen,  
neska gazteak gure atzetik  
zarbastakin jotzen;  
gora zituzten jasotzen,  
nunbait indarra etortzen,  
an ikasi nun lendabiziko  
zartakoak artzen.

6/ Gu eskolatu berritan,  
piperra egin erditan,  
gaiztakeria ikasitzeko  
ezta alakorikan.  
Danborrak artu gerritan,  
alkate jauna erritan,  
bere aurrean jotzen genduan  
amorraizirikan.

7/ Martin, Antton da Blax eta  
Miel Mari ta ni antxe-ta,  
erdi botean utzi genduan  
Intxaustin kaxeta.  
Txarkeriz ezin aseta  
beti olako klasetâ,  
ango gaiztona kapitana zan:  
Patxi Aritzeta.

8/ Beste bein, au da polita,  
uso isats motzak bixita,  
talde-buruak bi sorta zeuzkan  
tiroz eratxita;  
ni, mikelete jantzita,  
beko bidera jetxita,  
gari tartean utzi zituan  
altoka segita.

9/ Naiz dala galdu abarkak,  
bizkorrak zituan anakak,  
Leaburutik entzun zituzten  
aren zalapartak.  
Mutillak bear ditu prakak  
egiteko olako tranpak,  
ori zala-ta egin nituan  
betekâ galantak.

10/ Ni nintzan kaldererotan,  
alako urte erotan,  
*txantxo* jantzita plazâtu zana  
bein bai, ez geiotan;  
aiton-amonak leiotan  
algaraz txalo berotan,  
gaztedi dana berriz dantzari  
Lezearen bueltan.(1)

11/ San Blasko etxe atarin  
ikusi nuan Kattalin,  
bere aizpakin nola zebillen  
dantzan arin-arin;  
krixkitin soñu poxpolin,  
baban beldurrak aldegin,  
gaur *minigonak* alako pesta  
eztute atsegin.



- 12/ Begiratuaz ixpillun,  
nere burua ixtillun  
jarri nun, baña lasatu nintzan  
neska baten kiñun.  
Nere begiak ez illun,  
naiz ankik jarri ezin iñun;  
zilipurdika erori nintzan  
Aitzetako ikullun.
- 13/ Ikullutikan atera,  
mikeleteak galdera:  
"Kaldererotan txantxo jazteko  
erotu al gera?".  
Lotsaturikan batera  
korrika biak kalera...  
Apenas aiek geigo joan diran  
txit San Blas aldera.
- 14/ San Blasa joan nintzan moroz  
jantzita neronen gogoz,  
"atozte" deika nigandu nitun  
amabi neska motz.  
Loitan xaltoka plisti-plost,  
ajola baizitzaigun bost...  
Orain negarrez bizi gera ta  
ordun oinbeste poz.

15/ Gizonezkoak, alarma  
jota, makillakin arma;  
bañan eskerrak alkate jaunak  
eskatu zun kalma.  
Ta gero San Blasko ama  
nigandu zan da zun asma:  
"Moroen tankera badu, baña  
au ez da fantasma".

16/ Ipiñi ditut prankezan,  
alkateak jakin dezan,  
iñon galdezka ibili gabe,  
gaiztoena nor zan.  
Lagun zarrak, onak izan,  
jarraitu bear dan gisan,  
ipui geiago badauzkat baña  
danak ezin esan.(2)

(1) Lezea, Tolosako txistularia zan garai artan.

(2) *Zeruko Argia* astekarian, 1967 urteko otsaillaren 5'ean, bertso auek argitaratu ziran, 12, 13, 14 eta 15'garrena izan ezik.

Aste artan bertan, Basarrik, *La Voz de España* egunkarian, *Nere Bordatxotik* izeneko saillean, onela zion:

"*Ni pekataria* esaten askok eztegu jakiten. Adunan bizi dan nere lagun Tximela tolosarrak badaki. Garbiro ikusi det orixe aste ontako *Zeruko Argia*'n. Gazte denborako biurrikerien kontu emanaz datorkigu Tximela. Amabi bertso moldatu ditu gai ortan. Usoz beteta ikusten zitun eiztariei zer egin bazekien Tximelak. Egun batez, aietako bati, estuasun ederrak erakutsia izan bear zun. Bi sorta eder ikusi zizkion eiztari bati. Nik eztakit erropak nun billatuko zitun. baña Tximela mikelete jantzi zan, eta, "*Alto! Alto!*" orru bapoak egiñaz, ekin zion eiztariaren atze-

*San Blas auzua, nere bizi ta jostalekua*

---

tik. Eiztariak, kargak arintzeagatik, gari tartean sortak utzi ta iges, al zun tokira. Abarkak galdu bazitun ere, mantsoagatik ezkutatu omen zan. A, pikaro aundia!

Zu bapo, sabela usoz beteta, mikelete jantziz baliaturik. Alare, pekatuak aitortu dituzu, ta barkatua zaude. Beste bat jotzen dezu gaiztontzat, baña aren urrean izaten ziñan zu ere. Ta... ainbat urte igarota gero, alkateak jakin dezala zuek zer ziñaten. Beajondeizula, Tximela! Zure umoreak ez du gutxi balio".



Luis Rezola, *Tximela*, Tolosako Iñauterietan, bertso kantari.

## INBIRIA

(Doñua: "Iparragirre abilla dala...")

1/ Donostitikan oneraxego,  
Tolosatikan arago,  
tarte ontako erri batean  
oitura itxusia dago.  
Bat bizi bada egiz,  
ezin ikusi begiz;  
arritu bizian nago  
nola liteken edukitzea  
gezurrak indar geiago.

2/ Erriak eztu aitzakirikan  
angotar batzuek baizik,  
sagar ustela baldin badago  
kulparik eztu gereizik.  
Onela ikasi zagun,  
arrotz eta ezagun,  
morroi bezela nagusik,  
egimenean uxaturikan  
burutikan gezur guzik.

3/ Eztan gauzikan etzagun esan  
ez an, ez emen da iñun,  
ez dezagula burua euki  
argi bearrean illun.  
Esnatu bein betiko  
ta gezurra da ilko,  
gaitz ori galdu dezagun,  
bestela ez dakit inbiripean  
zer ikusi bear degun.

4/ Gorrotopean dagon kristauak  
sumatzen ditu bereak,  
egia nundik ankaperatu  
buruan bere nekeak.  
Au izan da ura esan,  
jendeak jakin dezan,  
inbiriaren jabeak;  
beñere ez gaitu engañatu  
orlako etsai pobreak.

5/ Bertso berriak kantatu gabe  
ezin det pasa egunik,  
ta ez det uste kristandadean  
oitura txarra degunik.  
Proatu ziran batzuk,  
ustez gizon burutsuk,  
baña ez da jaio oraindik,  
mundu onetan oitura au gabe  
ni engañatuko naunik.

6/ Ni ibiltzen naiz paperak saltzen,  
neronek jarrik bertsoak,  
beñere ez dira palta izaten  
alboan mingain paltsoak.  
Inbiritan dagona  
beñere ez da ona,  
gizon izeneko atsoak;  
emakumeei aitzaki eman,  
oiek aien legekoak.

7/ Gipuzkoako erri batera  
bein joan nintzan kantari,  
ni joan da ango bat ari omen zan  
etziran gauzak kontari.  
Zeñi ta lagun bati,  
anka sartzen da beti,  
surikan gabeko kea.  
Ori da gure artean dagon  
gerra ixilleko pakea.

## MARIA LURDES IRIONDORI

(Doñua: "Iparragirre abilla dala...")

1/ Iriondotar Maria Lurdes,  
zuretzat nere bertsuak,  
merezi bezin sakon da garbi  
eskeñiz nua batzuak.  
Urnietako lorea,  
nun beste bat ohea?  
Gaur Euskal-Erri osuak  
atsegin aundiz entzuten ditu  
zure abesti gozuak.

2/ Garai batean Iparragirre  
zan gaur zu zeran berdiña;  
erriz-errira ibillitzen zan  
zu bezelaxe, jakiña.  
Dezun arte indarra,  
zuk ez utzi gitarra,  
ontan egin alegiña;  
bakarra zera gaur euskerazko  
abestien erregiña.



3/ Urrilla joan da negu illuna,  
tristura dator guregan,  
gu poztutzeko utzi dezagun  
itxaropena zuregan.  
Gu zurekin anaitu,  
zuk gu berriz alaitu  
zedorrek dakizun eran;  
gitarratxoa entzun orduko  
jarriko gaituzu egan.

4/ Azkeneko aldiz Billabonara  
etorri ziñan gabea,  
aitona batek onela zidan:  
"Zer dago onen aubean?"  
Mingañean abesti  
ta ezpañetan ezti,  
buru dana argi batean;  
gitarrarekin protestatzen du  
Erriko Etxea atean.

5/ Emeki eresi gozoarekin  
miatzen dezu biotza,  
aitona zegon begi bustita,  
gañera lanturu-otsa.  
Nik esanik: "Zuri on  
ez dizu egin, aiton;  
nerekin atoz aruntza.  
Emozioak ekar lezake  
zuregana eriotza".

- 6/ Une artantxe bukatu zendun  
gitarraren astinketa,  
bitarte artan nere buruan  
bazan milla naspilketa.  
Aitona sano dago,  
ni berriz pozik nago  
laguntasuna beteta.  
Berriz etorri nai dezunean  
guziok zai gaude eta.
- 7/ Apaltasuna ta irriparra,  
izketan oso sakona,  
neskatasuna zerekin beti,  
ori da bearrezkona.  
Gazteak zure alde  
egiten dute galde:  
nundik dator orren ona?  
Gure izarrak artzen jakin du  
zeruak eman diona.
- 8/ Zedorrek jarri, zedorrek kanta,  
eztezu iñon bearrik,  
naiz-ta entzuten bi ordu pasa  
gelditzen gera egarrik.  
Zuk eztezu aseko  
iñor nere klaseko,  
ezpaita sortu besterik,  
lengotako bat kendu ezkerro  
zu bezelako ederrik.

9/ Zugaitza zarrak eun urte bete,  
eun da amarrera dijoa,  
alare eztu indarrik galdu,  
bota du puja pijoa.  
Beti dago orlegi,  
askorentzat gordegi,  
ez dago pipiak joa;  
puja ederraren prutua zera  
ta bukatzera nijoa.

## PLANETAK

Bart amets egiña det. Ara or: ikusten ez det, ba,  
amona bat illargirako bidean? Beste munduetaraño  
eldu naian zijoan gaixoa.

- 1/ Asi gera gabeko  
amabiterditan  
kilkirra kantari ta  
ni bertso berritan.  
Egoaize lamarekin  
esnatu sarritan,  
ametsetan nebillen  
kartoizko zalditan.
  
- 2/ Amon bat ikusi det  
lañopetan sartzen,  
bere matxardarekin  
illargiri eltzen,  
talo-burni batekin  
joka dana ondatzen;  
orain Donostin dabil  
gezurrak kontatzen.

3/ Illargin ba omen daude,  
bai, gizon galantak,  
aiek segi ta noski  
onen zalapartak!  
Gerriz gora lau metro,  
irukoak ankak,  
geizi-lapurretâko  
dirade apartak.

4/ Egunetan egon zan  
autsetan gordia,  
etortzeko atea  
billatu ordia.  
Ta gañera korrika  
amona abia,  
atzetik omen zuan  
Altzoko aundia.

5/ Beste bein proatu zun  
Venusa joatea,  
jateko asmoetan  
ango tomatea.  
Ikusi zuanean  
zabalik atea,  
ura omen zan, ura,  
tomate jatea!

6/ "Lurretik Venusera  
egoaizeak nau bultz,  
ezta, ez, berriketa  
igotzea onuntz.  
Lurretik uste arren  
au dana dala uts,  
bidean arki ditut  
eun milloi astaputz.

7/ Emen jana badago,  
ni ez nabil gosez,  
bazkari ona egiña  
nazute San Josez.  
Marte aldera noa  
ikusteko pozez,  
ea billatzen dedan  
nunbaitean Moises".

8/ Esan du nai duala  
ezautu Jupiter,  
bein joango da bai noski,  
ez beintzat bi bider.  
Aspaldi billa dabil  
kaiolako kilker,  
musika xelebren bat  
emen degu laister.

9/ "Oraindik falta ditut  
Pluton da Urano,  
Merkuriotik barrena  
joko det Saturno.  
Izarretara eltzean  
lurrerako turno,  
emengo berri dana  
esango det ondo".

10/ Okurrentzia zuan  
amona gaxoak,  
lurretik egiteko  
arako pausoak.  
laister emen degu ta  
zabaldu besoak,  
beti eztira izaten  
olako kasoak.

11/ Antolatzen asi naiz,  
nago ameslari,  
ongi-etorri on bat  
danok amonari;  
Lezea aurretik dala  
berreun txistulari,  
ta ondoren bertsoan  
Basarri kantari.

12/ Aurtengo agoztuan  
Donosti pozikan,  
Errusitik badatoz  
ta Amerikatikan,  
jetxiera ikustera  
mundu guztitikan,  
iñork ezpaitu egin  
olako markikan.

*Zeruko Argia*, 1967, uztaillak 2.



## **BILLABONAKO ERRIARI FESTA AURREAN**

1/ Pozik ikusten zaitut,  
pillota lekua,  
ez dezulako ematen  
zeranik lengua;  
goian sare berriak,  
beia berdindua,  
orma margo politez  
gogoz apaindua,  
orra erriak bete  
bere agindua.

2/ Zarra berritzeakin  
iñor ez da mindu,  
agure ikusi ta  
biotza samindu.  
Ondo egiñak beti  
poza ematen du,  
orain bezela gero  
bear zaio zaindu,  
erriko agintariak  
ori bere gain du.

- 3/ Billabonak dadukan  
ederrena plaza,  
bertan egiten dute  
gazteak jolasa,  
aitonak egurastu  
sendoki arnasa;  
egun zoragarri bat  
nai duanak pasa,  
ondo artuko degu,  
datorrela lasa.
- 4/ Kanpotar guziori  
ongi etorria,  
pestak ondo igaro  
txalotuz erria;  
guretzat izango da  
ixtimagarria,  
Santiagok bota du  
zerutik argia,  
nun ospatuko dezu  
egun bat obia?
- 5/ Zalditarra ospatzera(1)  
etorri zaitetze,  
senditarren etxean  
aseko zerate.  
Ezagunik eztunak  
ostatuan bete,  
jatetxe onak daude  
zenbat nai ainbeste,  
Lazkanok merke tripa  
beteko dizute.

6/ Ixkiña emen dago,  
ta Irualdeta,  
beste geio ere bai,  
jo nai dezutena.  
Gertu dago Laskibar,  
Arantzabi eta,  
zein baño zein obeak,  
ezta berriketa,  
nundik etzera irtengo  
ederki beteta?

7/ Gaztedi maitekorra,  
entzun ditzazute,  
lengo oitura zarrak  
gaur badu birtute;  
dantza zelebreakin  
datorkigu kalte,  
jaramonik ez egin  
bizi geran arte,  
ta *ye-ye*'tarretatik  
ibilli aparte.

8/ O, Billabona maite,  
naiz zuk ni ez sortu,  
zure babes goxoan  
ezin naiz aspertu,  
ogei urte oietan  
zu zaitut ostatu.  
Zaldi zuri jabea  
biotzez agurtu,  
bera da patroia ta  
bera ongi ospatu.(2)

(1) Santiago alegia.

(2) *Zeruko Argia* astekarian, 1967, uztailak 16 eta 23, 1, 2, 3, 4, 7 eta 8'garren bertsoak argitaratu ziran.

## ONU DALA-TA

- 1/ Lurtarrak illargira  
len jarri nituan,  
ta *Zeruko Argia*'k  
zabaldu zituan.  
Aintzakotzako askok  
artu etzituan,  
etxean zorionak  
izan genituan,  
bertsoak sortzen dira  
buru ornituan.
- 2/ Indian gosea ta  
onuntz diru billa,  
jaio ezkeru eman ditut  
nik pezeta milla.  
Pekatua diote  
bei aragi illa,  
jan baño naio dute  
eletrika silla,  
sinismen ori duna  
gosez il dedilla.

- 3/ Lendakari Indira  
Gandi andrezkio,  
bere aldakuntzakin  
gaur onela dio:  
"Libre dezu aragi  
ta jan gosetio,  
pekatuaren beldur  
dezu oraindio?  
Ipuin zar oiek utzi  
bein betiko, indio!".
- 4/ Bakoitzak bere izkuntza  
ta bere oiturak,  
utzi bere bidean  
dijoazela urak.  
Okela jan zazute,  
ez egon beldurrak,  
bestela naiko lanak  
izanikan lurrak,  
aragia gixatu,  
eltzera ezurrak.
- 5/ ONU, dakizutenez,  
dago Nueva Yorken,  
lurreko aberri geinak  
sartuak barrenen.  
Amerika lenengo,  
Errusi bigarren,  
besteak an eztute  
balio bi laurden,  
indarraren mendean  
orra nola gauden.

- 6/ Vietnamen dabilta  
urte ta urtetan,  
erabakirik gabe  
ONU'ko juntetan.  
Orain berria sortu  
Jesusen lurretan,  
Judas an arro dabil,  
arro, bai, benetan,  
beldur det aragian,  
beldur ezurretan.
- 7/ Erabaki nai dute  
ONU'ko maixuak,  
artu dituzten lanak  
badira naixuak.  
Burumakur, asarre  
Dayan'ek moruak,  
Ejipto ta Jordani,  
berdin siriuak,  
Lur Santuko auziak  
dira seriua.
- 8/ ONU'n egingo dute  
eundalako masa,  
lurtarra engañatu,  
neri gutxi pasa.  
Gauz extuak daude ta  
ni ez nago lasa;  
atomika ezpada  
lertzen, burni-jasa;  
lagun deigula eman  
zigunak arnasa.

9/ Arren, ez al zaigu ba  
gerra zabalduko,  
Aita Santuak dio  
otoitz egiteko,  
naspillarik geiago  
ez ezagutzeko,  
gizatasuna danok  
beti azaltzeko;  
pakea eskatzen du  
alkar ez iltzeko.

10/ Mundu guzia dago  
ONU'kin minduta,  
gerra sortu baño len  
etziran bildu-ta.  
Zer egin eztakite  
erdi umilduta,  
bakoitzak bere erruak  
esamiñatuta,  
kopetari eldurik  
lotsez kokilduta.

*Zeruko Argia, 1967, irailak 17*

**GIPUZKOAKO ERRIAK  
ETA NERE UMOREA**

1/ Zenbaitek izaten du  
kantatzeko gala,  
ari beintzat urruaz  
nola edo ala.  
Orain nijoakizute  
trikili-trakala,  
esanaz umorea  
ederrena dala.

2/ Ondarbin egazkiñak,  
Irunen txartelak,  
Errenderin galletak,  
Pasaian batelak.  
Legazpin segak eta  
Tolosan txapelak,  
Donostin udarako  
Kontxan ur epelak.



3/ Oiartzunen dadukat  
jatorra laguna,  
bertsolari gazte ta  
zarren txapelduna.  
Euskadi guzian da  
oso ezaguna,  
danontzako biotza  
besterik ez duna.

4/ Errezilko semea  
Zarautzen bizi da,  
beste nere laguna  
jatorra ori da.  
Beti euskeran alde  
lanean ari da,  
alare esker gutxi  
mesede eginda!

5/ Orio arrantzan da  
Asteasu segan,  
amorraia errekan  
ta usoa egan.  
Bakoitza ibiltzen da  
ikasi zun eran,  
mundura etorriok  
orra nola geran.

6/ Getarin txakoliña,  
Insalus Lizartzan,  
ura edan ezker  
iñor gutxi dantzan.  
Sagardoa Astigarran  
indartsua an zan,  
Billabonâtua naiz  
eundoko balantzan.

7/ Mondragonen sarrallak,  
pistolak Eibarren,  
Adunan igeltsua,  
landarea Ibarren.  
Beasaiñen bagoiak  
orain bezela len,  
gaztik onenak berriz  
Idiazabalen.

8/ Berastegitik jorik  
Elduain da Eldu,  
ez naiz nai ordurako  
Berrobira eldu.  
Emen ezta oraindik  
sagarrikan eldu,  
bat proatzen asita  
zakurrak dit eldu.

9/ Urnietan daukagu  
etxe bat sakona,  
iñoiz joaten bazera  
sar zaitez Møkona.  
Bertan edango dezu  
txotxetikan ona,  
aseta gelditzen da  
egarrik dagona.

10/ Etxeko atetik txit  
jotzen det aldaba,  
Alegitikan gora  
dagola Aldaba.  
Iru berdin billatzen  
orren zalla al da ba?  
Laugarrena asmatzen  
saiatu al bada.

11/ Ernanin Xinko degu  
aspaldiko zarra,  
sabela betetzeko  
ezta toki txarra.  
Nai bada iru plater,  
nai bada bakarra,  
kobratzeko orduan  
beidatu zakarra.

12/ Lasarten arkitzen da  
izena Michelin,  
onengatik Urnieta  
bizi da potxolin.  
Andoaindarrangatik  
Sorabilla berdin,  
batzuk ondo jateko  
besteak ler egin.

13/ Belauntza, Leaburu,  
Gaztelun sartuta,  
Orexara joan nintzan  
sasoia artuta.  
Gero Altzotik bera  
Alegiratuta,  
an trena artu nuan  
oñez aspertuta.

14/ Ugarte, Amezketan,  
andikan Larraitza,  
lur goxoaren ordean  
bidean arkaitza.  
Abaltzisketatikan  
Zaldibitik Gaintza,  
erriak ezautzeko  
Tximelaren gaitza.

15/ Ernialde ta Aia,  
Goiatz, Biañikin,  
Larraul, Urkizu, Irura,  
Azpeiti, Azkoitikin.  
Aizarna ta Beizama  
Albiztur zarrakin,  
orra amabi erri  
bertso bakarrakin.

16/ Alkizako kanpanak  
adirazten dute,  
aberatsak dirala  
Peru eta Lete.  
Zizurkildarrak berriz  
diruz ezin bete,  
Tximelan bertsoakin  
gaur poztu zaitezte.

17/ Salaberria eta  
Matxain ditu Aietek,  
bertso jartzen saiatzen  
gogor dira aiek.  
Lan berbera egiten du  
Legorretan Letek,  
Albisuk eta Oleak  
ta esaten dun batek.

18/ Usurbil txanpañ-erri  
da sagardoakin,  
Zestua ere pozik da  
urik onenakin.  
Turistak zora dira  
udaran Debakin,  
Amezketak ez dakit  
gauz ori badakin.

(1967)



## AMASAKO ITURRIARI

Aurtengo Martin Deunaren egunez, Amasako iturriaren eun urtebetetzea ospatzen da.

Nere lagun billabonatarrak, Mintegia jaunak, iturri orri buruz bertso batzuk antolatzeko eskatu dit.

Ni emen bizi arren, lenengo bertsoan diot nungoa naizen.

- 1/ Jator-jatorriz tolosarra naiz,  
ezin ukatu iñolaz,  
bertan jaio ta bertan kristautu  
ta San Blasen milla jolas.  
Gaur Billabonan bizi naiz eta  
aitortu bear det nolaz:  
maitasunaren indarrangatik  
aldatu nintzan kaiolaz.

2/ Nik bezelaxe oro opa du  
Billabonako erriak:  
beste eun urtean jarrai dezala  
Amasako iturriak.  
Garai batean bertan ziraden  
sendatutzen elbarriak,  
o, ur maitea, zuregan goaz  
gaudenean egarriak.

3/ Mendiak dauka iturburua  
arkaitz tartean gordea,  
onekin igurtziko gaituzte  
guri joatean kordea.  
Jaio orduko ori artu genun,  
gatz pixkatekin ordea,  
pontetik gatoz ikasirikan  
kristau zintzoen legea.

4/ Larri ederrak iñoiz ematen  
zuk badakizu, iturri,  
errekak bulartzen diranean  
guretzat zera biurri.  
Baña zu gabe ilko giñake  
ta egunero etorri,  
zu agortzea danok dakigu  
ez litzakela pozgarri.



5/ Iturri asko agortu dira,  
zuk jarraitzen dezu zintzo,  
babeslaritzat ortxe dituzu  
Belabieta ta Loatzo,  
artzen dituzten euri guziak  
gorderikan gaurko atzo,  
ta gañezka dituzun guziak  
legortetarako jaso.

6/ Perretxikutara joanikan  
zure albotikan pasa,  
txurrut eginda sendotutzen zait  
aldapa gora arnasa.  
Agur, iturri, gu ondo zaindu,  
gora iñoizko euri-jasa,  
ta gora lengo aitona zarrak  
ta gora gaurko Amasa!(1)

(1967)

(1) *Zeruko Argia* astekarian argitaratutako bertsoak, 1968 urteko martxoaren 31'ean, argibide auek emanaz:

"Juan zan urteko azaroan ta Martin Deuna egunez, bete ziran eun urte Amasako iturriaren zabalkundea egin zala. Bere garaiean jaitaldian albistea eman ere bai lerro batzuen bidez *Argia*'n. Egun aietan sortu ta abestu zizkiguten bertso egokiak iturri orren sortze ta garai artako gizonen jokabide zintzo ta bu-lartsuari.

## *Bakardadeko ametsak*

---

Denbora pixka bat igaro da arrezkero. Baña alataz ere, mese-  
dez eskatu dietet, nere lagun diran Amantzi ta Errezolari, ia ba-  
koitzak antolatu zituzten bertsoetatik zati batzuek argitaratzeko  
baimenik izango ote nuen. Bai, erantzun dirate, ta orretaz emen  
azaltzen dira. Irakurri ta, gogozkoak badituzute, neretzat diran  
bezela, txalo egin gure erritar bertsolarientzat".

## ATOMIKAREN INDARRA

Aspaldian sortu nuan "Mundu guzian trumoi soñua" asiera zuan bertso sorta bat(1). Oraindik ere... gaur egun ere... asiera oberik ez.

- 1/ Mundu guzian trumoi soñua  
lenez gañera asia,  
joan daneko aspaldi ontan  
burrukan dabil aizia.  
Lurrean ere asarre dago  
Amerikakin Asia,  
an zer gertako bien artean  
ixilik dago Rusia.
  
- 2/ Asierako gizonen berri  
kondairak erakusten du,  
Kainen bitartez okertu giñan,  
ezin gerade zuzendu.  
Batek nagusi, besteak berdin,  
danok nai degu agindu,  
ta batez ere Jonson'ek beintzat  
goitikan azaldu nai du.

3/ Kosigin degu Jonson berbera,  
berdiñak dira indarrez,  
esaten dute biak daudela  
Txina gorrian bildurrez.  
Vietnamen berriz alkarren aurka  
lurra bustitzen odolez,  
oien asmoa zertara dagon  
asmatzen eztago errez.

4/ Gauz bat esan da bestea egin  
ajolik etzaiotenak,  
baztarrak txiki milla pusketan  
iñoiz uzten dituztenak.  
Beren okerrak bestearen gain  
bota zale nabarmenak,  
onik gabeko txar eta gaizto,  
ez beste gaizto alenak!

5/ Lurrikan ez dute sendotu nai,  
goian daukate indarra,  
ez dira tonto izenekoak,  
burua dute azkarra.  
Tresna berriak antolatzeko  
oien diru erre bearra,  
ta pobre asko goseak iltzen,  
au da munduko negarra.

6/ Suzko pelotan mende gaudela  
egon gindezke etsita,  
erruso oiek goian dauzkate  
geldi-geldirik jarrita.  
Lurrak su artzeko arraixkua  
danak batera jetxita,  
Jaungoiko ona, lagun gaitzazu,  
au ez degu merezi ta.

7/ Atomikari aurka egiteko  
oraindik gaude atzera,  
gu gera eltxo, aiek enarak,  
jango gaituzte batera.  
Alde aundia dagola dakit  
orbeletikan urrera,  
tiragomakin joango al gera  
atomikaren aurrera?

8/ Illargira joan, etorri ta joan,  
zer ez dute eramango?  
Lenen igotzen dana izango da  
betiko errege ango.  
Arto, gari, mats, patatik ere  
oiek ez dute egingo,  
au txikitzeko zer asmo duten  
beñere eztegu jakingo.

- 9/ Bakoitzak bere adelantua  
ondotxo dauka gordea,  
dirua diru, tresnak egiten,  
gizona iltzeko ordea.  
Pakean alde danak mintzatu  
ta beti sutan labea,  
itz gutxigotâ, ori itzaltzea  
ez al litzake obea?
- 10/ Suari ura bota bearren  
ote sorta asko gañera,  
itzal ez dedin petroleoa  
bertan naikoa gañera.  
Odol berria sartuko nuke  
orlakoaren zañera,  
ea biurtzen diran betiko  
Jaunaren atsegiñera.
- 11/ Sinismen klase asko baidaude  
zabaldurikan munduan,  
erri geienak berea dauka,  
gutxi daude lo-zorruan.  
Gure artean ezta jakiten  
biotz onena nork duan,  
baña gogorrek beratzen dira  
eriotzaren orduan.

12/ Aita Santu ta Atenagoras  
Erroman bildurik lengoz,  
Batikanoko ate-atetan  
besarkatu ziran gogoz.  
Asarrea da orratz txarrena,  
orrela obe da askoz,  
ondo pentsatzen jarri ezkeroz  
iturri batetik gatoz.

13/ Emen sinismen bat izan arren  
beti izan dira gerrak,  
neronek ere ezautu nuan,  
artuta nago ederrak.  
Aita Santuak zuzendu ditu  
batzuen asmo okerrak,  
bañan adarrak beti okerrak  
izango ditu akerrak.

14/ Gure artzaia Erroman dago,  
bera Paulo seigarrena,  
sendagillean eskutan dago,  
tristea daukat barrena.  
Jakin dedanez, igaro omen du  
ordu illun da txarrena,  
otoitz bitartez sendatu dedin  
danok bildu alkarrena.

(1967, azaroak 21)

(1) Ikus: *Bakardadeko ametsak*, I, 153 orri-aldean.

## **GURE ARTZAI ASTRONOMUA**

1/ Irurogei ta zazpian gaude,  
illak ogei eta zortzi,  
bost egunera abendu zarra  
egingo zaigu iritxi.  
Beste urtetan bezela aurten  
artzaiak ez dira jetxi,  
egoaldiaren berri zekiten,  
ez dute meritu gutxi.

2/ Zer udażken on izandu degun  
kontu atera norberak,  
negurik bate ezautu gabe  
erori dira orbelak.  
Eskola duten gizon azkarrak  
arrituta daude berak,  
artzaiak nola asma lezazken  
egoaldian goraberak.



3/ Astronomuak esaten dute:  
"Biar alako egoaldia".  
Amarretatik zazpi asmatuk  
gutxitan izaten dia.  
Zuk berriz zortzi eskolik gabe,  
aundia dago aldia,  
aien tokira joan bear zenduke  
aiei salduta artaldia.

4/ Zuk esan zendun udazken ona  
izango zala, gozoa,  
basarritarrak zure esanez  
egiña zuten pausoa.  
Etxea ongi utzia dezu,  
adiskide ta auzoa,  
egia esan, txaloka dago  
zuri aberri osoa.

(1967, azaroak 28)

## **ALDARIAGAREN SUTEA**

Asteasutik albiste samingarri bat datorkigu oraingoan: sutearen eragiñez Aldariaga baserriaren erre-tzea, alegia.

Albiste orrekin bat, beste txalogarri bat ere bai: sute artan, bederatzi urteko alabak bere anaia, etxe-ko aurra, salbatu.

Gertatuak gertatu, orra ipiñi ditudan bertsoak:

1/ Izparringia eskuan daukat,  
idazlaria Iñaki,  
Tolosakoa, Linazasoro,  
Altzetan seme obeki,  
Aldariagan zer gertatu dan  
adieraziz ederki.  
Ta Tximelari euskeratuaz  
bertsoak zaizkio jalki,  
neska batek an zer egin duan  
jakingo dezute aurki.

- 2/ Maria Lurdes Agirreurreta,  
bigarrena Lasa dezu,  
bederatzi urte, baña biotza  
ogeikoana daukazu.  
Aldariaga zure etxean  
ikusirik barruan su,  
etzera asko konturatutzen  
arrixkuan ziñala zu,  
zure bearra bazan errian  
goraltzeko Asteasu.
- 3/ Etxea erretzen ez nun ikusi,  
onela daukat entzuna:  
gaiztakerizko lana etzala,  
berezkoa erre zuna.  
Une artantxe jaio zitzaizun  
ama baten ontasuna,  
baldin eduki ezpazenduan  
dadukazun maitasuna,  
an erreko zan munduan jaio  
beste kulparik etzuna.
- 4/ Anai gaztenak bi illabete,  
seaskan zegon lo ta lo;  
zu bakarrikan etxe kontuan,  
txoria baño esnago.  
Amatxo, aita ta senideak  
belarra biltzen arago,  
ta bat batean esan zenduan  
"etxea erretzen dago!",  
aurtxoan billa nola jun ziñan  
guziz arriturik nago.

- 5/ Zure guraso jatorrak ori  
geienez egingo zuten,  
jungo al ziran semean billa  
zu jun ziñan bezin zuzen?  
Itxumen artan ezta erreza  
ankari anka ematen,  
xamurrago da pasa ta gero  
gertatu dana esaten,  
zuk bezelako anaitasuna  
gaur gutxik dute izaten.
- 6/ Zeure bizia arrixkaturik  
suaren ingurutxuan,  
larritasuna zer dan gazterik  
ikasi dezu enetxuan.  
Nik aginduko banu *Plus Ultra*'n,  
zuretxat itxu-itxuan,  
diru mordo bat zure izenean  
Donostiko eltxetxuan,  
gero gañera medalla ipiñi  
pozikan zure petxuan.
- 7/ Askok uste du neska bizkorrak  
diradela kalekuak,  
ai, nik eztitut emen ikusten,  
maite, zu bezelakuak.  
Ondo dakite guraso onak  
eta sendi artekuak,  
zuri begira boteaz daude  
begietatik malkuak,  
mundu onetan amon biurtu  
zaitzala gure Jainkuak!

- 8/ Au da negarra ta ezin poztua  
ordu batek dakarrena,  
zutik zegoan etxe maitea  
auts biurtu zaizu dena.  
Norbaitek penik artutzen badu  
neroni nazu aurrena;  
salbatzearren baitere poza,  
sendiko izar ederrena,  
geroztik amak kolkoan dauka  
gozaturikan barrena.
- 9/ Bei, txekor, idi, olloak aztu,  
oroiturikan anaia,  
garra tartean ikusirikan  
zure bizian amaia.  
Ederki erakutsi diguzu  
zertâño dan alkar-naia,  
ta nik limosna eskatutzen det  
orain dalako garaia,  
eskua zabalduzen badegu  
berrituko da Aldaia.
- 10/ Arretxen dezu kontratista ta  
Tolosan arkitektua,  
Laskibar jauna buru dalarik  
Otegi da egitekua.  
Erri guzia auzolanean  
laguntza egitazkua;  
apaizak eta buruzagiak  
egiten dute naikua,  
ta neri berriz ixuritzen zait  
bukaerakin malkua.  
(*Zeruko Argia*, 1968, agorrak 15)

## **BASARRI**

1/ Guda aurretik alkar, Basarri,  
Donostian jo genduan,  
ni entzule ta zu bertsolari  
Txirrita zanan onduan.  
Gaur dagon ainbat kulturarikan  
ez egon arren orduan,  
zure mingaÑak itz zabarrikan  
an erabili etzuan.

2/ Gaztetan gizon egin ziÑan da  
gizonki zoaz aurrera,  
al dezuana erakutsiaz  
gure izkuntzan aldera,  
bear bezela jokaturikan  
Aitor zarraren antzera;  
zure bearra izan da emen  
indartutzeko euskera.

3/ Euskeran alde jokutzen degu  
zuk ainbat beste iñork ez,  
oinbeste neke artuko duna  
berriz sortuko da nekez.  
Itzaldi onak maiz dituzu ta  
bertsotan zer esanik ez,  
aurrera berdin erakutsiaz  
urtetan bizitu zaitez.

4/ Ogei ta amabost urte badira  
ni konturatu nintzala,  
berezko etorri ederrarekin  
bertsolaria ziñala.  
Geroztik, lagun, gure Jainkoak  
maizago bildu gaitzala,  
ongarri degu diszipuluak,  
Basarri, zure itzala.

5/ Ote zikiñez betea zegon  
bertsolarien baratza,  
zu asi ziñan ori jorratzen  
arturik lantegi latza.  
Ikusirikan nundik datorren  
sustraitikan akatsa,  
len ezer gutxi balio zuna  
jarri dezu aberatsa.

6/ Amalau urte bete nituan,  
garai artako bertsuak,  
astakeriak entzun ezker  
pozik giñan geientsuak.  
Kirtenkeriak elkarri bota  
ta gu kirten alatsuak,  
kirtenetan zein kirten aundiña  
eramanikan pausuak.

7/ Kirtenak uxatu ziñuzen da  
ez dedilla berriz jaio,  
bitatikan bat aukeran jarri,  
nik kultura pixkat naio.  
Gaur Gipuzkoan kirten bat dago,  
beraren izena Pello,  
danontzat bera naikoa da ta  
ez al da sortuko geio.

8/ Uztapideren omenaldian  
elkar besarkaturikan,  
zuk esandako itzak oraindik  
emen dauzkat gorderikan.  
Nere barruan joango dira  
bizi geran mundutikan,  
gizon ixilla aberatsa da,  
ezta olako urrerikan.



9/ Beian zegoan zaletasuna  
egin zenduan goratu,  
lur makaleko landare zarra  
lur berrian da loratu.  
Iñortxok uste ez gendun lana  
zuk egin zenduan lortu,  
zu bezelako ortelanorik  
oraindikan ezta sortu.

10/ Lege-gizon da apaiz da fraile,  
bazegon gizon azkarrik,  
gure baratza txukundutzeko  
oien indarrak alperrik.  
Zuk, Uztapide lagun artuta,  
jorrai batekin bakarrik,  
berezko doia duanak eztu  
kultura askoren bearrik.

11/ Kultura aundiko gizon azkarrak  
ez dute txarrik merezi,  
oien bitartez egiten degu  
gauz berri asko ikasi.  
Euskera zaintzen naiko nituzke  
beti onela ikusi,  
zu berriz danon erdi-erdian,  
lore guzien nagusi.

12/ Kirtenkeria zuzendutzeko  
izan al da euskaldunik?  
Eztala sortu esango nuke  
zuk ainbat lan egin dunik.  
Urtez aurrera bazuaz baña  
etzaizu joaten kemenik,  
orreatikan txapela eskuan  
detela agurtzen zaitut nik.

*(Zeruko Argia, 1968, garagarriak 30)*

## URTAİN

1/ Urtain gaztea, zure ukabillak  
gogorak dira azaldu,  
sei burrukaldi joka dituzu,  
bat ere ez dezu galdu.  
Zuk ainbat indar duen besterik  
ez dala askok esan du,  
nere iritziz, Euskalerriak  
beñere ez du izandu.

2/ Zutikan ez da iñor gelditu,  
ez zuri ala beltzarik,  
zure aurrean ez dute izan  
arnasa artzeko betarik.  
Batzuek marmar, ez dakit zertan,  
ni nago pozez beterik,  
aurren unetan saiatu, anai,  
ez dezu bear besterik.

3/ Zure indarrak proatu ziran  
edozein arri klasetan,  
marka galantak utzi zenitun  
Euskalerriko plazetan.  
Bozeolari biurtu ziñan,  
ez sartu beste ezertan,  
telebistatik nai zaitut ikus  
jokatzen Ameriketan.

4/ Abia zaitez munduan zear  
Uzkudun zarra bezela,  
nere bertsoak ez dute indar  
asko izango bestela.  
Zure aurkari, beltz edo zuri,  
artzeko zegok epela,  
bañan lenengo onuntz ekarri  
zuk Europako txapela.

5/ Egun batetik ara bestera  
muturjokan artu sonak,  
merituk ditu zuri lantegi  
au erakutsi dizunak.  
Nunbait bazekin gutxi dirala  
zu bezelako gizonak,  
txapel-bidean lagun zaitzala  
arnasa eman zizunak.

6/ Uzkudunistak giñan lenago,  
orain gera urtaintarrak,  
aurten proatuko ditu-ta onek  
Etxeberrian indarrak.  
Ta bizkaitarra eratziko du  
gurean kolpe bakarrak,  
orduan ixo ta ixo danok,  
aztuko dira marmarrak.

7/ Lur maite ontan jaio giñanak  
goratu Euskalerra,  
ez dezagula ankaperatu  
gaurko landare berria.  
Bere etxeko tellatutara  
botatzen dunak arria,  
esan diteke ark dadukala  
buru naspill, elbarria.

8/ Gure artean ez da izaten  
beti asmatzen erreza,  
nola goratu ezin asmatu  
izan baziña prantzesa.  
Badirudite zu goralduta  
artzen dutela bajeza,  
gizon txoroen itz mingarriak  
obe det ixillik pasa.

9/ Estilorikan ez izan arren  
bat izan leike txapeldun,  
teniserako jaio ez giñala  
danak badakite mundun.  
Ni arritzen naiz Hernándezekin,  
ez dakit burua nun dun,  
Europan jabe izandu zala  
ez du sinisten Uzkudun.

10/ Zure izenak ikusten dezu  
zenbat komeri dakarren,  
Jainkoa degu lenengoa ta  
zurea berriz bigarren.  
Aulak auleri, ta indartsua  
ikusi da zer datorren,  
estiloa zuk utzi bestentzat,  
irabazi al dan azkarren.

11/ Azkaratek sei urte errenkan  
txapela zuan jantzia,  
askorentzako izanagatik  
pelotan baldar-ontzia.  
Atotxan beinbat lau gol Arregik,  
bada naiko garrantzia,  
estilorikan ez degu bear,  
baizikan golak sartzia.

12/ Alde guzitan zure izena  
besterik ez dago orain,  
Paulino ezkerro bozeroari  
zuk egin diozu erain.  
Etorkizunan berri ez dakit,  
utzi dezagun zure gain;  
Europan buru jartzen bazera  
danok adiskide, Urtain!

*Zeruko Argia*, 1969, otsailak 16

## **ERREBOTEKO JOKUA ETA BILLABONAKO MANKUA**

- 1/ Larogei ta lau urte mugatsu  
sartu zan Billabonara  
ezin esan dan bezelakoxe  
pitxi politen bolara:  
jostalluaren maixu Mankua,  
izengoitia ontara,  
oso-osoko jokalaria  
burutikan oñetara,  
txapeldun zala Jaunak deituta  
joan zan zeruetara.
  
- 2/ Sendi txiroko aurtxo apala,  
txanponikan zuanean,  
bere eltxetxora korri ta korri  
plazatikan zuzenean;  
pillotan nekez galduko zuan,  
irabazi geienean,  
iñork etzuan arez joka nai  
ona igarri zutenean,  
diru askoren jabe egin zan  
gero sasoitu zanean.



3/ Garai artako onen-onena  
Eibarko Txikia omen zan,  
Mankuak retatu zuanean  
arek baietz pozik esan.  
Igande batez jokatu zuten  
biak Atotxako plazan,  
berrogei ta amar tantora ziran,  
an arrokeririk etzan,  
bost tantoz garbi irabazirik  
naiz beso bakarra izan.

4/ Milla zortzireun larogei ta sei-  
garren urteko urrillez,  
jantzi ziraden bat gerri gorritz,  
bestea berriz urdiñez;  
duro zillarra buruz goi bota  
dardarra eutsi eziñez,  
Eibarretikan diru asko zan  
ogei bosteri egiñez,  
kosta aldetik gero etxera  
amaika joan zan oiñez.

5/ Onera berriz duro batekin  
joan zanak ekarri amar,  
oiek etziran aiek bezela  
etxera etorri marmar,  
irrintzi luze ta deadarka:  
"Gora gure beso bakar!".  
Galtzen danean negargurea,  
irabaztean ler da par,  
ez len bakarrik, bai orain ere  
jokuak gauz ori dakar.

6/ Bertako seme Pedro zana zan  
ta Yarzarretakua,  
beso bakarra zalako denak  
deitzen zioten Mankua;  
xexto motxeko pelotaria  
ez genun nolanaikua,  
Gipuzkoako txapeldunari  
txapela kendutakua,  
ura zan arriz zana egin da  
plazarako modukua.

7/ Manku il da erdi negarrez  
gaur aiton diranak nunai:  
"Mundu-aldia motxa izan zun  
gizaraxoak, ori bai!".  
Lur eman zioteneko goiza  
ez da aztuko nolana,  
ingi-ol eta denda ta beste  
guziak egin zuten jai,  
ontaz naikua gaur esaten det  
nola zitzaion ari nai.

*(Zeruko Argia, 1969, uztaillak 27)*

## **ERREBOTEN JOKUA**

- 1/ Errebotean ez da jokutzen  
gaur garai batean aña,  
Euskalerrian oso da galdu  
indartsu zegoen zaña.  
Puja gutxiko zugaitza nunbait  
naiz emen egon bikaña,  
esaten dute baiki polita:  
"Au dek, au, joku apaña!",  
kantuz goi jarri nai nuke baña  
utsa da nere mingaña.
- 2/ Inork ez daki oraindik ziur  
zenbaitu urte dituan,  
atzo goizean eztabaiean  
neronek entzun nituan.  
Ezertxo're an ez nun ikasi,  
gelditu nintzan kituan,  
gaur datorkiten egia au da,  
begiratu ispilluan;  
bakar-bakarrik zekitena da  
dagola ia ituan.

- 3/ Ez Gipuzkoan, ez Naparroan,  
ez Araban da ez Bizkain,  
emen bakarrik jokaturzen da  
prantzestarren aurka bikain.  
Ez dakizuten asko zerate  
ta ikusten badezute bein,  
ao zabalik galdezka danok:  
"Nork egin du tanto orain?".  
Erantzun zallak gelditzen dira  
gizon jakintsuaren gain.
- 4/ Prantzesak alde batetik eta  
gure mutillak bestetik,  
lau, bost, sei, zortzi bolea latzak  
erori gabe xextotik;  
marran dotore irabaziaz  
arraia iru metrotik,  
ikusleentzat joku oberik  
ez dala kendu burutik,  
naiz ulerkaitza izan, jendea  
beida egoten da gogotik.
- 5/ Ulerkaitza ta aspergarri da  
andik onuntza tiki-tak,  
egon ezkerro ikusten dira  
oso jugada politak.  
Pelotak ainbat bide askotan  
ez du korritzen tximistak;  
pelotazale asko izan du  
Billabonako erriak,  
danen izenez ez naiz oroitzen,  
esango ditut erdiak.

- 6/ Martin Jose da Elolatarra,  
oso aiton atsegiña,  
ark ala dio: "Errebotea  
galduko zala jakiña;  
len nunai zana emen bakarrik  
ortarako dago griña".  
Esaten zidan: "Ai, gizon gazte!  
Ni bezin zarra baziña,  
negar da guzi eingo zenduke,  
biotzean berriz miña".
- 7/ Onuntz etori arte ez nuan  
ikusi joku klase au,  
bi sakalari, bi gelditzalle,  
talde bakoitzetikan lau.  
Zintan daudenak xexto motxakin  
pelota oñetara *rau!*,  
kontatzallea beti marruaz,  
arek ni txoratutzen nau,  
esan liteke: "Ederki jan dik",  
ez dagola beintzat barau.
- 8/ Jokua asita plaza guziko  
zelebrena da Errexil,  
tanto kontatzen asten danean  
gero ez daki nola ixil.  
"Ados, ta arraia, jaunak!" ujuka  
abots lodiko eresin,  
ara ta ona gelditu gabe  
mutil gazte bat ez bezin,  
azkar ta ona tanto kontatzen,  
motellak, ez dek edozin.

9/ Santiago ta gero Santa Ana,  
San Inazio mugarri,  
lenengo ori noiz iritxiko  
erri guzian pozgarri.  
Beste urtetan bezela aurten  
festa asko dute jarri,  
prantzesak ere badatoz eta  
Uztapidekin Basarri,  
egun eder bat pasa nai dunak  
Billabonara etorri.(1)

(1) 1969, Billabonako Santiago jaietako egitarauan.

## ISAAK LOPEZ MENDIZABAL

Tolosako Isaak Lopez Mendizabal jauna zanari, bere larogei ta amar urtebetetze eguna ospatzera-koan, 1969 urteko apirillak 11.

1/ Milla zorion, aiton maitea,  
zure urtebete egunez,  
larogitamar gaur dituzu ta  
gozaten dezu osasunez.  
Buruz argia, gortasunik ez,  
aldero pixka bat oñez,  
begi txurixtak, ikusi ezin,  
zerbait bear, nai ta nai ez.

2/ Zuregandu ni, egun asko ez,  
orain oroitzen naizenez,  
zure lagun zar danak aitatu  
mingain da beso indarrez.  
Ameriketâ nola joan ziñan  
adierazten zendun errez;  
baña orduan egondu nintzan  
lertzeko zoriz negarrez,  
Isaak, zurekin ni bilduko naiz  
itxasoz ezpada lurrez.

*Zeruko Argia, 1969, apirillak 20*



Luis Rezola, *Tximela*, eta Isaak Lopez Mendizabal.



## **BILLABONA TXAPELDUN**

Billabonako errebote taldeari nola nere omena?  
Nere bertsoz obena!

1/ Bein bear da berriro  
nago bertsolari,  
jartzeko esan didate  
erreboteari.

Zabaltzen badituzu,  
*Zeruko Argi* ori,  
biotza atsegiñez  
beteko zait neri.

2/ Joku peligerosoa  
da errebotea,  
zarrak utzi ziguten  
orlako dotea.  
Arri txintzar tartean  
okerra botea,  
orduan onena da  
argi egotea.

3/ Emen ikasten dute  
mutil kozkortuta,  
bai anka-zañetako  
galantak artuta!  
Ikusi izan ditut  
zentzua galduta,  
etxera joaten ere  
buruai elduta.

4/ Ez dakiñak ikasi  
jarri zan legea,  
errebotea dala  
joku erregea;  
partidurikan ez da  
Anjelus gabea,  
lur gañean nun ote  
oitura obea?

5/ Amabiak txintxilik  
ixiltzen da dena,  
On Roman ikustean  
plazaren barrena,  
agintari erdian  
egiñik arrena;  
Jaunak eman zaiola  
berrizko kemena.

6/ Gora talde jatorra!

Gora Billabona,  
errebotearen jaun  
da jabe dagona!  
Elosegin txapela  
etxeratu duna,  
gogoangarrirako  
ederra laguna.

7/ Guzitara amar erri

beren izenekin,  
Prantzian bertan zazpi,  
nai duanak jakin;  
Naparron Irurita,  
Gipuzkoa biekin:  
Zubietako jatorrak  
Billabonarekin.

8/ Mugaz beste aldekoak:

Sara ta Saint-Palais,  
Pau, Endaia, Baigorri,  
–memoritsua naiz–,  
Donibane ta Azparren,  
zazpiak guk anaiz  
artuak, jokatzera  
onuntz etorri maiz.

9/ Donibaneren aurka  
genduan finala,  
txistu ta danboliñak  
aurretik zirala;  
amaikana berdindu  
amairura zala,  
gizona larritzeko  
au dek, au, azala!

10/ Billabona aurretik  
bederatzi ta iru,  
"txapela gurea da!"  
ain geunden seguru.  
Ango kiskiti-kaska  
bi ordu inguru!  
Aiek amaika joku,  
gureak amairu!

11/ Galtzen ikusirikan  
jo zuten galanki,  
berrizko oien izenak  
gogoan eduki:  
Etxeberri, Irigoien,  
Lastrade, Irazoki,  
talde ontan onena  
Fagoaga noski.

12/ Txapeldunen izenak  
ezin ditut laga,  
Santa Mariarekin  
aupa Arrillaga!  
Beristain da Bidaurre  
bikote abilla da,  
ta Etxenike jauna  
taldeko abea da.

13/ Ogei atzelaritik  
latzena gurea,  
eman bearra dago  
bakoitzai berea;  
eun kiloko mutilla,  
ez da lepoz mea,  
jokalari onena  
Martiniñan semea.

14/ Euskalerrian asko  
egon arren lotan,  
emen jaio ordurako  
xextozko pelotan;  
jakin gaberik ez il  
iñor mundu ontan,  
ikustera etorri  
San Inaziotan.

15/ Etxean du txapela  
aurten Billabonak,  
aterki oiek dira  
errirako onak;  
beti ez dira izaten  
orlako gizonak,  
talde jatorrentzat  
danon zorionak.

16/ Nere tokaioa da,  
gañera laguna,  
Tximela da lantegi  
au bukatzen duna.  
Bakoitzak egiten du  
lurrean al duna.  
itza bete det eta  
poztu ai, Altuna!

*Zeruko Argia*, 1969, apirillak 20

## ATXE

1/ Burura datozkidan bertsoak  
ez dago ixil uzterik,  
paltik badet gaur barka, anaiak,  
ez det jarriko *atxe*'rik!  
Etzait ardurik, etzait ajolik  
naiz asarretu axarik,  
*atxe* zarrakin naspillatuta  
ez da goratzen euskerik.

2/ Askok bezela zertan erdizka?  
Asi ezkerro osoak.  
Bestela alperrik izango dira  
nik emandako pausoak.  
Gaur axari diran jaun oiek  
orduan ziran zozoak,  
*uve* jartzea bakar palta du  
gure euskera gaxoak.

3/ Pake ta guda, aske ta espetxe  
proatuak banan-bana,  
ni nazute bat besten tartean  
euskeraz zaindu zuana.  
Oraintxen nator, axari eder,  
bat-batera zuregana,  
berriro ere zozo biurtzen  
artuko dek naiko lana.

4/ *Ese* ta *zed*a, bestea *ekis*,  
au da izkuntzan lorea,  
irurak ezin ongi antolatu  
bada naiko lanbirea.  
Axaritarrek azaldu dute  
margo eztan kolorea,  
*atxe* onekin jarri nai die  
euskerari kollarea.

5/ Arratsaldeko egunkariak  
ekarri zuan lenguan,  
goitik beraño irakurri nun,  
guzia daukat goguan.  
Idazlaria asarre zegoen  
ni gaur nagoan moduan,  
gure artean pakerik ez ta  
nola izango munduan?



6/ *Atxe*'k altxorrik ez digu ematen  
baizik zapuztu izkuntza,  
Cervantes zanak sortu beretzat  
bañan guretzako utsa.  
Aurkarik bada, ni ez naiz joango  
etorri dedin onuntza,  
zein azkarra dan ez da jarriko  
dardari nere gorputza.

7/ *Zeda* ta *ese* ondo erabili  
obe degu *atxe* baño,  
*ekis* bera're goxoa ez al da?  
Aztu al zaigu ortâño?  
Len nekez gora igo deguna  
etorri zaigu beraño,  
zer derizkiozu zerutikan,  
Pedro Maria Otaño?

8/ *Atxe* onekin au da izkuntza  
dana alperrik galtzea,  
zauria sendatu bearrean  
sartu dizute iltzea.  
Berriro gaxo ikusi baño  
naiago nuke iltzea,  
jarri dutenak ez al da obe  
berriro *atxe* kentzea?

(1969)

## **ETXENIKERI**

Billabonako errebote taldeak duen jokalaririk zarrrena, Etxenike da. Betidanik pelotari! Oni, Billabonako erriak egin zion omenaldia zala-ta, bertso auek eskeñi nizkion.

1/ Milla bederatzireun eta  
irurogei ta amarrean,  
illak amalau egun ditu gaur,  
gaude garagarrillean.  
Bildu gerade Etxenikeri  
danok zerbait ein naiean,  
geiago merezi duanikan  
ezta beste bat lurrean.

2/ San Antonio biaramuna  
egun oso siñalia,  
Etxenikeri egiten zaio  
gaur emen omenaldia.  
Geiago merezi duan asko  
mundu ontan ba al dia?  
Ondo irabazi dualako  
degu gaurko jaialdia.

- 3/ Eun partidu baño geiago  
errebotean bakarrik,  
*yoko garbi*'re berea du ta  
beñe ez pelota txarrik.  
Arraian dana gelditutzen du  
iñun bada guante zarrrik,  
eskuz e milla jokatu ditu  
binaka eta bakarrik.
- 4/ Ezkerra da ta ezkerrez onek  
sake danak jotzen ditu,  
kontrarioak jirutzen badu  
eskubiakin gelditu.  
Berak begiak naiz onak izan  
onen guanteak baditu,  
zenbat arrai ta joku ein ditun  
Tximelak gaur ezin deitu.
- 5/ Oso zarrakin jokatu zun da  
aieri zien ikasi,  
ondoren bere sasoikoari  
nola bear zan aiazi.  
Gaur berriz gazte diradeneri  
egiten die erakutsi,  
ezin izan du, berak naita're,  
erreboterikan utzi.

- 6/ Plaza ondoko tellatuetan  
iñun bazan ituterik,  
au aietara pozik joaten zan  
iñoiz bazun abixurik.  
Laister goraño igo izan da  
iñun bazegon koskarik,  
tellak aztuta begira ondo  
ba al zegon pelotarik.
- 7/ Onen etxera bera bear ta  
amaika jende joaten zan,  
emazteari galdetuz beti  
ea Karlos etxean zan.  
Lan orduetatikan kanpora  
begiratutzeko plazan,  
bestela berriz Frantzi aldean,  
erreboterikan bazan.
- 8/ Aspaldi ontan dauzkan lagunak  
onek erreboterako,  
Begiristain du bizi-bizia  
bere aldamenerako.  
Andoni bere atzean beti  
jokua zuzendutzeko,  
Imanol maixu ta Santa berriz  
pelotak txikitutzeko.

9/ Pelotan dabil uts egin gabe  
ia berrogei urtian,  
pelotarako du ta izan du  
odola zañen azpian.  
Utzi nai eta ezin utzi du,  
dago naigabez betian,  
pelota utzi askoz obe du,  
ibili lagun artian.

10/ Pelotariak asko dirade,  
orrelakoa bakarra,  
ainbeste urtez jokutzen ai da,  
ez au izan bazan txarra.  
Abildadea beti izan du  
eta gañera indarra,  
gazteak asko badaude baña  
guk naiago degu zarra.

11/ *Bear-zana* da txoko goxo bat,  
negun ere ezta otza,  
munduan dagon musika onena  
orman pelotaren otsa.  
Pelotarikan gabe litzake  
berarentzat eriotza,  
*Bear-zana* zan ta izango da  
errebotean biotza.

12/ Biotza alai jarri dezagun  
naiz malkoak begietan,  
Etxenike au bezelakoak  
bear dira mundu onetan.  
Botillo, xexto eta guanteak  
zabaldu euskal errietan,  
erreboteak jarraitu dezan  
gizaldiz gizaldietan.

(1970, garagarrillak 14)

**ZER EGIN DU MATESA'K?**

(Doñua: "Aizak i, mutil mañontzi...")

1/ Bazterretatik izparrak  
datozkit oso piparrak  
Bartzelona ta berdin Madritik,  
bertan ere txarrak.  
Asarre daude naparrak,  
begitan malko-negarrak,  
esaten dute: "Nun dira orain  
*Matesa'n* indarrak?".

2/ Zer egin deken, *Matesa*,  
asmatzen ez dek erreza;  
iri gaur zuka itzegitea  
neretzat bajeza.  
Atzo intzaken markesa,  
gaur gañean daukak jueza,  
kulpantea dek eman zikena  
oinbeste lañeza.

- 3/ Ustez garbi jo uan goi,  
bañan zikiñetan eroi,  
lagunik gabe ostu al dituk  
amar milla milloi?  
Atzaparretan daukak loi  
ta kontzientzian erdoi;  
oiek eztituk legez egiten  
kendu gabe iñoi.
- 4/ Atzoko bizkortasuna,  
gaurko estuasuna,  
legerik eztek sortu egiteko  
bakoitzak nai duna.  
Kendu diok ontasuna,  
pezetari osasuna;  
orain guk pagatu bear ire  
biurritasuna.
- 5/ Mendeko danak engaña,  
eztek motela mingaña,  
baña gezurrez uste al uan  
altxatzea España?  
Lagundutzeko estraña  
ona bear dik entraña,  
gaur nere eskutan ik bear ukek,  
kartzelan ez baña.



- 6/ Utziko nitek asita,  
danak dituk merezi-ta,  
ardagaiaren antzera iltzez  
zugaitzai josita;  
gaizki ago ikusita,  
galduta alde guzitâ,  
Carabanchelen ilko aizela  
egon ai etsita.
- 7/ Ona igaro dek epoka,  
ori etzakela uka,  
ortik datorkik gaur sendatzerik  
ez dagoan pupa;  
Españiari zurrupa,  
estranjerian ujuka,  
erorrek billatu dek itzala  
diruaren truka.
- 8/ Estranjerira dirutza,  
etxea utzirik utsa,  
gaur lau ta biar ogei nai arek  
egin ziken bultza;  
ambizioan laguntza  
biurtu zaik astaputza,  
egin dekena egiña zegok,  
ik daukak gurutza.

9/ *Matesa*'ren leziua  
jakiteko desiua:  
guk beti lan da aiek gurea  
ostu-biziua.  
Nun eukaken juiziua  
altxatzeko naziua?  
Ez al dek berriz sortuko olako  
kongregaziua!

10/ Auxen dek amargarrena,  
ta bera nabarmenena;  
juezan aurrean itzegiteko  
bai al dek kemena?  
Kontzientzian pixu dena,  
arindu ezin dekena,  
i aiz zazpigarrena ikasi ta  
aztu zitzaikena.

11/ Txar dekelako konduta  
sartu nauk ire kontutâ;  
jakinda natxiok nola agoan  
lepotik elduta.  
Gobiernua bilduta,  
gu bezelaxe minduta;  
santu-paperak alperrik dituk  
oinbeste kenduta.

12/ Nere euskera gozuan,  
anaiok, biotz osuan  
nijoakizute au esatera  
ta artu goguan:  
esandakoak bertsuan  
askok ulertuko etzuan,  
erderazko itzak euskeraz jarri  
izan banituan.(1)

(1) Egillearen esku-idatzi batetik. *Goiiz-Argi* aldizkarian argitaratu ziran bertso auek, 1970 urteko azaroan, aitatzerik merezi ez duten aldaketa batzuekin.

**TOLOSAKO JUANITO LOPE  
IRUDIGILLEARI**

- 1/ Lopetar Juanito,  
nere lagun zarra,  
bustoak ipintzeko  
etzun esku txarra.  
Iñauteritan berriz  
zu ziñan bakarra,  
gogotikan edan da  
kaletan baldarra,  
egin izandu nuan  
amaika algara.
- 2/ Zilipurdika erori  
bein biok batera,  
lau neska gaztek gero  
zulotik atera.  
Aiekin joan giñan  
Rondilla kalera,  
batek esan zizuan  
"ardoa atera",  
bañan zuk galdu zenun  
bidean kartera.

3/ Bertsotan orra egin  
zure eskultura,  
ederki bai igaro,  
gau pasa zan ura.  
Beti arrimatzen zan  
nesken ingurura,  
besterik etzizaion  
etortzen burura,  
ederki pasa zuan  
Tximelan kontura.

## **KANPOTARRAK ONUNTZ**

1/ Etortzen diranean  
"buenos días, señor",  
andikan pixkatera  
ez gera iñor.  
Berak naita nagusi  
emen bezela or,  
buruakin agurra,  
belarritatik gor.  
Detalleak jator  
apuntatzen nator,  
euskerari opor,  
al dutena gogor.  
Orrelako jendea  
andikan dator.

2/ Egia da guzia,  
au ezta ametsa,  
oiek ezagutzen da  
oso erreza.  
On bezela etorri  
ta gero etsaitza,  
gezurra esateko  
lendik dute gaitza.  
Belarria motza,  
antxume kokotza,  
eskaxa gorputza,  
larru azal beltza.  
Nungotarrak diraden  
ortikan pentsa.

## **HERRERO BATI**

Billabonako errementari bati jarriak. Nere lagunetako bat bera. Joxe Anjel bere izena. Denbora asko ez dala, bere etxepeko errementerian izan naiz, egiten dituan eskulan zoragarriak ikusten.

- 1/ Aspalditxoan ixilik zegon  
txoria emen dezute,  
erdi illunpean dagon artista  
argira ekarri nai nuke;  
suteri-lanak txit dakitenak  
galdera au egiten dute:  
"Mallu ta zintzel utsakin eskuz  
Jesus nola egin liteke?".
  
- 2/ Arritu bizin gelditu nintzan  
sar orduko zure etxean,  
Jesus maitea ikusten baidet  
iltzen burni-gurutzean;  
bere aurpegi berbera eta  
beso bat oker antzean,  
burua bera alde eroria  
azkeneko arnasean.



- 3/ Zure lantokin alperrik dira  
tresna berri edo makiñak,  
adelantuak zertâko ditu  
eskuz egiten dakiñak?  
Andre-alaba, zu ta aita zana  
apain dauzkazu egiñak,  
badirudite fundizioan  
egindako imajiñak.
- 4/ Kolpe batekin ez da egiten  
kristau baten aurpegia,  
berotu-aldi askoren bidez  
esan nai det, alegia.  
Batetik esku abilla bear,  
bestetik begi argia,  
soldaduraren tantorik gabe,  
guzia burni garbia.
- 5/ Neska ta mutil dantzan gozoro,  
erdian txistularia,  
tanbor da txistu kendu ezker  
dirudi bertsolaria.  
Pieza batean bakoitza egin,  
or dezu abildadia,  
gañera aurpegin ezagutzen da  
erdikoan edadia.

6/ Bakar-bakarrik egin dituzu  
imajin arrigarriak,  
danak amabost izango dira  
zuk neri erakutsiak.  
Nere bitartez jakin dezala  
gaurtikan mundu guziak,  
pare gabeko artista on bat  
daukala Euskalerrriak.

7/ Mallu tenazak eskuetan da  
surtan burni guritua,  
izan liteken ustelena da  
izenez *pudelatua*.  
Beroan artzen ez da xamurra  
material oni puntua,  
askotan kolpe kaxkarrenakin  
gelditzen da izartua.

8/ Suterin sartu, txingure albotik,  
noiz galga artu peskisan,  
eztu balio kolpeka asterik  
asten danean drisdisan.  
Bakoitza egiten zenbatsu ordu  
pasa ditun ez dit esan,  
iñork eztaki oiek egiten  
zenbat erneaziko zan.

9/ Gora pintore, gora eskultore  
ta gora lagun jatorra!  
Jaiotzatican mallua beti  
izan dezu maitekorra.  
Amaika bider ikusi baidet  
blai eginda alkandora,  
eztakianak eztaki zer dan  
suteriko lan gogorra.

10/ Jaio, kristautu, azi ta bizi  
Billabonako errian,  
eskolatu ta lanari ekin  
etxeko perrategian.  
Aita zan arek au etzuan nai  
ikusi alperkerian,  
an jarraitzen du erentzin utzi  
zion suteri zarrian.

11/ Otaegitar Joxe Anjel da  
imajin oien jabea,  
burua ongi ornitua du,  
arrokeririk gabea.  
Ludian zear lanteri ontan  
nun arkituko obea?  
Au degu emen herrero batek  
ekarri zuan lorea.

12/ Milla zorion zuri ematea  
gauzik onena neretzat,  
nik ez baidet, ba, beste itzikan  
gaur billatutzen zuretzat.  
Jarraitu aurrera geiago egiten  
bere artean ametsak,  
ta ea biar oroitzen zeran  
Gernikako arbolantzat.

*(Príncipe de Viana, 1973, apirilla)*

*(Zeruko Argia, 1973, garagarrillak 24)*

## **BERRIRO BASARRI JAUNARI**

(Doñua: "Aizak, i, mutil mañontzi...")

- 1/ Atsegin zaiten eresi  
galtzeak eztu merezi,  
Xenpelar zana oroiturik gaur  
nator bizi-bizi.  
Al dezutenak ikasi,  
nere iritzia ikusi,  
gure artean nor zan da nor dan  
bertsotan nagusi.
  
- 2/ Basarri, zera egizko,  
nik beti ala begiz jo,  
bertsolaritan bertsolarina,  
eusko iturriko.  
Etzera gizon erdizko,  
erriak zaitu premizko,  
eztakianak ikasi zala  
nor zeran berrizko.

3/ Atsegin bezin alaia,  
zu zera gure artzaia,  
gaxorik zegon euskera indartzen  
egin zīñan saia.  
Ilko zan beldur-garaia  
ezautu gendun, anaia;  
zu zeralako erri-arnasa  
gaur dago lasaia.

4/ Eztezu maite atxerik,  
eztezu galdu etxerik,  
zuri eztago zabarkerian  
ezertan eltzerik.  
Eztezu autsi eltzerik,  
autsia josi besterik,  
on egiten dun gizonak eztu  
buruan kezkarik.

5/ Ama Euskera kuttuna,  
jatorriz maite deguna,  
elbarri zegon, zu zera kantun  
sendatu zenduna,  
urtetako osasuna  
berari eman diozuna;  
artzaia etxean duan ardiak  
ai zer poztasuna!

6/ Jarraitzen dezu egoki  
errian alde gizonki,  
naiz da oraindik gorroto pixkat  
batzuek eduki.  
Anai artean okerki  
eztu ematen ederki;  
ama maitatzen eztunak eztu  
maitatzen ezerki.

7/ Zu beti zoaz egira,  
gezurra sartuz sasira;  
Aitor zarraren lur egin dezu  
goxo-goxo jira.  
Artaldeakin esira  
etorkizunan begira;  
bañan askotan ardi onenak  
okerrenak dira.

8/ Euskalerriko plazetan  
kantari milla klasetan,  
mendian berdin, zer esanik ez  
beko zelaietan.  
Naiz da eguzki erretan,  
berdin elur marduletan,  
egin da egin dezun lanakin  
ez egon penetan.

9/ Bat bada, zu euskalduna,  
berezko doia dezuna,  
amaren bular goxo-goxotik  
txit dakarkizuna.  
Zeretzako poztasuna,  
erriantzat ontasuna,  
Alguztidunak eman zaizula  
aurrera osasuna.

10/ Bertso-jartzalleak bildu,  
ez onengatikan mindu,  
bere iritziz onena nor dan  
Tximelak esan du.  
Iñori ezin agindu,  
pixua dunak arindu,  
zuen eskutan dago Basarri,  
ea nork berdindu.(1)

(1) Egillearen esku-idatzietatik artuak. *Goiz-Argi* aldizkarian argitara emanak, 1976 urteko otsaillaren 14'ean, bederatzigarrena izan ezik, aitatzerik merezi ez duten aldaketa batzuekin.



## **GURUTZEAREN BABESA**

(Doñua: "Ikusten duzu goizean...")

1/ Gurutzearen babesa,  
kristau guzion ametsa,  
aterpe oberik eza.  
Euskal-Erriko mendigañetan  
au beste banderik ez da.  
Goi artatik zaindu beza  
gure bizitza nekeza  
ta sarritan aldrebesa.

2/ Zor diot gurutzeari,  
zor, bai, eskerrik ugari,  
artaz ziñatua naiz ni.  
Bataiatzean gurutz-ikurra  
apaizak zidan ezarri.  
Arrezkero ezaugarri,  
bera det beti nabari  
biotz-begien pozgarri.

- 3/ Agur, gurutze santua!  
Nigatik or iltzatua  
Jainko-Seme gizondua!  
Bere odolez or garbitu du  
gu guzion pekatua.  
Alare askok aztua...  
Gu bizi-truk il zan ua  
ta emaiogun maiz muxua.
- 4/ Kanposantuko ixilla,  
ixil bete, biribilla,  
ez itz-ots, ez ixkanbilla.  
Illobi bakoitzean gurutz bat,  
fede eder baten kurpilla.  
"Piztuko da gorputz illa,  
ni itzultzean aren billa;  
seguru egon dedilla".
- 5/ Eriotzaren samiña,  
ezin esan ainbat miña,  
alare iges eziña.  
Guruzetik or Jesus eskeintzen  
bere laguntza zin-ziña.  
Zer zorion ta atsegiña  
arekin bat-bat egiña  
il ta piztuko bagiña!

*(El Diario Vasco, 1977, apirillak 3)*

## **JOXE TA ANA MARI**

(Doñua: "Ai gure antziñako...")

Beren ezta egunean, aien lagun batek kantatzeko,  
jarri arazi zizkidatenak:

1/ Ezkondu diralako,  
Joxe ta Ana Mari,  
nago bertsolari;  
zorionak emanaz  
asi naiz kantari.  
Alkar maitatuz eutsi  
bizitz berriari;  
ona egin nai badek  
etxean bazkari,  
naiko diru ekarri  
etxeakoandreak.

2/ Gernikako zugaitza  
degu maitatua,  
beti aitatua,  
berarengatik dator  
euskera batua.  
Iparragirrek jo zun  
lenengo tutua,  
ta zer esan nai zuan  
ez nago aztua;  
ea ekartzen dezuten  
mundura frutua.

3/ Ederki bazkalduta  
zer gozoro gauden  
zeon aldamenen,  
lagun, sendi, guraso  
arkiturik emen.  
Donostin bezelaxe  
poza Zizurkillen.  
Biajera zoazte,  
zeontzat gozamen;  
bazterrak ikusi ta  
etorri lenbailen.

## **ERRI MEZA**

1/ Gazteen meza gogozko degu,  
etorri naiz entzuteko,  
une onetan iru olerki  
guziori abesteko;  
Jaungoikoaren etxe apala  
otoitzakin indartzeko,  
lenengo au da bearrezkona  
gure izkuntza ez galtzeko.

2/ Bear bezela izan gaitzen,  
ez gutxigi ta ez aunditxo,  
zikulu-saltsak jaiotzen dira  
gañezkatzean eltxetxo.  
Zenbat naigabe txanponangatik,  
arrigarria da, kontxo!,  
diruangatik Jesus etzan il,  
testigu zera, Amatxo.

3/ Lur azal ontan batzuk mearki,  
bestiak txanponez gizen,  
erdiko ori lortuko degu  
jokatzen badegu zuzen.  
Emen barruan guziok berdin,  
ez al dezute ikusten?  
Ogi ta ardo eskeintzen digu  
pakean bizi gaitezen.

## **ADUNAKO NERE LANTOKIA**

1/ Errepublika zegolarikan  
ezautu nuan Aduna,  
Tolosatikan etortzen giñan,  
Olarra nuan laguna.  
Gu biok giñan kartoia utzi  
ta burni jarri genduna,  
geroztik beti ixtekotan da  
oraindik jarraitzen duna.

2/ Guda ta kartzel lau urte igaro,  
Tximela Olarran etxera,  
ongi etorri zoragarria  
semea banintz bezela.  
Olarrak esan zidan: "Nerekin  
berriz etorriko al zera?".  
Erantzun nion: "Aizu, Modesto:  
zurekin pozik lanera".

- 3/ Arek aldegin, ni bertan geldi,  
beti lanean jo ta ke,  
goizean goiz ni beti lantokin  
besteak etorri arte.  
Ezautu nitun iru jerente,  
laugarrena utzi aparte,  
zer arraiotan artu ote zun  
Bergarakoakin parte?
- 4/ Bergara, Aduna eta Plazentzi,  
irurak ziran alkartu,  
bañan aurretik tolosar Goñi  
Adunakoakin batu.  
Nik ez det beñere ondo jakin  
nola egin zuten tratu,  
nik dakitena Aizpurua jaunak  
egin zuala bialdu.

(1978)



**ARREGITAR IÑAKI  
NERE KINTO LAGUNARI**

1/ Gezurra ematen du  
baña da egia,  
Arregitar Iñakin  
jokabidia.  
Madritikan ekarri  
berak loteria,  
lagun artean saldu,  
bera da gabia.  
Ori ezta obia,  
buruaz torpia,  
artu dun kolpia,  
joan zaio kordia;  
Mondragonen bazegok  
itzat tokia.

## **GERNIKAKO ESTATUTOA**

1/ Nere gaurko deia  
entzun dezazuten,  
ea betiko ondo  
ezautzen nazuten.  
Gauz bat eskari nator  
jator eta zuzen:  
anai bezela danok  
alkartu gaitezen,  
Sabino zanan bide  
zarretikan goazen.

2/ Beste biderik eztu  
dotriñak agintzen,  
eztegu asi bear  
burutik arintzen.  
Dana galduko degu  
ez bagera biltzen;  
Estatuto berri au  
ez badegu zaintzen,  
alperrik da egotea  
gero penaz iltzen.

3/ Utzi ditzagun baztar  
amorraiziketak,  
ta besterentzako txar  
ditugun izketak.  
Gizonki jarrai zagun,  
laga berriketak,  
erria ez du jasoko  
mendi erreketak,  
ain gutxiago odol  
eta lapurretak.

4/ Bat egin zagun danok  
al degun azkarren,  
bestela ikusten da  
gugan zer datorren:  
Euskadi geio lotu  
askatu bearren,  
gu atzeraka goaz  
aurrera nai arren,  
au da batek nai gabe  
egitea erren.

(1979)

## **MIKELETEAK**

- 1/ Irureun urte beteko dira  
martxoaren amabian,  
mikeleteak lenengo txelet  
egin zuten Beobian,  
ongi etorri zoragarria  
arturik Ondarrabian.  
Oien nortasun txalogarria  
nator azaldu nayian.
- 2/ Geroztik emen ibili ziran  
beren jauntxoaren morroi,  
geienak gazte korrikalarik,  
ortarako beti sasoi.  
Naiz izan elur, kazkabar, izotz,  
euri, aize ala sargoi,  
giro guzitan ibiltzen ziran  
burua zutelarik goi.

3/ Lenengo aldiz karlisten aurka  
ezautu zuten burruka,  
aurretik itza eman da gero  
erregiñai ezin uka.  
Gero Bergaran gelditu ziran  
besarkadakin batuta,  
andikan laister Afrikaraño  
indar berriak artuta.

4/ O, Tetuango lur beroetan  
mairuen aurka su ta gar,  
irmen, indartsu gudaldietan  
buru zutelarik Kaxpar.  
"Iltzen dana il, jarrai aurrera!"  
itz ori zioten alkar,  
il etziranak etorri ziran  
bañan ez nai bezin azkar.

5/ Milla zortzireun irurogei ta  
amairugarren urtean,  
karlistak guda berriro piztu  
Santa Kruzekin batean.  
Erregiñaren alde berriro,  
apaizarentzat kaltean,  
eleizgoitarra itxuraz baña  
au ezin bizi pakean.

6/ Santa Kruzentzat bildurgarrinak  
–kondairak onela dio–,  
mikeleteen agintariak  
Arnau eta Lojendio.  
Oien atzetik joan ziranak  
gutxigo etzuten balio,  
ta erregiña bere alkira  
oiek zirala medio.

7/ Lareun zauritu izan zituzten,  
eun da berrogei bat illak,  
iru urteko gudate artan  
txapel gorri biribillak.  
Arrokeririk gabe beñere,  
zintzoak bezin ixillak,  
ez daduzkagu arrapaturik  
berriz alako mutillak!

8/ Donosti, zure Aurrezki Kutxak,  
berdin errikoak zaintzen,  
beti gizonki ikusten ziran  
agindu ori betetzen.  
Olo-lapurrik susmurrik bazan  
laister ziraden azaltzen,  
iñor il gabe, erakutsiaz  
bostgarren legea jartzen.

9/ Buruausterik txarrena zuten  
lapurrak jartzea gallen,  
erioztarrak iñoiz baziran,  
eiztaria irugarren.  
Neronek ere amaika korri  
elurretan egin nuen,  
bañan gaiztonak arpa jotzeko  
ijito jendea emen.

10/ Uste gabeen errepublika  
etorri zan guregana,  
"Ikurrin ori zainduko degu"  
Herasek esan zuana.  
Bost urte barru berriro guda,  
eta orain zeñengana?  
Eunetatikan larogei ta bost  
Urtizberearengana.

11/ Urtizberea bere gudarik  
maitea zuten benetan,  
onen bearra izandu zuten  
be ta goineko maldetan.  
Arerioen bonba batekin  
elbarriturik Elgetan,  
Bilbaoraño eraman zuten  
azkeneko arnasetan.

12/ Laister zabaldu zan mendietan

Urtizberea il zala,  
bertsotan ez dago esaterik  
ark utzi zuan itzala.  
Otoitz ondoren indarberritu  
aurreko gudan bezela,  
bañan oraingoz, il ziranak il,  
beste guziok kartzela.

13/ Iru irabazi, azkena galdu,

o, mikelete maiteak;  
Beobin jaio, emen bukatu,  
indarrak jarri legeak.  
Berriro txelet egin zazute,  
zabalik daude atea,  
ea Euskadin jartzen zeraten  
betiko jaun da jabeak.

*(Goiz-Argi, 1980, epaillak 1)*

*(Zeruko Argia, 1980, epaillak 16)*



**PRINCIPE DE VIANA ALDIZKARIARI**

*Príncipe de Viana* aldizkaria, urte mordo baten ondoren, argitaratu zaigu berriro.

Urtetan egon zera  
mutuan antzera,  
aldizkari maitea  
berriro kalera.  
Bertsolariak eztu  
zurekin galera,  
nik etzaitut egingo  
beñere atzera,  
pozik artuko zaitut  
etortzen bazera.

Beteko ditu zure  
orri geientsuak,  
idazlariak eta  
gañera bertsuak.  
Tartean ere jarri  
argazki batzuak,  
txit apaingarrirako  
dira beartsuak,  
irakurleak artu  
ditzala kutsuak.

*(Príncipe de Viana, 1980, martxoa)*

\* \* \*

*Príncipe de Viana,*  
jo zendun diana,  
ta bertso jartzalleak  
gero zuregana.  
Errebistak badatoz  
Tximelarengana,  
onela egiten du  
zure alde lana,  
iru bertsoetan esan  
bear dizut dana.

Gora giputxak eta  
Bizkai ta arabarra,  
anaia zera eta  
gora zu, naparra.  
Kanpotikan gezurra  
dator barra-barra,  
elurra eztanean  
gugan kazkabarra,  
laurok artu dezagun  
betiko indarra.

Laurok bat egin zagun  
ixil da pakean,  
ori ezta izango  
guretzat kaltean.  
Mikeleteak jarri  
mugako atean,  
ta gudari gazteak  
egunen batean,  
ni antxen egongo naiz  
askatu artean.

1980, Garagarrillak 23

## **NERE LAGUN PASTELEROARI**

1/ Bertsoen bidez egin  
dezatela jakin,  
eztala gaur e giro  
pasteleroekin.  
Oso asarre daude  
Iñaki ta Yokin,  
aurrera egin pastelak  
azukre geiokin.

2/ Pastel lodi guziak,  
erdiko ta mear,  
danak proatu ditut  
Gipuzkoan zear.  
Berantzako gozoak,  
guretzako kear,  
pastel ona jateko  
pastelero bear.

3/ Sei duro kentzen dute  
pastel bakoitzeko,  
diru asko bear da  
orrela oitzeko.  
Au da ba mixeria  
egia esateko,  
ametsa egin bear  
pastela jateko.

4/ Bart arratseko nere  
ametsan graziak:  
pasteleri batean  
lau ordu pasiak,  
tragatutzen nituan  
zetozen guziak;  
amets goxoak baña  
ni beti gosiak.(1)

5/ Esna nagola ez ditut  
iñoiz jan pastelak,  
ez ditelako ondo  
laguntzen karterak.  
Merkatzen ez badira  
orrelako janak,  
pasteleroak saltzen  
izango'izkik lanak.



*Nere lagun pasteleroari*

---

6/ Berantzako goxoak,  
gutzat gazi-gezak,  
eztek emen bakarrik,  
Yokin, ondo aizak.  
Berdin egiten ditek  
frantzes ta inglesak,  
gauz onekin ez dituk  
asarretzen juezak.

(1980, agorrillak 10)

(1) Laugarren bertso au, *Gosearen negarrak* sailletik artua.

## **BERTSOLARIAK ANDALUZIAN**

1/ Narbaiza eta Etxeberria  
Andaluzira joan zian,  
ta zorionez oiek ez dabiltz  
ni egon nintzan antzian.  
Ara eraman ninduten preso  
gudate bizi-bizian,  
an jarri nitun bertso guziak  
jasorik dauzkat etxian.

2/ Berrogei ta bi urte igaro  
dira an egon nintzala,  
oientzako an askatasuna  
ta nik betiko itzala.  
Bañan eskerrak Patxi zanaren  
indultoa izan zala,  
bestela antxen utziko nitun  
ezur, aragi ta azala.

3/ Euskadin alde jokatuakin  
beñe ez nago penetan,  
gizonak beti berdin bear du  
eguzki ta elurretan.  
Amaika bertso kantatua naiz  
geienez gordeketan,  
ta orain berriz bertsolariak  
Andaluziko lurretan.

4/ Gora lagun zar Etxeberria,  
gora Narbaiza gaztea,  
ta gora zuen gidari ona  
euskerazale betea.  
Andaluzian or zabiltzate  
bertsoetan jo ta kea,  
Garaikoetxeak eztu esango  
guretzat danik kaltea.

(1980)



## IMANOL MUJIKARI

Billabonatar Imanol Mujika erremonte jokalaria-  
ri, 1980 urteko Uztaillaren 19'an txapelketa irabazi  
zuanean:

1/ Mujikatar Imanol  
billabonatarra,  
remontean jokutzen  
zu zera bakarra.  
Zuk zasta egitean  
besteak dardarra,  
pillota ekartzeko  
nork ote indarra?  
Ez goizero edaten  
duanak patarra.

- 2/ Zuk ez dezu edaten  
beñere alkolik,  
frontoietan ba ote  
zu bezelakorik?  
Pururik ez dezu nai,  
ezta zigarrorik,  
eskun xextoa artzean  
pillota bakarrik,  
besteei emateko  
estuasun larrik.
- 3/ Zure aurrelaria  
jatorra Zelaia,  
bazendun orlako bat  
artzeko garaia.  
Gaur txapeldun zerate,  
ori gure naia,  
ospatzen ari gera  
egun bat alaia,  
txanpaña eta guzi  
apaindurik maia.
- 4/ Txiki-txikitik asi  
ziñan pillotakin,  
aurrera jarraituaz  
jostalluarekin.  
Leiotikan begira  
zure amarekin,  
gerora zuk zer egin  
ori zeñek jakin?  
Erria gora jaso  
dezu txapelakin.

5/ Etxera ekarri dezu  
bigarren txapela,  
ez noski izan baziñan  
jokatzen motela,  
nik ez nizun jarriko  
bertsorik bestela.  
Erri guziak daki  
zu piña zerala,  
aurrera jarrai zazu  
gaur arte bezela.

\* \* \*

Argira azaldu zaigu betiko  
erdi gorderik zegona,  
Mujika degu xextoz pelotan  
Galarretan ezaguna.  
Bera degu gaur aurren saririk  
onena atera duna,  
zu zera Billabona guzia  
txaloka jarri dezuna,  
milla zorion, gazte jatorra,  
ongi pasa Errege eguna.(1)

(1) Bertso au, *El Diario Vasco*'n argitaratua, 1981, ilbeltzak 8, Basarriren *Nere Bordatxotik* saillean.

## IZADIA

Txoriak udaberrian:

Udaberrian orlegitzen da  
mendia eta basoa,  
sartu orduko nabaitutzen da  
alako usai gozoa.  
Birigarroa kantari ari,  
orobat berdin zozoa,  
oien bitartez ikasi nuan  
maitatzen sendi osoa,  
oiek bezela nik maite ditut  
andre ta aurtxo gaxoa.

Luma tartean berotutzen du  
txoriak bere arraultza,  
uxatu arren ez du zapuzten  
berak egin duan gauza.  
Buru txikia, eta aundia  
naiz-ta ez euki gorputza,  
bere kabiko umearentzat  
beti da maitasun utsa.

(1949)

\* \* \*

Negu gogorra:

Amar eunko ta bederatzireun,  
berrogei ta amalaubean,  
kristau ta pizti, lurriña pranko  
badabilkigu aubean.  
Elurra mara-mara egunez,  
izotz galantak gabean,  
iñolaz ezin berotu gera  
sartuagatik labean,  
estalpe gabe bizi diranak  
ez daude estadu obean.

(1954, otsailak 3)

\* \* \*

Iretzat, txori:

Txoritxo, piu besterik ez dek  
asirikan elur jakak,  
izan ere ain zuri al dauzkak  
mendi, soro ta belazak.  
Janaren billa xaltoka abil  
kixkurturikan egatzak,  
lurmen txulotan amua an dek  
eta saieska beida zak.

(1957)

\* \* \*

Udaberria neguan:

Otsaillaren azken eguna,  
udaberria diruri,  
aritz osto mugitu da ta  
txori guziak kantari.  
Xixa txuriak billatu ditut,  
usaia dago nunari,  
artzaia berriz makutsik dago  
begira artaldetxoari,  
ondoren txarrik gabe izango da  
aurten sagarra ugari.

\* \* \*

Zizurkilko Olkiaga edo Olkierko gaikaldeko basoan, Antonio Iturrioz jauna lagun nualarik, billatutako perretxiku sorta bati jarritako bertsoa da au.

*Clytocybe*'ak, *russula*'k eta *boletus*'ak, irurak batera, pozoidun perretxikuen lau sailletako bat osatzen dute. Auen pozoia izena: *muscarina*.

Sorta batean berrogei bixki,  
guziak margoz gorrixtak,  
beren izena *clytocybe* ta  
gañera *oleovita*'k.  
Zomorro guzik opor berari,  
bareak proatu pixkat,  
jateko txarrak dira, etxeoandre,  
ikusteko bai politak.

(1975, agorrak 26)

\* \* \*

Erbi baten atzetik. Irurogei ta sei urte, bañan  
ametsetan oraindik ogei.

Zuriz jantzita dago  
gaur Euskalerra,  
nik beintzat elurretan  
busti det gerria.  
Erbi zar bat aurretik,  
bera elbarria,  
arrapaturik gabe  
jetxi naiz erriâ,  
auxen dezute gaurko  
Tximelan berria.

(1981, ilbeltzak 12)

## ADISKIDEENTZAT

Fauxtori:

Bertso bat jartzen asi  
naiz ta nere artez,  
lagun bat agurturik  
aspaldiko partez.  
Beti bezela nago  
osasun da gaitez,  
nai dezunean, Fauxto,  
zu azaldu zaitez.

(1940)

\* \* \*

Pedro eta Patxiri:

Etorri zaigu Patxi,  
baita ere Pedro,  
ez bat ta ez bestea  
ez nitun espero.  
Maiatzak ogei ditu,  
bai egoaldiz bero,  
ez giñaden alkartu  
Egoarrik ezkeru.



Sei illabete barru  
orra gaur juntatu,  
bañan orain ez degu  
leno ainbat tratu.  
Gauzak denborak aztu,  
oi ez da pekatu,  
Egoarriz kapoi jaten  
ez giñan nekatu.

(1943)

\* \* \*

Arrizurietari:

Agurtzen zaitut, Arrizurieta,  
besarkâ emanaz gogor,  
amalau urte ezker ezagun,  
lanari egin gabe opor.  
Irurogei ta bostekin utzi,  
zu beti ziñan maitekor,  
naiz dala itxason, berdin lurrean,  
naiz dala emen ala or,  
zorrik ez dezu iñun e utzi,  
nagusiak bai zuri zor.

\* \* \*

Lagunarteko merienda batera joan ezin eta jarritako bertsoa:

Bentatxabalen gendun merienda  
astearte illuntzian,  
itz eman arren nik uts egin nun,  
beste guziak an zian.  
Jakin det nola saia ziñaten  
gose pasatun antzian,  
ni gabe ere ango okelak  
aguro asko jan zian.

(1960)

\* \* \*

Beste batean, bein bear eta, lagun artera bildu nintzan, Zizurkilko Elbarrenan dagoan Pasusene tabernan. Tartean Joxe Arregi an zegoan, ta bat-batera puntu au bota zidan:

Asteasun jaio nintzan,  
iñun ez naiz azi...

Onela osatu nion bertsoa:

Txikia dala ezin  
obeto adierazi.  
Potxoloa ta motxa,  
bertsotan du grazi,  
edaten duanean  
bera da nagusi.

\* \* \*

R. Bengoetxea zizurkildarrari, gudaritzara joan ondoren, bertso au biali nion:

*Un-dos* ta *un-dos* or zabilzate  
gure seme ondraduak,  
ezker da eskubi, ta buelta erdi,  
alperrikako pausuak.  
Fusilla gora, fusilla bera,  
beti nekean besuak,  
ondo egiten eztunarentzat  
ez dira errita gozuak,  
zerbait ikasten dezute bañan  
au ez du nai gurasuak.

(1978)

\* \* \*

Korneliori:

Egun alai ta zoragarriak,  
Kornelio, dauzkak mugarri,  
Konpostelara ez beintzat joan,  
• gu bestela emen larri.  
Bertan ibili alkar maitatuz,  
muxu emanaz alkarri,  
eta lenbailen ludi ontara  
aurtxo polit bat ekarri.

Aurra jaio da, ortxen daukagu  
bere aman magalean,  
pozik aundina aitarentzako  
ori azaldu danean.  
Gero kristautu bear bezela  
sendian aldamenean,  
eta lanean jarrai dezala  
Euskadi askatu artean.

(1980, abenduak 7)

\* \* \*

Mendizabal aizkolariari:

Bertso bakarra ipiñi nai det  
jakin dezaten Euskadin,  
o, Mendizabal, zu añakorik  
eztalako sortu ludin.  
Aizkorarekin marka utzi dezu  
Tolosako plaza erdin,  
ta Mindegia beti atzetik  
arnasa artuz aldin-aldin.  
Zure amatxo zoratzen dago  
Aduna guzia berdin.

(1983, ilbeltzak 23)

\* \* \*

Sorabillako aurtxo bati:

Aurtxo polita ludi ontara  
zu egin zera etorri,  
o, Sorabilla, gaurtik aurrera  
danak begiratzuz zuri.  
Gaur bataioa egin dezu ta  
laister xalto ta kantari,  
orla jarraitu aurrera, maite,  
gurasoentzat pozgarri,  
beti maitatu aita ta ama,  
Eliza ta Euskalerra.

(1983)

\* \* \*

Arantxari:

Lengo batean jakindu nuan  
galdezka egin gabe ler,  
esan zidaten, beraz, Arantxa,  
uztartzen zerala laister.  
Erantzun nien ez nekiela  
era orretara ezer,  
Nere buruai onela nion:  
"Au izanda're, zeñi zer?".

Bat ezkontzean, besteak beti  
au jetxi, gutxitan altxa,  
ezin êmanik dagoen neskak  
oso mingaña xarpatxa.  
Ezer ez dago lekutik ere  
ateratzen dute xaltxa,  
zuregatik, zer esanikan ez,  
pena au daukate, Arantxa.

\* \* \*

Lagun baten ezkontza zala-ta jarria:

Noiz uztartuko ote ziñaden  
aspalditikan nenguan,  
bañan andrea artzen dezula  
jakindu nuan lenguan.  
Ta berri onek zoriontsu artu  
egin ninduan orduan,  
nere buruai au nion esan:  
"Onezko bizimoduan  
ibil zaitezte, urte askotan  
alkar maitatuz munduan".

\* \* \*

Gure lagun Jose Luis Erostarbe, billabonatarra, il zaigu. Gaur, bere illeta eleizkizunetan beste lagun batek abestu dezan, bertso au idatzi det, azken agurra emanez:

Jose Luis Erostarbe,  
ain maite genduna,  
mundu ontatik joan da  
alako laguna.  
Alboan artu beza  
Jaungoiko biguna,  
au da guziok emen  
eskatzen deguna:  
zerun izan dedilla  
alkartzeko eguna.

(1985)

## GUDA OROIPENAK

Guda bizi-bizian ezagutu nuan Jose Antonio Agirre jauna, gure lendakaria. Lenengoz. Markinan; gero, Bilbaoko *Carlton*'en; eta, azkenez, Gernika erretzen zegoala, goizeko ordubietan. Ludiko enbajadore asko zituen bere inguruan.

Gudari-talde buru nintzanez, beregandu nintzaion eta onela esan zidan:

– Nundik zatoz orrenbeste gudarirekin?

– Oraintxe etortzea egin det Oitz menditik.

– Andik ezer ikusterik izan al dozu?

– Bai, jauna. Egazkin ugari arro-arro, eta Euskadiko erririk ederrena erretzen.

Orduan enbajadore guziak nere albora bildu arazi zituan, esanez:

– *Aquí tienen un testigo más.*

– *De acuerdo, señor Presidente.*

Eta, azkenik, itz auekin agurtu ninduan:

– Zuk, al dezun arte, jarraitu. Mengantzik iñori ez. Dogun oituraz, alegindu bide zuzenez. Gudariak



artu itzazu itz onez. Galtzen badogu, gu galdata gagoz. Baña... Euskadi, beñere ez!

Gaur jakin det gure lendakaria Frantzian il dala(1), eta bertso au ipiñi det:

Jaio zanetik il arteraño  
beti burua neketan,  
lendabiziko negar malkoak  
Gernikako erreketan.  
Jainkotarra zan garbi-garbia,  
Aita Santu bat benetan,  
ta bere alde jokatuakin  
beñere ez nago penetan,  
gure zai dago beso zabalik  
zeruetako atetan.

\* \* \*

Ikurriñari:

Amaika bider ibili ziñan  
nere gerrian bilduta,  
ain amesgarri zu neretzako,  
ez beñere bildurtuta.  
Mendi batean utzi ziñudan  
muxuz ongi agurtuta.  
Loturik egon zeran zapia  
orain zaude askatuta.

Iru margoko zapi bat zera,  
euskotarron ikurriña,  
basarri bati begiratuaz  
Sabino zanak egiña:  
tellatu gorri, orma zuria,  
belaz berdean berdiña;  
zu ikusiaz nabarmentzen da  
arrotzen êman eziña.

(1978)

\* \* \*

Mikel Alberdi, *Lenago il* batalloiko gure koman-  
dante izan ziñana, zure gudariok gogoan zaitugu!

Beñere etzaitut aztu ta aztuko,  
taldeburuko maitekor,  
guda sortuta agindu zendun  
berai egiteko gogor.  
O, Mikel maite, zure esanai  
iñola ezin egin opor,  
bizi geranok zure bidean  
jarraitutzen degu jator,  
ta Zarautzara zure obira  
malkoz beterikan nator.

(1) Jose Antonio Agirre, 1960 urtean il zan, martxoak 22 zi-  
tual.

## **APAIZ JAUN BATZUEI**

On Jose Mari apaizari

Amaika bertso biali nitun  
len ere Amerikara,  
geientxoena Arjentinâ ta  
orain Kaliforniara.  
Ikusi zazu, On Joxe Mari,  
buru zar au orni dala,  
nai al zenduke egun batean  
ikustea or ni, ala?  
Iñolaz ezin joan nintzake ta  
zu etorri onuntzara.

Biotz biotzez, apaiz jatorra,  
egiten zaitut agurtu,  
gu geran arte iturri zarra  
ez da egingo agortu.  
Badira egingo lutekenak  
urbide ori apurtu,  
seme seme dan semeak ezin  
txit bere ama ukatu,  
nik naiago det gorroto gabe  
mundu aldi au bukatu.

\* \* \*

On Roman, Billabonako apaiza, il zanean, 1970  
urteko Iibeltzaren 31'ean:

On Roman il da! Erri guzia  
dago oñazez beterik;  
"aita joan zaigu" aotik aora,  
ez da entzuten besterik.  
Jaio ezkerok iñork ez degu  
beñere ordu segururik,  
iñorentzako ez da izango  
ez bada onentzat zerurik,  
Jaunak deitzean danok arena,  
ortan ez izan kezkarik.

Maixua il da! Itunaldia  
daukat biotz barrenean,  
nork ez du eukiko etxeko argia  
betiko itzaltzen danean?  
Azken egunak igaro ditu  
gaxorik aika oiean,  
orain lurretik zerura igo da  
Jaunak deitu dionean,  
nik opa diot ta aurki dedilla  
ango aulkirik onenean.

\* \* \*

Zizurkillen, Elbarrena auzoan, On Bartolome jauna zegoan apaiz. Egun batean onela esan zidan:

– Tximela, Lazaro mugan degu ta, egun ortan elizan kantatzeko, jarriko al zenduke bertso bat?

– Bai, jauna, bai.

Auxe jarri nuan:

Lazaro il da! Mari ta Marta  
oi burun otoitz egiten.  
Juduak joan da atsekabeak  
paltsoz zizkaten ematen,  
esanaz: "Jesus nun dago orain?  
Laguna ez al du ikusten?".  
Lau egunean ilda zegona  
altxatzen ikusi zuten.

(1974)

## ZIZURKIL

Elbarrenako jaiak:

Zorioneko jaietan gaude  
bildurikan elkarrena,  
jaialdi oiek antolatzeko  
zu alako, Elbarrena.  
Gorroto dunik etortzen bada  
biali emendik barrena,  
Jaunan pakean igarotzea  
danontzako ederrena.

(1952)

\* \* \*

Bertsolariak Zizurkillen:

Lengo igandez sei bertsolari  
Zizurkillen txit bildurik,  
etzuten euki alkarrentzako  
nik uste ainbat bildurrik.  
Ain gutxiago dardarizorik,  
etzuten galdutzen neurrik,  
asten ziraden gaietan ondo  
bertso dana osaturik,  
eundaka asko egondu giñan  
antxen pozez zoraturik.

(1974)

\* \* \*

Bertso au Ramon Alzate zizurkildarrari, nere lagunari, eman nion. Ark, margolaria zalarik, kuadro bat egin zuan. Bertan, Errekalde baserria, bere intxaurra aurrean duala, azaltzen da. Kuadroa eta bertso au *Teodoxio* tabernan arkitzen dira.

Gora Zizurkil, goi, be ta erdi,  
zuretzat nere agurra,  
ingi ta burni-olez betea,  
aberatsa dezu lurra.  
Askok diote polita dala  
Urkamendiko gallurra,  
pitxi politez jantzita zaude,  
bat aukeratzen det, orra:  
lurrean dezun zoragarrina  
Errekaldeko intxaurra.

Errekalde baserria, Pedro Maria Otaño bertsolariaren jaiotetxea da. Eta intxaurra, ura Ameriketan egon zan bitartean, bere bertsoetan aitatutakoa.

(1977)

\* \* \*

Elbarrena, berriro ere:

Erri geienak berekin dauzka  
goiburua ta elbarrena,  
Zizurkil da bat azi añean  
izen ori dakarrena.  
Emengo gazte, nai dala zarra,  
itxusi ta ederrena,  
len ez bezela ikusten dira  
bildurikan alkarrena.

(1977)

\* \* \*

Arripitxiko alaba, Zizurkillen, alkate izendatua  
izan ez da, ba? Milla zorion!



Neri Tximela deitzen didate  
ta nik zuri Arripitxi,  
zure erriak gaur esan dizu  
zu zerala orko pitxi.  
O, Zizurkillen alkatetzara  
egin zaituzte iritxi,  
lagun jatorrak bertan dauzkazu,  
iñori aterik ez itxi,  
Otañon erri zoragarria  
etzazula beintzat jetxi.

## **ERIO TZ SAMINGARRIAK**

John Kennedy il zutenean, 1963 urteko Azaroaren 22'an.

Berri kaskarrak datoz  
Ameriketatik,  
tiroz Kennedy il dute,  
eztakit zergatik.  
Negar egindakoak  
badira gogotik.  
Oinbeste pena artu  
ango batengatik?  
Aiek ez dute egingo  
negar guregatik.

Urte zar badijoa,  
berria mugan da,  
ongi artu gaitzala  
amabi mats janda.  
Zarra naiko odoltsu  
ludian izan da,  
geiago ez ixuri  
iñork eztu nai da,  
Ameriketakoa  
naikoa ez al da?

\* \* \*

Berriro ere, Amerikan eriotza. Martin-Luther  
King il dute. Nork?

Eriotz asko izan da  
Kennedy il ezkerero,  
aundina gaurkoa da  
Dallas'koa ezkerero.  
Eratsu berdiñean  
il dute Lutero,  
aurretik pentsatuta,  
ez odolez bero,  
bañan ezta jakiten  
nork il duan gero.

Erabiltzeagatik  
zuzenki bideak,  
odola ixuri du  
Luther King gazteak.  
Ez beretarrak noski,  
il dute besteak.  
Askotan entzun nuan,  
on dit esateak:  
ez duela balio  
ona izateak.

Onela zion beti:  
"Entzun, ez egon gor,  
gudate guziari  
egiteko opor.  
Dana pake bidean  
egin gabe gogor,  
ni emen kabitzen naiz  
ta zu kabitur" ...  
Au il dutelako ni  
protestakin nator.

(1968)

\* \* \*

Beste au, berriz, gure errian:

Beltzez jantzita dago  
gaur gure erria,  
etorri zaigulako  
malkozko berria.  
Aitak amatxo il du  
ta aurtxo berria,  
bestea sabelean,  
au negargarria!  
Nolaz ote zekarkin  
odol egarria?

Urte zar ospaturik  
erreez purua,  
eriotzak egin du  
iltzeko gogua,  
gero trenera bota  
zun bere burua...  
Aurrera jarraitzeko  
banuen gogua,  
negarrez asi naiz ta  
bukatzera nua.

*(El Diario Vasco, 1980, ilbeltzak 9)*

## MENDIAK

Otzabiori:

Otzabio,  
tontor baldatx,  
olerkariak ala dio.  
Goi gar,  
pauso txar,  
nunai apatx.  
Aldapatsu  
bezin aizetsu.  
Gurutze gabe,  
ezin ona izan zu.  
Napar aldetik  
txara zar  
da gosetsu.  
Lur gorri guzin  
bai arritsu.  
Tolosa aldera?  
Au galdera!  
Nagon begira

arizti ta pagadira;  
atzeokoa añakoak badira.

(1955, maiatzak 26)

\* \* \*

Gorbeari:

Gorbea,  
zu zera Bizkaiko atea,  
etzaudenean lañoz gordea.  
An Gazteiz, an Bilbo.  
Ixo, ixo.  
Tilin-talan, tilin-talan...  
Artaldea?  
Belar ordez  
aseta nekez.  
Beste santzorik ez.  
Ara, ara... artzai zulo.  
Ara... bera lasai lo.  
Au ludiko pakea!  
Nun obea?

\* \* \*

Buruntza mendiko gurutzean:

Gozoro nator onuntza,  
naiz lar da ote,  
gogoak baidit bultza.  
An beian erria.  
Andoain ote?

Bai.  
Zer altxorgarria  
baiki ta baiki, baiki Buruntza.  
Ez dek oso buru utsa.  
Belkoaiñek bezela  
ik ere gurutza.  
Eguzki beroak erria  
daukak gerria.  
Naiz dala senti zardadia,  
oñetan beti gauz berria.  
Beste Donosti bat egiteko  
badaukak naiko arria.

\* \* \*

Arrospe mendia eta Leaburuko erria:

Esate batez atzo gazte ta  
gaur erdi aiton nagola.  
Txikitatikan ezagutzen det  
Leaburuko arbola,  
urtea ez da oraindik bete  
igo nintzala or gora.  
Bentatik aruntz Arrosperaño  
blai egiñik alkandora;  
nere buruai esan ere bai:  
"Nola joaten dan denbora!".



Nola kontzejun ala ostatun  
bietan giñan alkartzen,  
an jan da edan iji ta aja,  
gutxitan giñan plazâzten.  
Dantzaz asperraldi bat egin da  
gero bertsoak kantatzen,  
ta batez ere Benta genduan  
danetan geina maitatzen...  
Beiñere zartuko giñanikan  
ez giñaden konturatzen.

(1960)

\* \* \*

Uzturre mendiko gurutzean:

Udaran alai, negun asarre,  
txapeltarien altxor urre.  
Dindili-dandala arkume.  
Artzaiak agur, beralde.  
Len ardi ille,  
orain bele lume.  
Bakartxo zaude, bakarti,  
apurtzen dator arkaizti,  
beldur datorkit galanki,  
datorkizuna betiko jalki,  
ez da igoko beñere noski.  
Ni igoko naiz, ondo naizela,  
muñ ematera al dan maizeki.

Adunako Belkoaingo gurutzean jarritako bertsoak, erriko festetako egitarauan argitaratzeko eskatu zizkidatenak:

Belkoaindikan emanik nago  
itxasoari bizkarra,  
kaleko gaitzak uxatutzeko  
badegu onen bearra.  
Odei gabeko zero argia,  
aize gozoa iparra,  
ezkerretara Buruntza daukat,  
eskubi Ernio zarra,  
ta aurrez-aurre erri polit bat  
dirudiana izarra.

Gurutze onen oñetan ezin  
egin nezake oporra,  
otoitz goxo bat ixil-ixilik  
begiratuaz or gora.  
Gure on bearrez ongi dakigu  
nork ixuri zun odola,  
beso zabalik il zan arentzat  
guztiok badegu zorra,  
sinismenikan etzazu galdu,  
izar erri maitekorra.

(1975)

\* \* \*

(1975)

\* \* \*

Belkoaingo gurutzeari:

Belkoaingo gurutze,  
beti beso zabal zaude,  
luze-luze...  
Naiera datorkizu  
itxas aize.  
Zuk, nik bezelaxe,  
on giro gose.  
Olerkariak onela dizu:  
zure oñetan ezin ase!  
Zu gabe oñaze!  
Leen aberats,  
garo ta belaz.  
Orain piñu ta ote.  
Betiko ote?  
Nolaz?  
Artu nezan arnas.  
Zu zaude  
Adunari itzal emanaz,  
"on izan" esanaz.  
Zure oñetan  
otoitz, ez jolas.

Agur, gurutze maite,  
beste bat arte.  
Emen egoteak  
ez dit egin kalte.  
Zuk ni nauzu  
osasunez bete.  
Onuntz datozenak  
ala diote.

(1978)

## **BERTSOLARIAK**

Pedro Maria Otañori:

O, Pedro Mari Otaño,  
ez nuen uste ortâño...  
Zaletasunak erantzun dizu  
zeruko bordâño.  
Besterik ez da egundaño,  
zuk erakutsia baño  
ederragorik, Euskalerrian  
sortu oraindaño.  
Zuk piztu zenduan sua  
ain da argi ta gozua;  
aize eman arren ezin itzaldtu,  
ain da berotsua.

\* \* \*

Abeletxeri:

Ai, Abeletxe, naiz txiro izan  
buruz zera aberatsa,  
lorenz dotore apaindu dezu  
bertsolarien baratza.

Ondo itzegiña zera ta dezu  
Otaño zarraren antza,  
oitzen bazera sarritan artzen  
atzaparretan arkatza,  
gaur edo biar izan ziñake,  
bai, olerkaria latza.

\* \* \*

Joxe Lizasori, bere omenaldi egunean, neronek  
kantatua:

Joxen alboan eroso  
danok gaude gozo-gozo,  
ezagutzen da Euskalerrriak  
maite dula oso.  
Poztutzen da kale, baso,  
ain jatorra da Lizaso,  
txalo beroak berari eskeñiz  
bi besoak jaso.

(1977, ilbeltzak 16)

\* \* \*

Ernanitar M. Arrozpideren bidez, Aieten bizi zai-  
gun Matxain bertso jartzallea gaxorik dagoala jakin  
det. Gaur bertan bi bertso auek biali dizkiot, nere la-  
gun zar dan Matxaini.

Au du gaurkoz Tximelak,  
Matxain, zuretzat;  
gaxorik omen zaude,

tristura neretzat.  
Nork eztu min artuko  
lagun zar batentzat,  
ainbeste bertso eder  
jarri ditunantzat?  
Erriak beti artu  
zaitu aintzakotzat.

Nai gabe egiten dira  
gaitzak etxeratu,  
ez egiñagatikan  
beñere pekatu.  
Maldezio botatzen  
etzera nekatu,  
alaz guztiz erreuma  
dezu arrapatu,  
opa dizut biotzez  
lenbailen sendatu.

(1978, garagarrillak 1)

\* \* \*

Amurizari, txapela irabazitakoan:

Bederatzi puntuan  
gaur nai nuke mintza,  
iñork ez dezala artu  
luzagarritza.  
Gorrotorik gabe  
eraman bizitza,  
naiz dala eguzkia,  
elur edo intza.  
Buruan zait printza,  
au da nere itza,

ta bertsolaritza,  
gora Amuriza!  
Txapel berriarekin  
pozik zabilta.

(1980, ilbeltzak 6)

\* \* \*

Joxe Maria Arrietari:

Bertso jartzalle eta  
eiztari jatorra,  
Ernaniko semea,  
ez mutu, ez gorra.  
Bere zakurrarekin  
eizean gogorra,  
berdin zaio izotza,  
berdin zaio elurra,  
ollagorrai ematen  
dakina egurra.

Ollagorra usaitu,  
geldituta jarri,  
gero berak bota ta  
zakurrak ekarri,  
"aundia egin diau!"  
esanaz alkarri.  
Piñuteritik irten  
estu eta larri,  
bat etxeratu, amar  
utzirik elbarri.



## **BESTE ZENBAIT BERTSO**

Donostiara joan nintzan batean jarria:

Donostiara alai nator, naiz  
egon egoaldi gordiña:  
noiznai ebi ta noiznai ateri,  
au da, au egun sorgiña!  
San Tomasetan zerua goibel,  
tarteka dago urdiña.  
Bai, Donosti, bai; berdin da elur  
eguzki edo aize miña,  
neretzat zera giro guzitan  
oso txoko atsegiña

(1942)

\* \* \*

Tolosako kalean nola-alako gizaseme bat ikusi  
ondoren:

Atzo Tolosan bein bear eta  
polita ikusi nuan:

gizaseme bat bakar-bakarrik  
*Erbiya*'neko onduan.  
Bere gaban da guzi ederki  
dotore ematen zuan,  
besa azpia bete liburu,  
talentu gutxi buruan,  
gaurko egunean amaika olako  
ikusten degu munduan.

(1942).

\* \* \*

Ardoa, baxoerdia alegia, iru errealetik pezta bate-  
ra igo zanean:

Billabonako errian daude  
guzitâ amaika taberna,  
oietatikan lauetara gu  
ez gera sartzen barrena.  
Baxoerdia pezta,  
oso merkea ezta,  
au da gure gaitz txarrena:  
baxoerditan gabiltzanean  
ez biltzea alkarrena.

(1966)

\* \* \*

Demokrazian berriro sartu giñanean:

Billera oiek egiñak giñan  
Patxi Franco bizi zala,

euskotarrentzat ura izan zan  
ai zer nolako azala!  
Il ezkeroztik askatasunez  
gaude orduan bezela,  
Estatutoa bear dan neurrin  
Madridek eman dezala,  
mutur joka emen, mutur joka an  
asiko gera bestela.

(1978)

\* \* \*

Alper bati:

Langille ona, esnatu adi,  
au egingo diat galde:  
lana eginda erdi ipurdi,  
zer nai dek lanikan gabe?  
Goizero seitan ona etorri,  
itzalduta daukak labe,  
ortik etzegok etorkizunik,  
ez al aiz egiten jabe?

(1979, agorrillak 19)

\* \* \*

Lau puntu berdiñak jartzen ditut bertso ontan, ba-  
ña bakoitzak esanai ezberdiña duala: Berriz erria,  
berriro, beste bein eta albisteak. Erderaz: *el pueblo  
de Berriz, de nuevo, otra vez, noticias*. Poto ez da,  
beraz.

Bizkaian da erri bat  
bere izena *Berriz*,  
bi urte izan nintzala,  
joan nai nuke *berriz*.  
Bañan diruangatik  
ez gorde iñor *berriz*,  
gañezka jarri gera  
onelako *berriz*.

**SAN BLASKO AMONA BATI,  
EUN URTE BETE ZITUANEAN**

- 1/ Lur zar onetan paseak dauzkat  
  mundu guziko baztarrak,  
  o, neretzako beti izan dira  
  jatorrenak San Blastarrak.
  
- 2/ Gora San Blas ta bertako auzoak  
  ta gora gure ermita!  
  Auxen gogora ordurako nei  
  negar datorkit begitâ.
  
- 3/ Amona oraindik bizi zaigu ta  
  nik artutzen deten poza!  
  Agur, Gabina, ongi igaro,  
  agur da gora Tolosa!
  
- 4/ Azkenez agur bertako alabak,  
  sendi guzia ta Arnaiz,  
  mutil koxkorra nintzan ezker  
  zuentzako goatzen naiz.

**BERRIRO AITONDU**

Nere bigarren billoba jaio zaigula jakin dedanean.

Urte zar badijoa,  
berri mugan dago,  
berriro aitondu naiz,  
oso pozik nago.  
Gaur ni nagon bezela  
danori oparo,  
agur, Euskadi maite,  
ta ongi igaro.

(1985, abenduak 13)

## **TXIKITANDIK SENA**

Zortzi urte ezker  
bertsoak abesten,  
ta nere gurasoak  
etzidaten uzten.  
– Aita, utzi zaidazu  
bertso au kantatzen,  
ama alboan dago  
pozikan aditzen.

## AURKIBIDEA

Landare erria . . . . .	7
Algutidunari . . . . .	11
Basarri jaunari Tximela kantari . . . . .	15
Perretxikuak . . . . .	25
Lurtarrak illargira . . . . .	33
Pentsakizunak . . . . .	39
San Blas auzua, nere bizi ta jostalekua . . . . .	41
Inbiria . . . . .	49
Maria Lurdes Iriondori . . . . .	53
Planetak . . . . .	57
Billabonako erriari festa aurrean . . . . .	63
ONU dala-ta . . . . .	67
Gipuzkoako erriak eta nere umorea . . . . .	71
Amasako iturriari . . . . .	79
Atomikaren indarra . . . . .	83
Gure artzai astronomua . . . . .	89
Aldariagaren sutea . . . . .	91
Basarri . . . . .	95
Urtain . . . . .	101
Erreboteko jokua eta Billabonako Mankua . . . . .	107
Erreboteko jokua . . . . .	111
Isaak Lopez Mendizabal . . . . .	115
Billabona txapeldun . . . . .	119
Atxe . . . . .	125
Etxenikeri . . . . .	129
Zer egin du <i>Matesak</i> 'k? . . . . .	135
Tolosako Juanito Lope irudigillari . . . . .	141




Kanpotarrak onuntz . . . . .	143
Herrero bati . . . . .	145
Berriro Basarri jaunari . . . . .	151
Gurutzearen babes . . . . .	155
Joxe eta Ana Mari . . . . .	157
Erri meza . . . . .	159
Adunako nere lantokia . . . . .	161
Arregitar Iñaki nere kinto lagunari . . . . .	163
Gernikako Estatutoa . . . . .	165
Mikeleteak . . . . .	167
<i>Príncipe de Viana</i> aldizkariari . . . . .	173
Nere lagun pasteleroari . . . . .	177
Bertsolariak Andaluzian . . . . .	181
Imanol Mujikari . . . . .	183
Izadia . . . . .	187
Adiskideentzat . . . . .	191
Guda oroipenak . . . . .	199
Apaiz jaun batzuei . . . . .	203
Zizurkil . . . . .	207
Eriotz samingarriak . . . . .	211
Mendiak . . . . .	215
Bertsolariak . . . . .	223
Beste zenbait bertso . . . . .	227
San Blasko amona bati, eun urte bete zitua- nean . . . . .	231
Berriro aitond . . . . .	233
Txikitandik sena . . . . .	235



1009204  
BO-2178-II

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALIZANEDIA
BILBO
67636
1990 URR. 5
1009024



AUSPOA  
LIBURUTEGIA

B